


LETURIAREN EGUNKARI EZKUTUA

Txillardegi



euskal literatura

ELKAR

Azaleko ilustrazioa: PELAYO OLAORTUA
(Museo de Arte Moderno. Bilbao)

© Txillardegi

© Edizio honena: Elkar. Esterlines, 10. DONOSTIA

Depósito Legal: NA. 1.028 - 1983

ISBN 84 - 7529 - 119 - 8.

Inprimatzaile: Gráficas Lizarra, S. L., Ctra. de Tafalla, Km. 1 - Estella (Navarra)

*Euskaltzale guztiei eragin nahian,
bihotzez Egileak.*

SARRERA HITZ BATZU

Ez dut gaurdaino hitzaurrerik egin, eta ez nuen uste gogoz egiten ari naizen egiteko hori gogoz egin zitekeenik.

— Jose Luis Alvarez Enparantza, euskal letretan «Txillardegi», ezagutzen dut aspalditxoan. Hona nola ezagutu nuen. Sari-banaketa batetan zen, eta saritutako lan batek ez zuen oso ongi hartzen norbaiten filosofia: Kant-ena ala existentzialistena zen, ez naiz oroitzen. Dena dela, han altxa zitzaigun Txillardegi. Laburki eta funtsez adierazi zigun ez zuela ontzat hartzen sarituaren iritzia, baita zergatik ez zuen hartzen ere.

Biziro poztu nintzen. Neroni, egia esan, bat nentorren Txillardegi-rekin, baina hori ez zen gutxiena. Hutsa al da, bada, gure artean, inor mamia aintzakotzat hartzen ikus-tea? Ez dut uste geroztik han-hemengo aldizkarietan argitara eman dituen artikulu banakak irakurri gabe utzi ditudanik. Hitzaldi trebe bat ere entzun diot, Unamuno-z, behar baino gutxiagok entzuna. Eta beti, gero eta gehiago, haseran ezagutu nuen Txillardegi hura berbera aurkitu dut.

Noizpait, joan den udaberrian edo, bere asmoaren jakile egin ninduen: eleberri bat egitekotan omen zebilen,

eta nolapait esateko existentzialista horietakoa. Lehen baino lehen has zedila eskatu nion, eta ahalik lasterren buka zezala. Ez dut horrekin esan nahi liburu honen sorreran zer ikusirik izan dudarik. Eman nizekion hitzak merkeak dira eta ez nuen uste, ezta alderatzeko ere, gogoan zeukan liburu hura eskuetan daukazun liburu hau izan zitekeenik. Saiatzeak ez dio inori kalterik egiten, eta euskal idazle berri bati inori baino gutxiago. Txillardegi-rena izanik, gainera, banekien zorrotz eta zehatz esanik irakurriko genuela gutxienez. Izen-ondokoak ematen zidan, ordea, gogoan beharra. Beldur nintzen, alegia, idazlan hori ez ote zen, beste asko bezala, modaren losentxak eragina izango, barrengo eskeak sorrerazia izan beharrean.

Horrela den ala ez zerorrek ikusiko duzu, irakurle. Neronek argi eta garbi ikusia dut. Esan beharrean aurkitzen naiz luzatu gabe, horrexegatik beragatik, hitz eskas hauek baino hobeak merezi zituela liburu honek sarrerako atean: dena delako lehenik, eta mugarri baten antzera lur berriaren seinalea eta ezaugarria dugulako gero.

* * *

Nobela honen gaia hitz gutxitan konta daiteke. Ez bedi inor asalda: nik konta ditzakedan gertaerak ez dira gaineko axala baizik, muin gordea estali ez-baina ukierazten digun itxura sotila.

Udaldean, liburuko «Udalehenean», Leturia-k ez du zereginik, inguruko bakez asetzea baizik. Ezta kezkarik ere, gaztetasunaren ezinegon larriatsegina izan ezik.

Bat-batean, bakeak, soseguak aldegin du, eta nolako aldaketa Leturia-ren gogoan eta inguruko zero-lurretan, maitasuna dela bide! Askok eta askotara azaldu izan dute miragarrizko antzaldatze hori. Esaterako, Poe-ren hitzez azal dezakegu:

«Gauza guztiak itxuraldatu ziren. Ohi ez bezalako lore distiratsu izar-antzekoak ernatu ziren lorerik ezagutzen ez zuten arboletan.

Belarraren berdea berdeagotu zen, eta txiribita zuriak banan-banan galdu ala, hamar halako rubi-kolorezko unanu-lore jaiotzen ziren... Urre-zilarrezko arrainez josi zen ibaia, eta honen sabeletik jaiki zen, gero eta ozenago, marmar bat, edozer baino gozoagoa, Eleanora-ren minztoa izan ezik. Eta aspaldian iguzkiaren etzinaldera geldirik genekusan sugarrezko hodei lodi bat gure gainean tinkatu zen astiro, gero eta beherago, mendi-tontorrak ukitu arte, eta betiko balitz bezala sorginkeriazko kerizpe argitsu betean izkutatu gintuen».

* * *

Egileak berak esan dit zati hau «inoxoxamarra» dela. Bai ote? Maitasunak —irritsaren azken txingarra aseak hoztu eta betetasunak itzali arte— dakartzan neke eta atseginak, amets eta etsipenak, maiz agertu izan dira irakurgaietan, gizona holakorik egiten hasi zenez gero. Eta hitzez, lehen eta gero, zenbat bider? Halaz guztiz, oraindik inor aspertu ez denez gero, esango genuke ez dela gaia agortu, ezta agortuko ere noski gizona gizon deno. Gezurrik gabe esan da gertaera hori, gizonari gerta dakizkiokeen beste zenbait gertaera nagusiren gisa, beti berria dela, lehengoak bezalakoa izan arren ez duela sekula lehengoan antzik. Nahikoa da esatea Leturia-k sentitu zuenaren berriaren berriak ez duela berritasunik ez jatortasunik galdu Txillardegiren luman.

Hori aski ez dela, inor okiturik baldin badauka inongo herritan giza-maitasuna maizegi ahotan erabiliak, ez dakioke horrelakorik gerta euskaldun irakurleari. Zenbait euskal autorek azaldu dute maitasuna, egia, eta ez guz-

tiek orobat. Ezagunenak besterik ez aipatzeko, hor ditu Detxepare eta Oihenart aseak neska-mutil gaztetxoei irakurtzea komeni ez zaizkien hamaika gauza esan zituztenak, eta gugandik hurbilago Bilintx gosea, bizi zeno ondorerik gabeko amets txuri-gorriak iruten jardun zuena. Hegoaldeko maite-haizetxo bat ere etorri zitzaigun behin Provenza-tik. Baina euskal prosak uzkur egin dio gehienetan gai horri. Baldinba jasoagorik ukitu du; ez, ordea, behar bada gizonarentzat —baita euskaldunarentzat ere —nagusiagorik, ez bizi-oinarriei atxikiagorik.

Axular batek bazekien hori, eta ez zen gelditu iragaitzez bederen adierazi gabe.

Leturia-ren txoraldi hau pintatzean berean ere aberastu gaituela deritzat, beraz, Txillardegik. Baina ez zuen horretan gelditzeko asmorik. Haseran gaude oraindik; ez dakigu ezeren berri, Leturia-ren itsumena gurea baldin bada. Neke eta ardaila, erdietsi du gogo zuena.

«Uda» dator orain, uda isila, zorionari edo zorionitxurari dagokionez, eta laburra gainera. «Udazkenera» heldu gara. Berandu ohartu da Leturia, ez zitekeen lehenago ohar, sasi-beharra zela, sasi-premia alde aurretik guztizkotzat zeukan premia hura, ez zela dena gorputzik gabeko ametsa eta irudipen hutsa baizik; besterik nahi zuela, uste ez bazuen ere, bere bihotzak.

Etsibehar gogorra ganean duelarik, ezin etsi. Ez du ohiturak menderatuko, ezta «egunorokotasunean» murgilduko. Ez dio maitasunak ernatu zion zorion-nahiari ukorik egingo. Kontuak zeharo garbitu behar ditu bere buruarekin, horretarako etxetik ihes egin behar badu ere. Eta bere buruarekin bakarrik hasiko du «Neguko» hizketaldi larria, hil ala bizi, bide bila nahigabez inguraturik eta ilunbetan aztamuka. Bidea topatu du azkenean: beranduegi? Ez du lehendik ezagutzen genuen bidea aurkitu

besterik egin, esango du agian norbaitek. Ez du lehendik ezagutzen genuen bidea aurkitu besterik egin, esango du agian norbaitek. Ez, ez da lehengo bidea, ohitura hila ez baita sinesmen bizia, ezta belarrik belar dabilen artaldea-
ren bidea aukeramenaren jabe den gizonarena.

Arrazoi pixka bat bazuen egileak lehen zatiaren ino-
xokeriaz ari zenean. Haurtzaroko ametsetan —txoxatan bezala— bildua zebilen Leturia, ez zekien bere buruaren berri. Ez dut esango *Egunkari* honen azken zatia baino ederragorik ez dela ondu euskaraz —*bélles-lettres* direla-
koetatik agitz urruti gabilta hemen—, ezta ere gai garai-
gorik ez dela ukitu. Baina, baldin neure iritzia estalkirik gabe agertu behar badut, ez dut uste inoiz gure hizkuntzan entzun denik horrelako hitz larririk, horren zinezko aito-
rrik, horrenbesteko karraxi sarkorrik. Ez dugu sekula egin, hitz batean esateko, Leturia-rena bezalako ibilaldirik gogo-
bideetan barrena.

Liburu honen iturburuen bila hasiz gero aurkituko genuke noski nor aipa. Euskaldun baten izena behinik-
behin, Unamuno-rena, asie etorriko litzaiguke gogora. Oker handia egingo genieke, ordea, bai Leturia-ri bai egi-
leari, bide horretatik abiatuko bagina. Jakina, egileak ez du deus sortu ezerezetik, sortzailea bailitzateke orduan, Jainkoaren antzera, ez egilea. Leturia-ren nahigabea ere ez da beste inork sumatu ez duenetakoa, non eta noiznahi-
ko gizonarena —eta batez ere gaurkoarena— baizik. Ez uste izan, ordea, horrenbestez bere kezka ez direla bes-
terenen ispilu eta errainu besterik. Bihotz bihotzean da-
ramatza iltzaturik: nork ukatuko dio, bada, jabetasuna? Ba ote da oinazea baino gauza gureagorik?

* * *

Leturia-ren Egunkariak lau aldi ditu, lau «tempo», sin-

fonia batek bezala. Lizardi-ren *Urte-giroak* bezala, gainera, urte-sasoien izenak daramatzate haseran. Berez bezala dator horrexegatik, ezer behartu eta bihurritu gabe, *Urte-giro* haiek eta *Egunkari* hau elkarrekin berdintzea nahiz formari nahiz mamiari dagokionez, elkarrengandik hain guztiz beste direlarik ere.

Duela hogeitabost urteko gizaki guztiak ez ziren Lizardi, baina gizarteko gailur garai hura bere aldiko semea zen, edozeinen antzera. Gaurko nornahi ere ez da Txillardegia, baina Txillardegia gaur-gaurkoa dugu, inor bada. Bestalde, eta hori duzue okerrena berdinketan hasteko, Leturia ez da Txillardegia, Txillardegia-ren umea baizik, gehienez ere.

Ez naiz hemen hasiko egilea eta egilearen seme-alaben arteko har-emanen korapilo luze-bihurria askatzen. Goethe-k, nonbait Ortega-k dionez, aurkitu omen zuen, maiteminak leher-zorioan zeukanean, ordezkoa bere buruari eman behar zion tiroa hartzeko: Werther gizarajoa. Txillardegia-k Leturia-ren bizkarrean ezarri du bere eta bere kideen nahigabe-zama astuna. Ez hori bakarrik. Hobeto mintzatzeko, kimikak —eta Literaturak orobat— ohi duen eran, hain larri-min hutsezkoa egin du, non ezinak berak ez baitu atzeraziko. Guri, ohitura lagun, egunoroko husteriatan murgiltze nagiak, alabeharrari amor egiteak ematen digun eraman-indarraz zeharo erantzi du. Leturia ez da, beraz, bere aita, baina badu aitaren eitea, nolana ere.

Lizardi-k, ez dugu ahaztu behar, neguan hasi zuen udazkenean burutuko zuen ibilaldia: ez negu gorrian gainera, udaberriaren zantzu garbiak nabarmen zirenean baizik. Bukaera ere udazkenearen gainbehera hasterakoan ipini zuen, gau beltzaren hurbilak eguna inoiz baino desiragarriago bihurtzen duenean. Txillardegia, berriz, udaberririk argienean abiatu da, negu-buruan gelditzeko.

Ez da zalantzarik Lizardi-gan. Pozik dago biziak eskaintzen dionaz eta fedea agintzen dionaz. Alferrik bilatuko duzue beragan Europa eta mundu guztia dardaratzen hasia zen lur-ikararen berri. Dardarek ez gintuen artean ukitu edo, ukitu bagintuen ere, begi-belarri erneak eta arima urduria behar ziren zirrara sumatzeko. Bizileku sendoan bizi zen. Zimenduetan ez-ezik, ez zen paretetan artesiaturik ageri. Axalean zertxobait aldatu ere, bizimodua, uste, iritzi eta sinesteak ohiturazkoan ziren, gurasoengandik zetozenak, eta gizaldi berriek aztertu gabe bereganatzen zituzten, beste edozein ondasun bezala. Inguruan, Euskal Herria zeukan, euskal lurraldea zuhaitz ugari jantzia. Ez zuen inongo amets-herritara ihes egin beharrik. Aski zuen aurrean zeukana kantatzearekin.

Engainatua zebilen. Gaur badakigu astindu gaituzten lur-ikarak sortuak zirela ordurako, eta ez direla berehalakoan baketuko. Zorioneko gorreria orduko, alde batetik, hari zor baitiogu ihartuko ez den Lizardiren poesia, gure eta ondorengoen atsedentoki baketsu izateko sortua. Baina ez Leturia-k ez Txillardegik ez gaurko nornahik ez dezake entzungor egin. Bizibeharra eta ezinbizia aurrean ditugu, ezin ditzakegu besterik gabe guregana usteak, sinesteak, bizibideak, ohiturazkoak direlako bakarrik, zehatz eta astiro etsaminatu gabe.

Trankilago bizi gaitezke uholdeek eta haize-erauntsiek ere inarosten ez duten etxean, oinarriak berak koloka dauzkaten bano. Egia. Atseginagoa zen Lizardiren mundu geldia gaurko gozogabe hau bano. Egia hori ere. Ez du ordea inork bere mundua, giroa eta sorteguna aukatzen. Nor geure aldian eta tokian gertatzen gara, nola ez dakigula. Eta gurekin jaiotzen da, geure aldiko seme jatorrak bagara, harako antzinakoen 'amor fati' hura, gure denbora -gure sorteria bezalaxe- beste edozein bano mai-

teago bihurtzen diguna. Gurea delako nonbait, guretarrekin itsatsirik gaudelako.

* * * *

Nik ez dut Txillardegi bakarrik ikusten. Txillardegi eta «Leturiaren egunkari ezkutua» gizaldi berri baten eta gizaldi horren obren aintzindari gisa agertzen zaizkit. Ez dut uste oker nagoenik eta ez nuke inolaz ere oker egon nahi. Ate-joka dagoneko deus gutxi ezagutzen ditugun ondorengoak.

Gizaldien arteko borroka etengabea behin eta berriro kontatua izan da. Ez dute inoiz zaharragoek oso begi onez ikusten gazteagoen etorrera. Gezurra nioke, neronek, baldin banio ez dudala halako erresumin isil baino bizi bat sumatzen. Begiak zabal-zabalik izaten dituzte gazteek zaharragoen alde txarrak —hutsak, txorakeriak, itxurakeria batez ere— ikusteko. Badakite gainera bere dutela gazteek, zuzen ala oker, azken hitza.

Gure artean, ordea, gaur eta hemen, argi eta garbi ageri da jende berriaren premia. Ez dut deus esango neure kideko eta zaharragoen kontra, nire buruaren kontra mintzatzea bailitzateke. Aldi txarrean jaio gara geure neurriaren betea agertzeko: mendera ezin genitzakeen gertariak erabili gaituzte maiz aski orbela bezala nora ez genekiela. Nolanahi ere, eta aspaldidanik naiz iritzi horretakoa, Paradisu galduaren mina daukagu hezur-muinetarino sartua, eta beldur naiz ez ote garen beti ibiliko gaur-biharretako munduan «tanquan aduenae et peregrini», herriminak uz-kurturik dauzkan arrotz eta kanpotarren gisan.

Gizaldi berria —Txillardegi eta bere seme Leturia hartzen ditut egia horren lekuko— gurea baino hobea, jatorragoa, iruditzen zait zenbait aldetatik. Itxurak eta izen ederrek gu baino gutxiago lotsatzen dituzte: izanari lotua-

goak ageri dira izenari baino. Badute egiari —iguzki-argia baino liluragarriagoa den egiari —aurrez-aurre begiratzeko ausardia. Nahimen-kemena ez dute ahitua; badakite erabaki gogorak hartzeko jaiok direla, baina ez dituzte nolana, ero-eroan, hartuko, ez baitituzte gero erdizka eta gogo gaiztoz bete nahi. Gure artean dabilzan ideiak eta balioak erroetaraino ikusmiratu nahi dituzte. Kritika eta eraberritzea geure kaltean izango badira ere, horietxen beharrean gaude.

Ez da leku txarra «Egunkari» honen hizkeraz mintzatzeko. Hizkeran nabaritu baita, bestetan baino lehenago, gazteen etorrera, axal-axalean ageri delako edo. Hizkuntzagaietan eskarmenturik duenak aurki igerriko dio liburu honen egileak ez duela gutxi entzun eta irakurri. Zaharrak eta berriak —liburuetan ikusiak, ez hiztegiatan— hitz arrotz eta jatorrak, jakintza-hizkuntza eta herri-esaerak nahastean irauli dizkigu. Ez dut esango, ez bailitzateke egia nire ustez, Txillardegi-k bere mintzaera zeharo eskuratu duenik liburu honetan: halako gordin-antxa aurkitzen zaio, osoro heldu ez den fruituarena. Ezin zitekeen bestela izan: ez ditu hitzak menderatu, hitzekin borroka bizian ari da. Ez baititu hitz pollitak apainkiro elkartu nahi belarrien gozorako, hitz horien bidez adierazi baino arimaren zoko ilunetan izkutatzen diren joera eta burutapen iheskorak. Ez baita, batez ere, inoren oihartzun, ez baita besteren ahoz ari, bere baitaren baitatik baizik.

Baliteke hizkera oso garbia ez izatea. Bizia eta adierazkorra baldin bada, zertarako behar du garbia izan? Euskararekiko kontuak ere garbiro egin beharrean aurkitzen gara. Zertarako nahi eta behar dugu euskara? Gure mundukoa ez den oroigarri xahar kuttun bat iduki genezakeen moduan idukitzeko? Zikintzeko beldurrez inor ukitzera ausartzen ez den zenbait liburutegitako azal ederreko li-

buruak bezala gordetzeko?

Maiz entzuten dira gure artean hileta-hotsak; badirudi udazkeneko hotzikara sentitzen dugula gorputzean. Eta halere ez dakit. Askotan egiten dut neurekiko ez ote gauden aitzitik udaberri-aurrean. Zaharrak omen gara, beste edozein herri baino zaharragoak. Egia dirudi, baina herri baten adina, gizon batena baino areago, urtez bakarrik neur ote daiteke? Ez ote gara euskaldunok —ez naiz holako edo halako euskaldunez ari— urtea joan urtea etorri, betiko haurtzaroan bizi? Gaur azkenik munduari zor diogun hitza esateko zorian gaudela deritzat, eta uste hori «Egunkari» hau irakurtzeak biziro sendotu dit. Ez daukagu beste biderik. Haurretango oharkabetasun atsegina utzi beharko, biziko baldin bagara, arrazoi-adineko egiteko latz eta nekagarriei ekiteko.

* * *

Eskerrak eman nahi nizkioke, azkenik, Txillardegi-ri eleberri hau euskaraz eman digulako. Ez ote du bada behar zuena, euskaldun bati dagokiona, bakarrik egin. Bai, horrelakoxe da noski. Baina ez da alferrik esana izango, gure arteko gor asko kontura daitezen, eginbeharra ez dela sarritan nolana betetzen, heroismu hutsa eskatzen digula. Zerbait esateko duena euskaraz mintzatzea, mintzabeharra jatorra badu, ez da erraz eta alaikiro hartu eta burutuko den erabakia. Ez dago hemen egiari uko egiterik.

Pozik gaude, berriro ere esango dut, Txillardegi euskal soro meharrean ari zaigulako. Eta orain, inor ez banaiz ere, ongi-etorria egin nahi nioke buru-langile edo direlakoen sail nardatu honetara, nahiz ongi etorria baino gaizki-etorria zuzenago esana legokeen. Mintzatu berriak dira Donostia-ko egunerokoetan horrelakoek gure artean maiz jasotzen dituzten zehar-begiratu eta susmo txarrez.

Baina, nahi ez baditugu ere, behar ditugu eta gaur, gainerantzekoei ezer kendu gabe, inoiz baino gehiago. Ur lasterraren erdian goaz, ez gaude ia ertzetik begira. Mendi-tontorretara igotzearekin ere, Domingo Agirre-k nahi zue-
nez, ez dugu deus askorik aurreratuko. Gauza asko eta asko ikasi, onartu eta gureganatu beharrean gara. Damurik, ez da dena irabazi hutsa izango: kendu beharko da, soildu, idoki, ebaki, ezin-bestean baita maiteen duguna ere. Zuzen ikusteko eta zuzen erabakitzeko, burua bezain bihotz garbiko jendea behar, nahi-eta-ez. Egiak, aspaldi irakatsi ziguten, latza eta garratza izanagatik, osasun-bidean jar gaitzake.

1957ko Apirilaren 14-an, Erramu-igandea.

L. Mitxelena
Euskaltzaindi-koa.

BIGARREN ARGITARAKETA DELA-TA, HITZAURRE

LETURIA-ren bigarren argitaraketa hau dela-ta, hitzaurre gisa lerro batzu bederen prestatzea bidezko iruditu zait.

Urrundu egin da LETURIA. Arrotz egin da. Joxeba eta Miren ene kaskotik sortu ziren giro hura, politikatik urrun beharra, ez da gaurkoa, ezta gutxiagorik ere.

Eta, ni beldur, gaurko irakurle anitz, gazteenak batez ere, orain dela hogeituro urteko giro hura ezagutu ez dutenak, harritu egingo dira nik uste. «Zer ote da hori guztia? Zertara ote datoz barne-garrasi eta metafisika-kezka ero horik?»

LETURIA, liburuaren egilea bera bezala, gizon eta emakume guztiok bezala, bere giroko seme da. Eta urte haietan, pasatzen dextente hasia egia aitortzeko, etsistentzialismoaren moda zegoen. Camus, Sastre, Jaspers, Kierkegaard... Izatearen zoritxarra gailen. Eta gure Unamuno iragarle. Moda hasia zen pasatzen, nion. Etsistentzialismoak modan jarri zituen arazoak ez baitira pasa, ez baitira gainditu; gizona gizon deno ez baitira pasako.

Eta barne-min hori, «être por la mort» delakoaren goragalea, sinbolotan eta nobela gisa azaltzea bururatu zitzaidan.

Ez niri, ez da egia; ez osoki bederen.

1956-ko Apirila zen. Galiziara alferez sei hilabetez ego-
tera nindoan soldauzkara. Eta, joan aurretik, Koldo Mi-
txelenarekin mintzatu nintzen; eta inork ez zekien neure
«segretia» aipatu nion: Galizian pasa behar nuen denbora
hura galdu nahi ez, eta zerbait euskaratzeko neure asmoa
azaldu nion. Knut Hamsun-en «Pan» nobela zoragarria
hautatua nuela, hain zuzen.

— Ez, ez —erantzun zidan brauki Mitxelenak.— Ino-
laz ere ez! Zeure buruz asmatu behar duzu zuk nobela bat;
eta horixe bai izkiriatu. Ez zazu, beraz, Hamsun itzul.

Ez nuen nik erantzun hau espero. eta zalantzan gelditu
nintzen egun batzutan. Baina Maiatzean Galizia-ra iritsita,
nunbait «ría» zoragarri haietako hosto berriek eta haize-
bala hozkirriek pizturik, egitera delibertu nintzen; eta LE-
TURIA zoritxarrekoaren gorabeherak hasi ziren nigan
mamitzen.

Camus-en «La Peste» (= Izurritea) neukan gogoan; eta
nik neuk ere, sinbolakuntza osoan, funts handiko liburu
bat moldatu nahi nuen. Miren, horretara, gizonaren xede-
aren irudia zen ene asmoan, bidean aurkiturik eta absolutu
bilakatua; «Zerubide», izenak bereak salatzen duenez, Ab-
soluturako bidean Naturaren irudia; Paris, berriz, uniber-
tsalismoarena; eta azken erremedio gisa, petrikiloarengana
jotzeak bazeukan, ene asmoan behintzat, Naturara bihurtu
eta Zientzia soilari buruzko mesfidantza-kutsu nabarme-
na. LETURIA, azkenekorik, kristaua zen, geroko PERU
LEARTZAKO-az bestaldera; eta nahiz oso heterodoxo
izan.

Ez dakit oraindik ere ene sinbolakuntza horretaz inor,
nik nahi bezenbat bederen, ohartua denik.

Nolanahi ere, LETURIA Ferrol-go lanperna usain eta
«ribeiro» zuritan oratua izan da. Ene anaia bizkia ez ba-

da ere, ene gaztaroko adiskide mina eta hurbila da Joxeba; eta ageri dela iruditzen zait. Horren barruan daramatzadan Puente deune, Betanzos, Cedeira, Jubia, La Coruña, Arosa, Grove, La Toja-n sortua da. Oso barruan, bai; askoz ere beranduago Noruega-ko Stavanger-en gertatzean erreparatu nuenez... Castela ez nuen orduan ezagutzen, zoritxarrez. «Ondiñas veñen e van» airean mamitua, LETURIA-k dauka, bere muinean, beharbada nik uste baino sakonkiago, «saudade» bortitz haren kutsua...

Beste giro bat, zeharo desberdina.

Kruxef-en Txosten famatua 1956-ko Otsailekoa da. Suez eta Budapest (gu guztiok ikaran!) LETURIA bukatzen ari nintzenean gertatu ziren. 1958-ko Maiatzeko deitik urrun, bakean eta isiltasunean zahartzen zen De Gaulle jenerala Colombier-des deux-égliques-en.

Gurean, berriz hotzaldi betean, zer? Ilunpe itogarrian zirrikiturik ez. Noiztenka bakarrik, Abenduaren 3-etan, Larraitz eta Hernio-ko erromerietan, euskal arnasa bila alferrik saiaturen... Beldurrez, konfiantzako lagunen artean, batek edo bestek ausartzia handitan lortua zuen «Euzko Gogoa» bat aztertzen genuen: Zaitegi... Orixe.. Andima... Euskaraz ikasi nahi genuen, eta ez genekien nola.

Gugandik hurbilago, Etxaide-k prestatu berria zuen nobela berria irakurri genuen euskaltzaleok (Etxaide-ren «Joanak joan»); eta pozez ikusten genuen politzi-nobelak ere euskaraz egin zitezkeela (Loidi-ren «Hamabost egun Urgainen»). Atzerrian, berriz, bagenekien, euskara zailan, «Bidalien Egiñak» argitara zuela Zaitegik. Urte latzak, urte tristeak, urte luzeak. Zinez! Agirrek ere senditzen zuen gure arteko tristura hura; eta Biltzarre Nagusira deitu zituen denak (mendiz joango?) Parisera. Arantzazun ere, kultur-mailan, alaitasun handitan, galda azpian baze-

goela ageri zen. Eta, apalki, Bastarrika, Intxausti, Azurmendi, Gandiaga-ren inguruan, JAKIN sortu zen. Hura poza!

Han eta hemen, benetako katakunbatan, multxo txikitán, euskaltzaleok biltzen: Mitxelena edo Berriatua-ren ondoan banaka batzu, Mirande edo Charrittonen ondoan beste batzu; edo Elbira Zipitria eta Xabier Peña... Taldeka batzu, eguntsentiaren zai. Besterik ez. Giro hartako seme duzu LETURIA.

Noski! Gipuzkeraz agertu zen LETURIA. Eta bidezkoago iruditu zaidalako, bere hartan utzi dut: agertu zen bezalaxe dator berriro. Euskara batzeko beharraz ongi jabeturik egonda ere, Euskara Batu-rik ez zegoen 1956-an.

Politika girotik eta euskalgintzatik urrun sortu zela pentsa dezake norbaitek. Oker legoke. Euskaraz izkiratzea bera aski zen garai hartan! Tunel betean mamitu eta argitara zen LETURIA. Hauxe da dena. Bere egileak aspaldidanik ezagutzen zituen Martuteneko aideak eta eltxoak; eta berriro ezagutuko zituela ongi zekien...

LETURIA, hitz batez, lekuko bat da. Ene lekukoa da, hasteko: hogeitun urte gazteago zen idazle harena. Giro hartako lekukoa ere bada, ene ustez. Eta, sinetsi nahi nuke, euskal literaturaren berrikuntzan urrats txiki bat bederen ematen lagundu zuela.

Hurrengoa, gaurko girotik abiatua, egiten lagunduko ahal du irakurlea!

TXILLARDEGI

Donostian, 1977-ko Martxoaren 7-an.

UDALEHEN

I

Bakarrik nago «Zerubide»n.

Baina ez nitaz urrikal, nahita etorri naiz-eta bakarrik egotera. Eta bai pozik, alegia!

Hemen bakarrik nago, egia esan; baina nahiago dut mila aldiz orain bezala egonda, piskanaka-piskanaka, zeru-lurraren handi eta ederra dastatu, jende askok inguratuta denbora alferrik xahutu eta galdu baino.

Zer da-eta bakarrik egotea? Kalez-kale lagun askok inguratua ibili arren, ez ote naiz ni egon ohi, hala eta guztiz ere, orain nagoen baino askozaz bakarrago eta utziago? Bai, zinez; eta sarri.

Horregatik esan dut haseran, nahita nagoela gaur bakarrik; bestetan ere lagunekin egon arren, bakar-bakarrik bainengoen, eta derrigorrez gainera.

Gaur ez horrelakorik. Hain zuzen ere, bakarrik egoteko etorri naiz «Zerubide» honetara, eta pozik nago neure bakartasunean. Lortu al daiteke edozein gogo-gauza bakartasunaz maiz elikatzeke?

«Zerubide» hau txit polita da, parke guztiak bezala. Ez dakit «Zerubide» ote den polita, ala «Zerubide» bera ez dena, hots, bere parketasuna. Hori ez zait axola han-

dirik, ederra dela baizik.

Zuhazti honetan sartuta, haren kerizpe indargarrian murgildu, eta badirudi beste mundu zoragarri batetako sarreran nagoela. Bihotza ukitzen dit haren olerkiak.

Orain, esaterako, aulki batetan eserita, urmael txiki borobil bat dut aurrean, neure lagun bakarra. Ez uste izan berak apaindura finak dituenik: iturri apala da guztiz, niri gustatzen zaizkidan bezalakoa: goroldioak berdez margotua, iturburuaren xirripa etengabeaz besterik ez du. Eta hor ari dira txirri herabetiaren tantotxoak, jauzika, uraren ispilua urratzen; eta ganean igerika ari diren hostopuska arinak, hotzikarak hartuta gisan, gora eta behera mugiarazten.

Arratsalde ederra gaurko hau. Ortzea garbi goialdean, itzalak higikor lurrean, arnagarri haize-bala freskuak, eta landare-usain... osansuntsu.

Udaberriaren ederra!

Bakarrik nago, bai, eta ondo halere. Gizonak bere begien aurrean belar izpi bat duelarik, gogaituta dagoela esan al dezake?

Gogorra omen da bakarrik nahi eta nahi ez ibiltzea. Eta, halere, pozik egon ohi gara bakarrik. Nola hori? Zer da bakardadetik ihes eragiten diguna? Eta zer da bestetan haren bila zuzentzen gaituena? Geure baitarako mintzagaiak izatea; geure buruarekin hitzik gabeko jarduna izateko gogoa.

Hots, neure buruarekiko kontuak garbitzeko joaten naiz bakarrik, garbiketa hutsa baita, eta egiazko aitorketa, bakardadean egiten dudana egonaldia.

Neure burua ordea gezurtatu nahi dudanean, ezin dagoke aitorketarik, eta ez dut bakarrik egon nahi ohi. Beldurra da, bada, nire buruaren beldurra alegia, bakardadetik baztertzen nauena.

Orain ez dut halako beldurrik. Nazkatu egin nau munduko lozorroak, nazkatu egin nau haren laukeriak. Neure burua aurkitu nahi dut, nire gaitzerako bada ere, naizena sakon aztertu eta miatzeko.

Eta inork ezagutu eta ulertzen ez nauenez gero, «Eguneroko» honetan ipiniko ditut neure aurkikunde guztiak, gaur bezala, geroan neure animak nekez gòdatuko ildoari jarraitu ahal izateko. Egunkari hau izango da, bada nire kezka guztien kutxa.

Txatxukeriak dira nonbait nire gertakizun horiek. Baina paperean txatxukeria horietxek zirrimarratuz inoiz ez bezain gogora nago.

Hor dut, aurrean ere, landetxe jori bat. Zergatik ikutzen dit barrunbea hura ikusteak? Zerbait eder bururatzen didate haren teilatuaren gorriak eta hormaren zuriak.

Baina ez datza horretan haren hunkigarria: haren ba-kea da nire burua asalduz betetzen duena. Baretasuna dario etxetxoari bere gauzatasunean; ez da ezertan higitzen, eta bere horretan dirau eta dirauke. Harentzat ez dago zer kezkatu; trankil eta asaldakaitz begiratzen ari da eguzkiaren ibilera geldia, bere mendebalderakoan urdin argitsuan behera doala... Ez du bihotzik! Horregatik ez du asaldu harrapatzen. Nik bai, berriz.

Mendebaldera doa poliki-poliki eguzkia arratsalde eder honetan; horregatik eta nolako estularria nire bihotz honek! Igaro egin zait beste egun bat, ia oharkabean, isilisilik, arrabotsik batere entzun gabe.

Eta gaur ere, gauzei halako edertasun-lilura darielarik, ez dut zorion arrastorik senditu, haren eza eta gabea baizik. Ez dakusat ezta zorionaren bidea ere!

Zer dira nire lerro hauek guztiak arrenkura sutsu baten gar kiskalgarria baizik?

Zorion irritsa da, bai, nire kezkaburua; bakarrik ego-

tera ekarri nauen zio ezkutua, eta neure lagunengandik ihesi joateko agindu nauen ahotsa. Hori ez besterik. Zorion-mina da izadiaren eder-lore iaukalak sortu didan bihotz-hutsunea. Kezkatzen ez diren izakiekiko bekaitz-giro sentitzen dut barrenean batzutan. Haien bakea!

Baina... bekaitz esan al dut? Zergatik? Handia-edo da zoriona, haren falta hain handia da-eta. Gaurko nire hutsune honek ez al du, berez, eta besterik gabe, aski balio? Ez al du behintzat asko adierazten? (Eta ezer adierazten ez badu...?)

Edo-ta, zoriona nahi dut, nire bihotz minduak zoriona behar duelako. Zertara datoz bestela nire bizigura eta bihotz-lilurak deuseztatzeaz beste irteerarik ez badute...?

(Eta, ez badute...?)

Ondo konprenitzen dut, alabaina, zuhaitz eta belardietako oihartzunetan neure bihotzaren mintzaira: zorionarentzat jaio naizela diote, eta egun hauek etorri diren artean, mundutar jostabide ero eta itsuei utzita bakarrik hona etorri ez naizeno, ez naiz honetaz konturatu.

Kaleko zarata zela-ta, ez nuen neure bihotzaren dei isila entzun, gor honek.

Orain, berriz, urmaeleko susmurrak, eta arbolen kullunkaera harrigarri eta aldakorak, garbiro belarriratzen didate bihotzaren hitz ahula.

Zoriona behar dut, bai. Hiriko orroa zentzugabeak ez nau bete. Orain, ostera, urrutitik entzunda, haren itsus-tasun eta gezurraz konturatzen naiz.

Bakarrik nago, baina neure munduan. Zalapartarena ez da nirea: «Zerubide»ko parkea dut, nonbait izateko-tan, neure zeru-bidea.

Hemendik aurrera hona etorriko naiz, eta honetaratzen naizenetan ez ditut koartillak ahaztuko. Hauek izango ditut gaurgero neure bihotzaren adiskide min eta leialak. Haiei



ЗЕРУСИДЕ'КО АТЕР

H. H. H. H. H.

kondatuko dizkiet neure penak oro.

Eta hau idatzi ondoren, arratsaldea hiltzen ikusiko dut talaitxo hartatik. Hau poza. Eta hau tristura! Hau ederra!!!

Itsaso aldera begiratuko dut. Eta nork imita dezake haren esana?

Talairuntz noa, bada, lasai, geldiro, presarik batere gabe. Zertarako presak? Eguzkia ez dabil larri. Ezta zuhaitzak ere hosto-kiman.

Nik ez dut presaren aldetik hutsegin nahi. Niretzako atsedengarririk bada, ez al da hau nire atsedena?

Bideska txigorretan barrena noa, bada, sastarka eta lore berrituen usai hezea betaro-betaro hausnartzen...

II

«Zerubide»n nago berriz, eta bakarrik, arratsalde honetan.

Beharbada aspertuko nintzela-ta, liburu bat ekarri dut besapean. Irakurtzen hasi naiz lehen, bainan gogorik ez: barka biezat aipatuko ez dudan nobelari ospatsuak, bera ez baita hobena, bainan ezin josi bertan neure arreta eta oharmena. Txorien txorrotxioak zirela-ta, haur bi esku-tik helduta nire ondotik korrika igaro direla-ta, burua eskuin eta ezker aldera, eta, utzi egin dut irakurtzea.

Nahiago nuen parkea ikusi, eta neure baitan dabilen urduritasuna hitzetan itzultzen ahalegindu.

Ederra dago gaur eguraldia: giro astuna, sargori alegia, baina itzalean geratzeko zoragarri. Haritzondo arte-tik zerua. Beltz dirudite zuhaitzen hostoek, eta atzo erruz higitzen baziren, gaur geldi-geldirik daude. Noizik behin

soilik haizearen arnasak nire aurpegia birbizten du; nagieriaz bezala kulunka adaburuak labur eta mazal.

Zerua ez dago atzo bezain garbi, eta hodei gandutsuak urdinduta agertzen dira, urrutiko mendi eta muinoak lau-lauak, koska eta konkorren arrastorik gabe taxuan.

Eta, ostarteak eguzkiari alde-eginik, hodeien artetik honen diztira hits bihurtzen denean, beren ohikotasuna estaltzen dute izakiek oro, eta argia galtzeak larrutu diruela dirudi. Enbor eta adarretako islak, eguzkiaren utzierak irentsi bailituan, argi epelean iraungiturik, gorputzedo gelditzen dira, erlieberik gabe, elkar gain metatuak, Gauguin-en koadroetan legez. Benaz, agi denez beren eguzki gun-emailea galduta, zertarako bizi ez dakitela dautza erdi-ilunean.

Halako more-beltzak jazten ditu, lore gorri zena ubel bihurtzen da, eta negarraren eder hunkigarria dario orotatik.

Bitartean, zuhaitzek koloreekin batera hartu duten negar-itxura nabarmentzeko edo, enbor artetik dator urrutiko eresi arina... Dantza-orkesta dantza, aldizka, kantak eta egungo aireak jotzen dituena.

Ez bide-dago urruti dantza-lekua, orain ordubete inguru dela, neronek entzun baititut, hain zuzen, ezkonberriei eman zaizkien agurrak eta zorion-opa alaiak. Eta joan direla ematen du.

Orain, bazkaldegi apainduan noski, mahaitarrak ari dira dantzan. Betiko leloa, betiko jai mota, eta... beti bezain zirrargarria.

Bidea aurkitu al dute bi horiek? Aurkitu... aukeratu bai, behintzat. Askatasuna galdu dute, alegia, baina gaurgero maite-kezkabiderik ez dute izango.

Horretaz gainera elkar maite badute, zerua ez al da ireki haientzat?

Baina... Zauskada sakon eta latz batek astindu dit bihotzondoa. Zer dakit nik honetaz? Lilura, lilura!! Zorion itxura oinarrige hutsa ez al da horiek ikusteak bururatzten didan hau?

Bi hegi, bi alderdi, bi aro izan ditu horientzat bizialdiak: txikizitutik orain artekoa bata, eta gaurdanikoa bestea.

Lehenengoari utzi diote.

Halaz ere, azken-kutsuren bat ez al du ezkontzak? Ordurarte, alde batetik, gorantz ez al doa gizona, handik aurrera beherantz eta ilunpe beltzaren aldera abiatzen dela? Txikitzen ez al da gizona ezkonduz? Ezkongaietan zerbait banintzen, ezkondu-eta...

Aurrera begiratuki, beste biziera bat islatzen da; alegia, ezkonberrientzat. Bainan, ezkon-aurrea ametsa baten, ezkon-ondoa zehatze eta konkretatzea da; eta ametsen gauzatzea beren amesburua baino zirtzilagoa ez al da izaten?

Zoragarria haien etorkizuna: bizimodu desberdina, zeharo ezagugabea, beherantzkoa agian.

Nor daki?

Eztai-eguna igaro dute horiek. Gaztetasun betearen bila abiatuak, gaztaroa hil dute. Sari garestia, egia esan, auke-ramenean baitatza gizonaren izana. Eta ni beldur aukeratzeko. Gogorra da hori. Aukeratzeko larri-minik ez dute aurrerakoan izango; bainan, bere ordeztan, aukeraketa egina izatekoa izango dute lagun betirako. Damurik ote?

Egun gogoangarria, bada horientzat, maiatzeko hau, muga, bide eta joera eman baitiote gaur beren biziari. Ez dute berriz ezer ere ikusiko orain arte bezala, ezkontzak haientzat mundua aldatu du-eta. Arroza samurrak haien bihotzei atzo hitzegiten zienean, beste batera zuen elea. Ilunabarrak, berriz, ez du sekula izango atzo arte izan zuen

lilura-mota. Gaztetango mintzoa, mututu egin zaie betirako. Atzo ere zituzten ametsak ez zaizkie berriz otuko.

Zer burura diezaioke «Zerubide»ko iturritxo honek ezkondata dagoen bati? Ez, alegia, niri esaten didana bera.

Nolakoa ote da ezkonduetik loreen hizkuntza?

Jaiotzatik ezkondu artekoa, eta ezkontzatik heriotzarakoa: horra bizitzaren bi zatiak: hautatu aurrekoa, hautatu ondokoa.

Nigan, oraingoz, dena dago ikuskizun. Lehenengo aroan nago ni. Ez dut nor maite, ez nau inork maite, gurasoek besterik; ez dakit norantz joan... Larribide hau ez al da ezkonberri ausart horiena baino nekakorrago...?

Hori idazten ari nintzela, aurreko iturrira alderatu da neskata bat. Uraren ispilu higikorrrera begira egon da lipar batez; eta bere burua ala urmaeleko hondo harritsuak ikusten ote zuen, ezin esan dezaket nik, ametsetan bezala baitzuen begirada...

Horretan zegoela, zakur handi sendorra ondoratu zaio zaunkaka, bere zakurra nonbait, harri koskor bat botatzeko eskean. Ametsari bapatean utzi neskak, liluragunetik asmamena kendu, eta zakur ederrarekin joan da. Niri ez galerazteko egin dio keinua, eta iturritik joaterakoan barkatzeko eskatu dit begiradaz. Ez da harritzekoa: gazte bat parkean idazten ez da askotan ikusi ohi; eta berak ere halatsu uste zuen, noski.

Eta bakarrik utzi nau berriz, lehen bezala, atzo bezala, zuhaitzak eta txoriak neure lagun bakarrak ditudala...

Itzali egin da eguzkia hodei-tartean. Geroz eta goibelago jartzen ari da arratsaldea, eta honegatik ausaz, honi jarraitzeko gogoak joan zaizkit.

Oraintsu arte, hor ari zen korneta zorrotza notak zabaltzen. Orain, berriz, ez dantzut ezer dantzakorik. Amaitu bide-da eztaiondo zaratatsua...

Eta neroni ere idazgura suntsiturik, logale nago.

III

Euria oraindik ere!

Irakurtzen egon naiz goizean, eta pozik egon ere.

Bainan arratsaldean etxetik atera gabe berriz geratzea gauza gogorra iduritzen zait, eta kalera joatea erabaki dut.

Aterkia harturik, etxetik atera-eta «Zerubide»ra joan naiz.

Euripean oso eder-ugaria zelakoan, harantz abiatu naiz; eta sartu eta segituan, zuzen-zuzenean, «neure» txoko begikora joan naiz, hots, bestetango urmaelera berera.

Ez zen handik ezer entzuten, euri-tantak neronen guardasolan jotzen baizik.

Urmaelaren gainaldean euriaren onda-ingurutxoak eta iturri-xirriparenak elkarrekin nahasten ziren, eta ura irakiten ari zela zirudien.

Han gelditu naiz ni zutik, neure begiak iturrian jositak, iturrira begiratu gabe, neure buruarekin hitz-gabeko solasean.

Batzutan haize-bala samur hozkirri batek nire aurpegiaren larru hoztua musu hezeaz xahutu eta iratzartzen zuenean, bazter ezagugabeak begizatzen zituen ziplo nire bihotzak; bainan amets-atsegin berria nabaitu orduko, zorientasun-pitsak nire erraietakō erraiak berak sakon alaitu orduko, zoritxarreko haragiak loturik-edo lur bustiaren gainera etorri behar nuen berriz.

Horiek bihotz-zitzadak! Haien ondoan atseginik gozoena mingots hutsa da.

Pozik emango nuke guzia lipar diztiratsu horiek luza-

tzeagatik. Bere muinean ederraren tximist labur eta sarkor hauek senditu ez dituenak, ezin esan dezake txintik zorion-pozaz...

Zoragarri zegoen gaur «Zerubide». Astotzar galdubeteak bai, parke bustiaren bakardadeari bihotzez betesten eta ederresten ez dakitenak. Zorigaiztokoak hobe... edo gizajoak.

Bide txigorretan ibili naiz gero, zuhaitz handien artean, eta Debussy-ren «Les Jardins sous la pluie» bururatu zait. Hura bera zen. Zoriontsuak Ederraren munduan bizi daitezkeenak, Ederrarenaz beste kezkarik ez dutenak, Artean jaio eta hiltzeko aukera, edo ausardia nahikoa, dutenak.

Noizean behin, haize-bolarak zuhaztia inarrostean, ezin geldi nintekeen gorantz begiratu gabe. Nork ikusi du sekula arbolen higitzea baino higitze liluragarriagorik? Oskarbi denean hasperen da haien hotsa; goibelaldian, auhena. Neguko ekaitzean, berriz, mehatxu izugarria; udazkeneko arratsalde haizetasun, agur minbera.

Honelako gogoetan ari nintzelarik, zakur handi bat igarozen ondotik. Lehengo egunekoa ez ote?

Alde guzietara begiratu dut, eta... ber-bera. Neskaxa «Zerubide»tik nolatan zebilen ez nekien, eta orain ere ezin igarri. Halako eguraldi txarra izanagatik, handik zihoan hura, hor zintzoa lagun, bideska bustietan barrena; eguraldiaren txarraz kasorik batere egin gabe.

Haren ondotik igarotzean kezkatan ibili naiz, kezka farragarrian alegia: agurtu behar nuen? Edo-ta, ez dut pentsatzeko beta luzerik izan, eta «agur» esan diot ia ohartu gabe.

Lotsatuta gelditu da nonbait neska, urratsak arindu dituela bistan baitzegoen.

Zer egiten ote zuen berak? Piska bat kezkatu nau, egia esan. Polita iduritu zait, oso polita. Ez dakit nola den ere;

baina giro busti eta ilun hartan margo-lore bizia zen bera, eta gorri-zuri gozoa inoiz ez dut senditu gaur bezain garbi eta kilikagarri. Beldurtuta zebilelako beharbada, samurra izan zait txoil haren begirada, eta guztiz berria. Nik bezalako kezkabide eta katramilak al darabiltza ausaz «Zerubide»ko neska horrek? Zertarako haratzen da bestela horrenbestetan eta bakarrik? Tristerik eta huts-minez al dabil hura ere?

Neska handik lekukurik, joaten ikusi baitut, itsaso aldera abiatu naiz, talai aldera, eta orduantsu atertu du.

Gorritzen hasi dira urrutiko hodei berunak, eta han gelditu naiz, itsaso zabalari so, eguzkia osertzean itzali arte.

Bihar eguraldi ona, eiki.

— Hala bedi!

IV


«Zerubide»n egon naiz zai ez dakit zenbat orduz. Alferrik. «Bera» ikusteko gogoia nuen, bere irudi polita itzaltzen ari zitzaidalako.

Etxe aldera nentorren, bada, ikusteko itxaropena zeharo galdurik, eta bidean Xabin aurkitu dut. Alderatu egin natzaio. Azkenaldi honetan ez nuen ikusten, eta hizketan hasi gara gustora; eta horrela gindoazela, bigarren txiripa izan dut: «nire» neska zetorkigun.

Elkarrizketa eten dut ziplo, tximistak jota bezala, eta esan diot Xabini: —Adizak, Xabin. Ezagutzen al duk horitik datorren neska hori?

Baietz esan dit.

— Begi hutsa nintzen ni; arretarik gabe egin dut agurtza, tutik esateke.



NEKE AURREAN AIRRIB ETENGORRE

S. H. H. H. H.

Gogoz hasi natzaio begiraten. Eremuan ehun egunetan egondako ibiltariak ura edango zuen eran, edaten nuen nik haren aurpegi zoragarria. Uste nuen baino ederragoa da. Beitarteko zati guztiak aztertu ditut banaka segundu batetan, eta xehetasun itsusi bat ikusi dut: ez zaizkit haren hortzak gustatu. Nola gerta zitekeen hau? Ez dakit.

Lipar motz batez ikusi eta pentsatu ditut gauza horiek guztiak, eta gehiago ere bai, Miren-ek ezertaz konturatzeke izan ez duen artean.

Erruz gustatu zaizkit haren ezpain lodiskoteak; eta haren begi herabetiak batez ere. Hark nire agurrari erantzun orduko baneukan nik haren erretratu osoa eta hau guztia txoil aztertirik.

Hizketan hasita, kristalezko bere ahotsak urratu bezain laister, aterata nengoen ni neure baitatik. Nola ez dira harriak berak hari entzutean urtutzen? Nolatan ez ditu haren begirada otoitsuak harkaitzak berak beratzen?

Hamazazpi urte ditu. Gorputz lerdena, begi argiak, bolizko larru zuria.

Laguntzen hasi gatzazkio bere etxerako bidean, eta dena esan diot hamar minututan. Hitzontzi berritsu bihurtu nau pozak.

Xabin gizajoak esan edo egin duenaz, ez dakit ezer; bainan eskaratzera iritsi orduko ez zegoen gurekin.

Non sartzen den ez dakidala esan diot Miren'i; benetan zoragarria dela sinistatzeko, eta ezagutzeko gogoa nuela. Ezpainetan nuen bihotza.

Berehala iritsi da elkarri agurtzeko unea, eta noiz arte dugun elkar ikusiko galdetu diot, baina ez du garbi erantzun nahi izandu, zeharka-meharka baizik. Ez dakit bada berriz noiz ikusiko dugun.

Ez zirudien etxera joateko presa handia zuenik, eskaratzean gelditu baikara zenbait minutuz.

A, Miren maitea! Eta zein argitsua den gauik beltzena zu ikusi ondoren

Hura utzi dudanean, pozik hasi nintzakeen karrasika, maitasuna zein ederra den oihu egiten. Bainan, zertarako? Zer daki egarriaz, egarririk behinere sentitu ez duenak?

Maitasuna: hiztegiaren hitzik ederrena zara zu, bihotzaren elerik samurrena, buruaren eragilerik bortitzena. Nork asma dezake maitaleari agertzen zaion ederra?

Haren ahotsaren oihartzuna gal ez dadin, ez dut inorekin hitz egin nahi; ez dut ezer nahi neure bakartasunean amestu baizik. Munduko atsegin guztiak ezer ez zaizkit.

Nitaz kontura dadin, bere begiak nigan jos ditzan, nitaz ohar dadin, nola egin nezake nik...?

Horretaz aritu izan naiz lehen, eta ahalik azkarren gutun labur hau ematea erabaki dut:

«Miren

Zergatik?

Ez zaitut ezagutzen, eta guztiz ere ezaguna zatzaizkit.

Ez zaitut maite, baina zure zoriona nahi dut.

Zergatik?

Amets eragin dit zure begiruneak; eta malkoak ere agian isuri-eraziko dizkidazula pentsatzeak, dardar jartzen nau.

Zergatik zu, Miren?

Zergatik?»

Ez dakit noiz eman diezaiokedan, bainan erabakia daukat ematea.

Nola hartuko du nire hori? Noiz emango ote diot? Hau zalantz-asun minkorra!

Iluna izan da gaurko eguna. Jaso egin da eguzkia, eta goi urdina argitu. Baina zer dira eguzkiaren izpi meheak, egun osoan neure Miren ez badakusat?

Geldi bedi eguzkia irten aurretik, utz biezaio bere bi-

deari, eror bitez izarrak ortze baretik; eta zer niri hori guztia Miren-en begi argitsuak neure aurrean atsedengarri baditut?

Ai, nire eroegia!

Ez dut ikusi!! Zergatik ez du honek inoren bihotza erdiratzen?

Baina badantzut: «Joxeba, hire egoera ez duk bidezkoa. Eroa dirudik». Gizonaren xede bakarra bidez eta zentzuki bizitzekoa bada, eraman nazatela deabruek.

Zertarako nahi ditut nik arautasuna eta zentzua, orain arte lozorroa besterik eman ez badidate? Bere bidez bi-ziaren giharrea hausnartzeko gauza egiten banau, betor ordu onean erotasuna.

Hau aldaketa: orain arte gaua zetorrenean ez nuen zerkezkatu, eta oheratu bezain laister horditzen ninduen loak, eta bere ilunbean iraungitzen zen nire bihotzaren argia.

Orain, ostera, oheratu, eta berantetsita narabilte mila asmaziok, eta mila kezkek naragite, bake zena bapatean ekaitz izugarri eginez. A, Miren; bihar ikus bazintzat, hitz egin baneza zurekin, alai banintza zure ahotsak... Zerori zara nire gogorazio bakarra, zuk zerorrek betetzen duzu nire izate osoa, eta edonolako kezka iluntzen. Zerurik goreneraino altxatzen nauzu batzuetan, eta infernurik izugarrieneraino egozten besteetan. Egun eta ilun zatzazkit batera.

Eta zein txiro eta urri den nire asmamena! Aldizka, zure irudi amesgarriak ernatzen du nire barne-muina; baina une batean sekulako argitasuna zabaldu ondoren, leheneko neure ilunbe itora bihurtzen naiz, lehen baino itsu eta itunago.

Jauna! Eta zein kaskarrak diren nire ahalmen guztiak behar dudanarentzat!

Gaez amets egin ahal baneza. Ikusmenak eta itzar-

men guztiak, zer egiten dute egunez eragotzi besterik?

Lo-egin nahi dut, eta nire loaldia bere irudi oroigarriak edertuko balu...

Baina, nolakoa du aurpegia Miren-ek? Gogoratzen saiatzen naiz, eta bere aurpegiaz zehatz oroitzen ez naizela ohartzen naiz saiatze berean. Gezurra dirudi: nire bitza mamitu eta piztu duen oroitzapen horrek, ez du nigan, izan ere, isla aratzik

Gau minean behintzat amets egin ahal baneza... Orduan, zentzumenak eragozpenik ez dagienean, ditziratsu ikusten du animak, gorputza itzarrik doi-doi begizta dezakeena.

Itzaliko al dit aurki lo sakonak kordeareen argi ahula!

V

Beste egun bat joan zait, eta zer ikusi dut gau beltza baizik? Atzo oraindik zure ahotsa entzun nezakeen oroimenean, erdipurdi bazen ere, eta zure begirune biguingarria argi samar neukan neure begietan betirako iltzatua.

Miren ez ikusteagatik tankera horretan gogoetan nabilela, haren kalerantz abiatu naiz. Bidez aldatzea zer zen ez nekien gaurdaino; eta haren eskaratze aurretik igaro ahal izateko, zuzenenan joan beharrean, zeharka joan naitzenezan, maiteminduta nagoela ikusi dut garbiro.

Bortitzago egin zaizkit bihotz artegaren taupadak, eta... Ez dakit nola esango. Lumarik trebeena baldar eta kamuts hutsa izango litzateke, egiazki, erdibitu nauen ikusketa azaltzerakoan.

Ikusketa labur-laburra izan da: soto baten aurretik pasatzeak diraukeena; luzeago ez. Oinez nindoan ni, eta

zastada heriotsu gisakoa izan da. Eskaratzean zegoen Miren, zoragarria, lehengo egunean baino ere ederragoa, paretaren kontra, gris jantzia eta zapi gorri-gorri bat lepoan zeramala.

Nork adieraz dezake nire odola arindu eta nahas erazi duen zauskada latza? Lauorri bezala gelditu naiz. Egia esan, ez dut ulertzen: zergatik ez zen, bada, beste gizonekin ibiliko?

Han zegoen nire Miren maite eta maitagarria. Nor ote da zoriak horren bereziki hornitzen duen gazte hura?

Senargairik ote du Miren-ek. Edo-ta ere kenduko diodala zin dagit hemen, hartarako zeru-lurra oinperatu eta hilerazi behar baditut ere.

Zenbat iraun du nire heriozko ikusteak? Minutu baten ehunena bai? Hala eta guztiz ere, betikotasuna ez zait aski izango nire ikuste erdiragarri hau nire burutik kenezazteko; ez eta halako hamaika gehiago ere.

Suak marraztu du latz ildoan, eta ez du bihotzeko suak baizik ezabatuko.

Nork igar zezakeen hau?

Dudaren suleze beltzera aurtiki nau zorigaitzoko nire ikuserak. Jan egingo dizkit orain erraiak kez karen har ankerrak.

VI

Bederatzi egun ziren gaur Miren ikusten ez nuela. Denbora pasa ala hutsunea handitu, eta bizitzeko gogoia edukitzeko tokirik gabe gelditzen ari nintzen, tristuraren harra zula eta zula zebilen-eta.

Idatzitako eskutitza, neurekin neraman beti edozein

unetan Miren-i eman ahal izateko; eta gaur, azkeneko, ikusteko zoriona izan dudanean, dardaratu egin zait barrunbe osoa pozez.

Berandu zen alabaina, ez hari laguntzeko beta besterik ez dut izan. Nolako gogoz begiratu diodan nik dakit, eta ez bestek. Eta ni Homero bera banintz, sentitzen nuenaren laurdena ere ez nioke besteri sendiaraziko. Hura poza nirea! Segundu zitzaizkidan minutuak; eta mendeak ere, nik uste, berdintsu. Betikotasunak bete zezakeen bakarrik une hartako nire egarri lehor idor amorratua.

Laisterregi iritsi gara haren eskaratzera. Baina bazen joateko garaia, eta neure patrikatik aterarik, eskutitza hartu eta eman egin diot.

Ez dit jaso nahi izan.

Ez nuen nik jokaera hau espero; eta emakumeekin gehienetan gertatzen den bezala, hura geratu da garaile; eta ni, gauzak pentsatuta zituena, asaldatua eta oreka galdua.

Ez du nire eskutitza hartu nahi izan. Gertaera horretara biltzen dira bederatzi egunetako kezkek eta larriminak.

Urduri nago, guztiz urduri. Nora joan da lehengo nire pakea?

VII

Bart gogor egin nion Mireni; oso gogor. Bihotzak hitze-
gin zion, eta nire bizitza osoan atzo bezain urduri lo egin
dudanik ez dut uste; eta bost orduz bakarrik.

Ez omen da gizon «azkarraren» bertutea beti atzera-ka eta damutan ibiltzea; eta hala nabil ni. Bainan nork esan dezake egiazki ezertaz ere damurik ez duela? Antuste hutsa litzateke gerozko damurik gabe jokatu nahi izatea; eta hala esanagatik ere, inor ez dabil tankera horretan. Nork jokatu du inoiz denetan zentzuz, eta adimentu hutsaren arauera? Egizale izan behar da besterik ez gizonaren flakia aitortzeko. Eta hauetako bat nauzu ni.

Zer gerta daiteke orain? Pentsatu izan banu, ordea...

Baina... pentsatu egin nuen gainera; hau gertatuko zela ohartu nintzen, ziur dakit. Hizketa zakarregi iruditu zitzaidan atzokoa punto batean; alabaina, ni nerau hasi nintzen berehala aitzekiak eta sasi-konponketak asmatzen, eta zer beldurtzerik ez zegoela sinistu nuen azkenik. Banekusen nik hau guztia, eta etorriko zitzaizkidan kezka eta artegatasunak; bainan ez nion neure adimentuari behar hainbat jaramonik egin, eta gero gerokoak.

Ez naiz neure buruaren jabe, eta Miren bera da leize izugarri honetara abiarazi nauena. Gutxiago irauten du, alegia, atseginak bere oroitzapenak baino. Berebat, lehena go ezabatuko da nigan Miren-ekiko samurtasuna, bere irudia baino. Eta zer dagiket nik iduri hitsa iraungi eta gero?

Deus ere!

Atzo, berriz, maitekor agertu izan banintzaio, lasai egongo nintzakeen orain, asaldu eta ikararik gabe.

Honela, ostera...

Bainan zerbaitek esaten dit isilik: «Lasaitasunean noiz izan zara gizon? Beti damutu zaizu bezperako sasi-pakea. Lasai irauteko jaio al zara?»

Eta zalantzaren harrak narabilelarik ere, lozorro lodia aienatzen dut.

VIII

Joan egin da Miren. Izetara. Uda igarotzera.
Bera zen nire bizia. Hots: hildakotzat dut neure burua.

IX

Nola gertatu den ez dakit, baina antzinako neure paperak eta eskutitzak ikusten ari nintzela, Gipuzkoa'ko mapa bat aurkitu dut. Mapa eskuetan harturik begiratzen hasi naiz eta «Izeta» izena ikusi dudanean, zirrara batek astindu dit barrunbea: «Izeta»! Izeta! Izeta!... Zugan bizi da Miren. Egunero ikus dezakezu, zoriontsu horrek. Ez ditut zure auzo eta inguruak ezagutzen; bainan zein politik izan behar...»

Astiro, samurki, maitekiro ere miatu ditut mapako zirrimarrak eta xehetasun guztiak. Mapa hotz batek halako ugaritasuna gorde lezakeenik ezin pentsa nezakeen gaur baino lehenago, eta maitasuna senditu ez duenak ezin konpreni dezake.

Edertasuna bide-zerion Izeta izenari. Eztitsu zitzaidan haren doinua, eta atsegin hutsa beraren letrak banaka irakurtzea...

X

Atzokoa izan da zalantzarik gabe nire bizitzaren egunik gogoangarriena; eta ez zait, alegia erraz ahaztuko. Ez erraz eta ez nekez ere.

Egun berean inoiz ez bezain zoriontsu, eta inoiz ez bezain zorigaitzoko izango nintzela nork esan zezakeen?

Itsazpi-rako bidean eseri nintzen eguerdian aulki batetan. Oskarbi zegoen, eta aurrean itsaso barea ikusten nuen.

Ordu biak aldean, Altzurain-go edertasuna poliki-poliki ustiatzen ari nintzelarik, Miren agertu da ezker aldetik. Sekulako zauskada eman dit bihotzak.

Hura ustekabea! Itzaltzen ari zitzaidan haren iduria; eta nire barrunbean gordetzen zen baino ederrago iruditu zitzaidan.

Jaiki, eta harengana ondoraturik, agurtu egin nuen.

Ez dakit zer esan nion. Polit zegoen, adoragarri hobe; eta hori eta gehiago esan nion bere sotorako bide laburrean.

Pozaren pozez etxera nintzen. Miren Altzurain'en!

Arratsaldean, Zerubide-ra joan nintzen. Nola ez? Baina alferrik joan ere bai

Hiru orduz egon naiz han, irakurtzen nuelakoa egiten (ate-aldera adi bainengoen, eta ez bestera) eta itxaropena guztiz galdu dudanean parketik joan naiz, egunero bezala haren etxetik pasatzen.

Alferrik dena.

Etsita nengoen, bada, bart etxerakoan.

Etxean ere egon ezinik kalera aldegin nuen berriz, txoxolokeria handia baitzitzaidan egiazki Miren berrikusteko beharbada egun bat bakarra izan eta etxean xahutzea. Irtenda laister Joanes eta Peru neure lagunak aurkitu, eta delako «Cannes Club» horretarantz abiatu gara oinez.

Baita damutu ere.

Sartzeaz ginela, Alzurain bestetan gelditu naiz lipar batez: «Non ote dago Miren? Harekin egoteagatik eman-go nukeena».

Sartu gara eta... Miren dantzan.

Argi epela zegoen pistan, izkina batetik pantaila gorrixka batek zabaldua. Haren argitasunean Miren'en isla maitatua berezi dut. Lehengo egunekoa bera iruditu zait mutila... Zein zurrut mingotsa!

Lehenbizi nire begiratzeaz ez da Miren konturatu. Gero bai. Bainan berdin jarraitu da. Hura herio-beharra nirea!

Eseri egin gara lagunak eta ni. Zertsu ari nintzen ez nekien ordurako. Pikoan harrapatu naute hauek milatan. Ni lotsatuta nengoen; bainan edozein lotsa baino sakonago eta bortitzagoa zen nire larrimina: nire bihotza inarrosi duen bortitzena.

Miren'engan josi ditut begiak, ausarki, etsita dagoenaren eran, txorabio betean zirkinik egin gabe, beragandik zipitzik aldatzeke. Miren!

Ordukoa baino urrupa mingarriago eta saminago dagoenik ez dut uste.

Berehala joan dira «Cannes»tik. Biak batera!

Irtzen dira, eta minutu batzutan geratu naiz ni «Cannes», nire tristura nabarmen zedin nahi ez nuen-eta.

Bainan handik atera, eta «Lambretta» batean irtetzeko zorian zeudela ikusi dut. Ez-ikusia egin diet, bainan alferrik. Nire agurraren bila zebilen Miren, ez dakit zertarako. Eta nik, estu-estu, bihotza guztiz erdiratuta, «agur» motz

bat esan diot, zeharka begiraturik, eta ahal nuen eta zarkarrenik. Erdi itzal hartan haren begirunea josi zait neurean, tiro bat ninian bezala.

Orain bertan banekus bezain argiro gogoratzen zait guztia; eta bizitza osoan hauxe agituko zaidala uste dut.

Etxera joan eta afaldu ez. Ezin. Segituan oheratu nintzen, batera trikatu gabe; eta orobat egingo nuen ehortzekotan, ehortzi egin behar banu orduan. Malkorik ez, ordea.

Gau osoa joan zait iraulka, hasperenez hasperen, eta lotan hasi ezinean. Haren izena esan dut burukoaren oihalean miloi bat aldiz. Hauxe zen kontsolatzen ninduen gauza bakarra. «Miren... Miren!! Beste bat maite duzu... Zer dagiket nik orain zu gabe? Maite zaitut, Miren, maite zaitut. Nola ez naiz gaurdaino konturatu?»

Gaueko ordu biak arte-edo piska bat lo egin nuen agian. Gero ezer ez, zin egiten dut, ezta minutu batez ere. Eta bai gau minututsua atzokoa!

Orain irribera dago goiza; eta eguraldi bikaina dator. Zertarako? Norentzako bikaina?

Hasi besterik ez du egin egunak, eta leher egina nago.

Egun luzea datorkit. Ez bekit, arren, gaua bezain azkengabe izan.

XI

Ezin bizi naiteke honela; ezin egoera honi gehiago eutsi.

Adiuntza txarra da oraingoa, noski; bainan Miren'i idaztea erabaki dut. Ai, neure berotasuna paperera bihur ahal baneza...

Behin eta berriz zuzendu dut idatzitakoa. Hain zuzen

ere, hori izan da egun hauetako nire kezka nagusia. Labur izango naiz irakur dezan. Honatx eskutitza:

«Miren:

Ikusketa diztiratsu, doilor eta ikaragarria izan da niretzat «Cannes»en gertatutakoa.

Ustekagean zu zoriontsu han ikusteak nire bihotzari eman zion zastada, hain izan zen bortitza, haseran sinistu ere nahi ez nuela nire begiak, zugaran josita, ikusi zutena.

Tristura sakona betetzen hasi zitzaidan piskanaka, eta geroz eta handiagoa.

Gero, gaua, luzea izan zen, txit luzea, eta arrunt asal-dutsua: haren erakorik bat ere ez neure biziera osoan.

Maite zaitut, Miren. Ez dut ulertzen, baina mila azkonek egingo ez zuteken eran urratu didazu bihotza.

Hobe nukkeen sekula ezagutu ez bazintut!»

Bihotzeraino iritsiko balitzaio hau. Nitzaz urrikalduko balitz behinik behin.

Bainan «bestea» maite badu, aztarnarik utzi gabe pasako da berarengandik nire hori, eta daridan berotasunak ukitu ere ez du egingo.

Urrikarria ni, alegia, hau gertatzera.

Ez dezadan gehiago pentsa; eskutitza botatzera noa, eta gero gerokoak.«Kontzientziak koldar bihurtzen gaitu gu guztiok»... Utz egiogun aztertzeari.

XII

Neure etxeko leihoan nago. Aurreko astigarrari so, ez dakusat halaz ere astigarrik. Aurpegia eskuen gainean ezarria matrailetaraino sartzen zaizkit haize-bolak behatzen arteko zirrikituetatik, eta berotutako musu-larrua kresal

usainez hezitzen.

Hau eguraldia! Ni ez besteak oro alai daude. Arratsalde argia gaurko hau, eta joan-etorri bizia kalean. Eten gabe pasatzen dira nire leihoarean azpitik automobilak eta motoak, «scooterrak» batez ere, mila tokitarantz abiaturik egunaren argitasunaz landan gozatzerara.

Udako arratsalde oparoa...

Sakonki hartu dut arnasa, eta bai gogoz: «Three Coins» jotzean hasi dira irratiz, eta automobiletako txarantbilarekin nahastuta datorkit eresia. Ez niri esan igarokorra denik. Baliteke. Bainan, nire honetan, edozein sinfonik adina hunkitzen nau hark.

Han, urruti samar, zuhaitz artetik dakusat Itzazpi'ko hondartza zatitxo bat. Urrunago, lotan dautzaz uraren gainean margo guztietako txalupak. Bitsik ez bazterretan.

Arratsaldearen betea!

Nire barrunbea, berriz, hutsa dago. Edo zehatzago adierazteko, tristuraz betea. Eta zuregana doakit, Miren, behin eta berriz, nire oroimena.

Zergatik zagozkit lurrez eta bihotzez zauden bezain urruti?

Egunak joan, eta nire eskutitza zein tankeratan hartu duzun ezin jakin. Jaso ere duzunik ez dakit.

Zure azken begiradaz beste oroitzapenik ez dut, bestearekin «Cannes»koa ez bada. Ezin bestea maite dezakezu. Ezin, Jauna!

XIII

Zenbat eta zenbat denbora ez den igaro hemen azkenekoz idatzi nuen egun zorigaiztoko haietatik... Zenbat

egun huts... Zenbat barne-atsekabe... Neuk ez bestek jakin hori.

Abuztuaren beroak eta itsaso bareak pasa dira eta zein poliki, alegia.

Orain Irailean gaude. Egun argitsuak hauek, motzak, eguzki eta zero aratzekoak; ametsezko arratsekoak... Lehenago dator gaua, eta freskoa ohi dabil ilunabarretan.

Iraila: hiletan zoragarriena.

Udatiarrak joaten hasi dira, freskoa dela bide eta behera itzultzen ari da Altzurain. Eta ni pozik.

Uda pasa delako pozik. Sinets al daiteke honelakorik? Uda bukatzen ari delako nago pozik.

Bainan, aurrera segi baino lehenago, zer egin ote dut nik hainbeste denboraz? Nik neuk ez dakit. Lagunekin ibili, bakarrik ibili (lagunekin baino askoz usuago) eta lanak asmatu. Asmatu bai. Jo eta ke eman natzaio irakurtzeari, eta ez dut hargatik damurik; zeren honi esker, Miren'ez aski ahaztu naizen bi hilabetetako tarte luze honetan.

Gaur arratsaldean, beste askotan bezala, besapean liburu bat hartu eta kalera joan. Itzazpi atzeko aulki batetan egon naiz eserita, irakurri eta irakurri eta ia hirirantz abiatu bidean nentorrelarik, Miren zetorren nire aurretik! Bakarrik, oso liraina, pitin bat ahaztutako nire ametsetan bezain polita.

Zausk egin dit bihotzak, alegia; bainan uste ez nezakeen eran, hots, apalago, bestetango sua itzali bailitzaidan:

— Ongi etorria, Miren! Noiztanik ez zintudan zoritxarrez ikusten!

Hori esan eta betbetan konturatu naiz; eskutitza... aspaldiko nire eskutitza! Hura lotsatu beharra. Oreka galtzeko zorian egondu naiz ahalkez eta damu sentitu dut bidaltzeagatik.

Nola edo hala, inoiz baino nirezkoago jokatu dut gaur,

eta harrituta nago, ez bainuen inola honelakorik itxaroten. Berriz abiatu naiz Itzaspi'rantz hari laguntzeko, eta hizketa erraza aurkitu ere bai. Honetaz era hartaz hitzegin dugu! udaldiari buruz, Izeta bera egondakoaz, Miren'ez beraz, eta neure buruaz; hots: guziaz. Eta ondo orekan, estura zentzugaberik gabe.

Itzaspi-n ez zegoen inor, betiko umeak baizik, hondar-metak eraikiketan.

Bero egin digu gaur, hodei zurizka batzu ari ziren zeru urdina piskanaka estaltzen. Eta, bada ezpada ere, Altzurain-antz bihurtzera erabaki dugu.

Erabakia hartu bezain laister, ortots baten orroa urrutikoak urratu du haizetegia, eta arindu egin du gure ibilera.

Bi bat kilometro dira Itzaspi'tik Altzurain erdiraino, eta indriskak harrapatu gaitu bidean. Teilatu baten hegan estalita, han geratu gara biok eskaratze baten ondoan, noiz atertuko zai.

Hango geraldiaz ez naiz erraz ahaztuko. Zergatik? Ezergatik ere ez, eta guztiagatik, batera. Motzegi izan zait erauntsia, luze samarra izan arren; eta urri oinaztarriak, askotxo izanda ere. Emozioa erantsi diote hauek egonari.

Atertu du azkeneko, eta zoriontsu nintzen ni lurrari zerion lurrina arnastuz. Mila atson idaroki dizkio hezeta-sunak guztiari, eta margo harrigarriak argitu etxeak eta kaleak. Hori eta more jarri da zerua, eta arratseko soineko gelgarriz jantzi hiria.

Berehala piztu dira argiak, eta zoratzekoa zen ikuskaria, gandua argien atzetik lasai asko altxatzen zela.

Atertutakoan, bada, Miren'en etxerantz irten gara; bainan zuzen joan beharren bira batzu eman ditugu ondotik. Eta eskaratzera iritsita ere, presarik ez du izan igotzeko. Nola zitekeen hau?

«Besteaz» galdetzeko zori-zorian ibili naiz portalean

geundela; bainan ez dut egin. Eta poztutzen naiz asko hala jokatzear. Zertarako eta galdetzea? Nahiago dut kutsu goxo eta badezpadako hau egia latza baino:

Amets egin dudala deritzat orain. Nirekin benetan egon al da?

Denak zaizkit galderak. Ai, nire errukarria! Zalantzan hasia naiz berriro.

Ez dut ulertzen: inoiz baino hotzago naiz. Horren denbora luzea ikusi gabe pasa eta gero, jan egin behar nuela pentsa liteke, eta deus ez. Zer gertatu da nire bihotzean?

Miren! jaio zara nigan berriz. Izango ez al da lehen bezain ordu txarrean? Eta egia esan, azaltzen jakin ez arren, zerbait aldatu dela derizkiot.

Zer gertatzen da zugar, Miren?

XIV

Ez naiz hondaretara joan. Eguraldi hozkirri eta kaskarra zegoela-eta, Itzaspira beharrean, egiteko batzu egitera joan naiz.

Halako batez, eta beste gauzatan burua nuela, Miren topatu dut. Berak bukatu behar zituen mandatu batzu egitera lagundu diot, eta gero, eginkizunak eginik, harekin gelditu naiz.

Gaur ere, ez zuen etxera itzultzeko gogorik, eta bazkal orduraino beta nahiko genuela-ta, Txinartza'ko aldan gora igo gara biok, nora gindoazen ez genekiela.

Hura harritzekoa! Txinartza'tik aurrera, Munoa'raino iritsi gara. Hango harrizko aulki batetan eseri eta hizketan aritu gara patxaran. Zeruan ni.

Munoa'tik honantz gentozela, arratsaldeko kontua age-

ri da, eta ni ohartu orduko, eraman dit Miren'ek ni ausartzeko, eta eskaini zaidan bidea ustiatu nahian, galdetu diot:

— Bakarrik bagaude biok, zergatik ez goaz arratsaldean elkarrekin, aipatu duzun «Marty» filma ikustera? Neuk ere ez dut ikusi, eta zuk hainbat gogo dut joateko, oso ona omen da-ta.

Zenbat-eta gehiago neure konbita honetaz pentsatu, eta hainbat-eta gutxiago ulertu haren eta neure bion joakaera. Ausartzeagatik, nirea; ez ukatzeagatik Miren'ena. Horretaz, gaurko ezer ez dut konprenitzen, eta burura behin eta berriz datorkidan azalpidea ez dut hemen aipatu ere nahi. Ez!!! Ezin daiteke.

Hura zoriona. Bainan beranduegi zitzaidan ordua. Lau ordu luze oraindik: hura epe azkengabea...

Bazkaltzen hasi eta guztiz barreiatuta nengoen eta guztiz jangar. Ez dut jan nahi izan. Zertarako jan? Ez zen jatekoa behar nuena, zahartzea baizik. Hain zuzen, lau ordu zahartu erabat.

Zer egin behar nuen denbora aurrera zedin?

Kalera joan naiz, urduri nintzelako lasai ibiltzen, eta inoiz ez zait ahaztuko Sorrarain lehenbizi, eta Kalparsoro gero, ikusi ditudala.

Zugaztieta'ra abiatu naiz falta zen denbora nola igaroko. Itsaso txikia zegoen, eta kresalaren usai sarkorra erruz. Biziro hartu dut hatsa, eta uhinak hondartzan lehertzen ikusten egondu naiz asti batez. Gero, seiak hamar gutxi zirela, Miren'en etxera jo dut.

Oso ederra etorri zait bera.

Zinera joan, eta bai pozik Miren'ekin ni... Egia esan, ez diot, agian, dagokion atarramendua atera «Marty» delakoari, eta esan zidaten baino gauza motzagoa izan zait. Gainera zer axola niri filma, eskubitara begiratu eta hai-bestetan amets agindako aurpegia ilunbetan ikus baneza-

keen? Erdizka nekusen, islatan, eta Jainkoak daki nolako erakarmena zuten bere begiek nigandik hain hurbil ikusita. Oso nire aldera jarri da: lotsa-giroa ematen dit aitor-tzeak, baina nire besaburuaren gainean zuen burua ozta-ozta.

Batzutan harrapatu nau noski xeletan iluntasun hartan hari so; bainan ez ikusia egin du, eta begiratzen utzi nau. Zer ote da hau guztia?

Gero, zinetik irtenik, itsasoaren aldera joan gara, poliki-poliki, bolada freskuez gozatzeraz, eta etxera azkenik.

Nola asma nezakeen, bada, gero gertaturikoa?

«Bihar arte» esan dit agurtzerakoan, eta zastada latza eman dit bere erantzunak:

— Ez, Joxeba. Damu dut, bainan ezin.

— Kanpora noa sei egunetarako —ekin dio Miren'ek—
Ordurarte, bada.

Zauritu egin dit bihotza bere berriak.

Bainan hel nakion alde onari.

Zoriontsu izan naiz gaur, Miren'ekin!!! Sinets al dezaket...?

Alferrik da, guztiz ere: bere azken tankadagatik-edo ez nago poz-jario. Bainan ez dezadan biraurik bota...

Badoa berriz: hona korapiloa. Noiz izango dut neurekin eta neuretzat, egun guztietarako maitagarri, ordu guztietako zorion-iturritzat?

Eta zer naiz ni munduan zu gabe? Umezurtza!

XV

Neure aurre-aurrean, belar-izpi segaila dakusat, urduri antza, haizetxoak eraginik zutik geldituz ezinean. Nori

egiten dio itzal-agurtza, horrenbestetan makurtuz?

«Bolueta'»ko belardi batetan etzanda nago. Txirrin-
duan etorri naiz oraintsu: aisa egiten da horrela lau kilo-
metrotako bidea.

Zoragarria da bazter hau: baketsu eta irribera. Baserri
zaharrak mendietan, bide zidorak, horitutako artalorak,
muino gorriskak, dena zait atsegin. Itzai sendor batek
agurtu nau arestian, eta «Aida idi»ka galdu da haren
ahotsa, aldapan gora gurdi batekin zihoalarik.

«Ezkai» errekatxoa daukat aurrean, belardietan ba-
rrena doana; eta tente dirau oraindik bere gaineko harrizko
zubitxo zaharrak.

Sarri etorri naiz hona neure tristuraz kontsolatzera, eta
hau bezalako kontsolabiderik ez dago, ene gardiz.

Noiz hartuko ditu Miren-ek nire goraintziak? Maite
haren laguna ikusi dut lehen, eta Izeta'ra zihoala esan dit,
Goraintzi niketz emateko eskatu diot berehala eta zorian-
bolada batek xahutu nau argitasunez. Miren'ekin geroxea-
go hitz egingo zuen batekin nengoen! Guztiz hunkitu nau
gertaera xume honek.

Isilik hor, haizean, batera eta bestera dabil kulunka
nire belar izpi mehea. Xamur, etenerraz, lerdan...

Nire bihotza dirudi.

XVI

Kepa'rekin egon naiz.

Baxoerdi ugaria edan dugu elkarrekin.

— Ahaztu egin behar, Kepa —esan diot nik zirika
nahian.

— Zer ahaztu ba al daukak hik, ala?

— Bai, jauna... eta asko gainera, gauza bakarra delarik ere.

Damu izan dut gero.

— Ezagutzen duk: Miren.

«Zer ikusi duk harengan?» Edo, geroxeago galdetu didana: «Zer da gustatzen zaikana?» Esango bailuan: «zein zati?»

Eta «haren begiak», esaterako, erantzun dezaketen horiek, ez dakite tutik maitasunaz. Asko direla halakoak? Baliteke. Bainan ezertxo ere ez dakite honetaz. Zeren, nola jakin daiteke zergatik maite den? Dena da berarengan argi eta atsegin, ala maitasunik ez.

«Zer dakusak, Joxeba?» Belarrian dantzut oraindik lelo zentzugabea. Ez dago Miren'engan ezer «ikustekorik». Ikusi, ikusi... Senditu egiten da behingoz, erabat, gorputzean eta animan, izate osoaz, bereziki laket den «lekurik» gabe. Senek dute sena-tokia. Animari dagokio, ordea, sendimendua, eta ez dezake berez tokitzerik.

Zertarako esan behar nizkion nik zio hauek guztiak? Bi mundutan geunden.

Bestelako adikizuna dute harentzat eta niretzat hitzek. Ez, alegia, sarri gertatu ohi den moduan, arrazoiari buruz, esanahiak desberdin zaizkigulako; biziari buruzko gorabeheragatik baizik.

«Maitetasun» hitzak beste kontzetu bat adirazten dio beharbada hari; bainan honetaz gainera, eta hemen dago koska, beste baliogo bat du hitzak harentzat.

Nola ulertuko litzateke bestela istoria? Gertaera berberak jazo dira batentzako eta bestearentzako. Nola konpreni daiteke, bada, batak batera jotzea, eta besteak guztiz bestera. Batak zehatz bati garrantzirik ematen ez diolako, eta guztizkoa besteak. Zergatik? Guk geuk ez dakigu hau.

Orobat gertatzen da maitasunean. Zer ikusten du Ur-

liak neska horrengan, Sandiak ez dakusana? Ezer ez, noski. Begidunak dira bata eta bestea. Batek ostera, ikusten duen horri kanorerik erasten ez badio, bestea bai.

Baliogoa: erraz aipatzen den berba.

Eta ez dugu jardun. Zertarako? Eztabaidetatik ez da sekula argirik ateratzen. Bi aldeek darabiltzate, arrazoia, pentsamena, eta hari datxezkio zioak eta probakariak. Nola bada, egia bat izanik, egia horretara ez iristea? Matematiketan ez bada, arrazoizko eztabaidarik ez dagoelako. Baliogo-eztabaidak ez daki ezer gizonaz. Norabait goaz guztiak, beti zerbati probatzera; hots, gehiago darabilkigu bihotza, burua baino.

Gainera arrazoiak jokatuagatik ere, gutxi proba daiteke mundu honetan. Zailegiak dira gauzak. Gehiago ere esan genezake: gauza bat probatu-ala, aurkakoa ere egizta daitekeela. Eta hau izakien izanagatik. Hortik dator, hain zuzen, gizadiaren nahasketa gorria, behin ere urratuko ez den nahasketa... «Ikusiz ez dakusagulako».

Nahi duenari heltzen dio bakoitzak.

Zer esan behar nion nik bada Kepa'ri? Ezer ez. Maitagarri dela Miren probatu behar al nion agian? Horrelakorik proba al nezake? Parregiteko gogoak ematen didate «egia probatzen» dituztenek. Gizajook!

Miren maite dut, eta kito. Ez dakusat beste ziorik: nahi dudalako maite dut. (Nahi dudalako, otean? Ezta honengatik ere).

Ez dakit ezer.

Eta neronek ez badakit, zer esan behar nion nik Kepa'ri, ni baiets nintzan?

Ezer ez, noski.

Bi mundutan geunden: alferrik izango zitzakeen nire ahalegina:

Honengatik, mundua mundu dadin artean, parregarri

izango dira maitale-bikoteak. Dударik ez.

Eta sendabiderik ere ez.

XVII

Burutapen egokia izan dut gaur betiko kontuari buruz: «Haren» etxera bezuza bat bidaltzekoa. Berehala oldartu zaizkit zalantzak: garai hobea aurkitu behar zela, agian onetara hartuko ez zuela... Eten egin dut azterketa, eta egitea erabaki.

Amorru ematen zidan guztiz ere ene asmoaren alde batego: bere arrontasuna. Zergatik jokatu behar nuen nik orain arteraino maitale eta sasi-maitale guztiek bezalaxe? Ziur dakit nik han eta hemen ikusten diren bikote gehienek maitasuna zer den azaletik baino ez dakitela; eskierki dakit nik maite-dardara zer den ezagutzen ez dutena. Ikusi besterik ez da behar esaten dudan honetaz konturatzeko: gorputzaren lera hutsa da haiengan nagusi.

Nigan, ordea, diferente izanagatik ere, berdintsu jokatu behar al nuen beti, ezinbestez? Betekizun tristea nirea baiezkoan. Nola adieraz niezaioke nik ezetz? Bizizko kezka dela hau niretzat, guztiz bestelakoa dela barne-muina inarosten didan hilbehar hau...

Eskuikusi bat eginez, ordea, berrizkorik ez nire jokararen. Betikoa egingo nuen...

Eta «maite zaitut» esaten badiot ere, zer esaten dut berririk? Zerk dager esanaren bizizkotasuna? Zer dago hartan berezirik? Kantu zantar guztietan, herri guztietan, ohar-kabezko gezurra gehienetan, belaunik belaun esan den berbera birresaten dut nik. Niretzat neronen bizitza bera denak, gauzarik arrontenaren itxura hartu behar. Nazka!

Benetakoa da, zinez, Miren'ekiko nire maitasuna. Bainan kanpotik ikusita...

Atzera jotzeko zorian egondu naiz une batez.

Dendaz denda hasi naiz bilatzen. Gutxi zitzaizkidan apainkailu eta eskaingarrri guztiak; hotzak batez ere: gaizki izango ziren haiek nire bihotzaren mezulari zintzo.

Erregali bat hautatzea horren zaila zenik ez nuen inoiz pentsatu. Orduak igaro zaizkit kalez kale, eta ezpai gorrian.

Aukeratu egin dut azkenik, kutxatila batetan sartu, eta azalean Miren'en zuzenbidea jarri ondoren, postaz bidali diot. Barrenean hau bakarrik tarjetan «Bihotzez-Joxeba».

Bihar edo etzi jasoko du.

Trankilago nago orain, eta bezuza aurki jasoko delako pozez. Gustatuko al zaio!

Berarekin egon naizela dirudi.

XVIII

Bihar etorriko da Miren: ezin hau burutik bazter. Heldu da bihar; udatea bukatuta, ez bestetan gisan.

Zorionaren atarian nago bada; «eztaiaren bezperan». Zer pozgarriagorik? Irrikatsu itxaroten nuen eguna iritsi da. Eta behar zen bezalakoxea: argitsu, bizitasuna dariola.

Han goian hodei mehe bat. Ibili ba al dabil? Ez dirudi; bainan begira nagokio asti luzetxo batez, eta badabil. Poliki-poliki, munduaren kezkabideek oro batere kezkatu ez bailuketean. «Hodei miragarria: ikus al daiteke hortik nire Miren'en begirunea?

Bihar heldu.

Zerubide'ko iturritik pasa naiz. Noiz ikusiko dut han «Pintto» lagun, lehenengo egun harrigarri hartan ikusi

nuen bezala? «Pintto»k berak ere, Izeta'ko landetxean, dagoela udaldirako eta, nik baino suerte hobea du.

Egun hartako aulki berean eseri, eta iturriari begira gelditu naiz. Ahaleginak egiten nituen oroimenaz dena berrikusteko. Nolatan gertatu zen hura? Nire bizitza zeharo aldatuko zuena zuputz ezagutu nuen, txiripaz topatu neure biziari guna emango ziona. Nola? Eta, ezagutu ez banu? Ni hara beharrean, beste edozein tokitara joan izan banintz? Edo-eta, Miren'ek beste egitekoren bat egin beharragatik, edonora joan izan balitz?

Bihotzikara. Ustekabez ezagutu dugu elkar. Nolako tristura eman didan gogoeta honek.

Gaur ez nintzen, ordea, tristatzeko; eta utzi egin diet halako gogorazio guztiei. Eta Miren'en itzulera erakarri dut burura.

Berdintsu zirauen denak: eten gabe ari zen txirria, eten gabe bilakatzen ziren zuhaitzen irudiak, eten gabe igaritzen hosto eroriak uraren gainean. Soinutzat txorrotxioak, txirriaren xirri-xirri jaraitua, eta urrutiko oihartzun motelak. Besterik ez bake eta gelditasuna baizik.

Denak iragartzen dit etorrera pozgarri bat: adaburuak kulunkatzean ere, Miren ikusteko saiatzen direla ematen du, urduri baileudean.

Irribera dago dena. Ez al dut adar higikor horretan nabaitzen?

XIX

Xirimiri izan dugu goizean: eten gabe jantzi du Altzurain beltzuraz; guztia, jakina, ni ezik. Atertu egin du gero, eta hodeitsu eta bare gelditu da dena. Denboraren igaro-

tzeak berak geratuta zirudien, eta luzeago egin dit honek goiza.

Nekez ahaztuko zait gaurko eguna: Iraila'ren 16. Urrezko letraz idatziko banu ere, eskasa eta motza izango litzateke apaindura.

Gero... goazen astiro.

Ikusi eta, «Txorora zaude»: Hitz hauekin egin dit harrera. Askok gustatu bide zaio eraztuna, eta behatzean zeraman gaur ni agurtzean. Sinu ona iruditu zait hau, eta ez nindoan oker hala pentsatzean.

Zerubide'ra joan gara biok. Bustita zegoen guztia, blai-blai eginda. Adarrak tantoka, loreak malkotan gisan, lilitegiak gainezka. Kristauik ez barrenean. Bakea zerioan guztiari.

«Nire» iturrira alderatu gara, eta beti bezalatsu zegoen dena, baina bestelako kutsuaz margotua. Inoiz ez dut Zerubide gaur bezain okerkitsu aurkitu.

Iturriaren aurrean geratu gara Miren eta biok, eta lehenengo gure ikusketa gogorazi diot. Beharrik ez: ba bide zen gogoratzen.

Horretan ginen bada, urmaeltxoari so, haren esku hotza neureaz hartu diodanean. Eraztuna begiratu dut xamurki eta irribarrez. Ez du ezer esan. Isiltasuna sortu da bion artean, baina ez zitzaidan gogaikarri; ezta hari ere, nire ustez. Nolako atsegina haren eskua nik berotzekoa! Goxoagarik ez.

Betbetan haren begiek miresten zituzten nireak, eta nireak agian harenak. Ditztira huts bihurtu da dena harez gero: esmeralda belarra, zilarra urmaelaren ura, su gori zeru goibela. Zer zen hura?

Halakoxea derizkiot lorian sarrerari. Atsegin-boladek bete naute behin eta berriz, eta oreka galdu dut zeharo: gorputzekoa eta arimakoa. Zainetatik ihesi nahian edo ze-

bilen asaldatutako odola. Zeharka izan da musua, zeru-tiarra, eta laburra izan arren betikotasun kutsuduna.

Orain neure gelako bakartasun geldu honetan, alferrik ipintzen dut ahoa alasako ispiluan. Erre egin naiz sekulako: gutxi da kristalaren hotza nire mina sendatzeko. Kiskaldu egin zait haragia, eta bizitza osoa zehar izango dut hor, aztarna ezabakaitz, beraren ezpain lodiskote erdi hezeek utzitako ildoak.

Bainan, zertarako jarraituko natzaio azalpen hotz honi? Musua bizi izan ez duenak, ez dakike ezer; eta bizi izan duenak ere, ez ditu haren erako diren hitzak aurkituko, bizizko gauza delako.

Gero, maite nauela esan dit, eta zoratzear ni. Nortzuk diote ezta goxo denik? Isil bitez, arren.

Zoratzeko arratsaldea, bai, zoratzekoa. Hau betikotasuna!

Ezin idatz, ezin loak har, ezin ezer. Kalera noa. Berriz hasi da euria, eta banoa, aterkia eskuan, neure betetasun hau bakardadean goxatzera.

Utz nazatela bakarrik: aski eta sobera naiz gaur ni neure buruarekin ez aspertzeko.

Haren ezpainak nireetan... eta belarrietan haren «maite zaitut» hilgarria.

XX

Gainezka nengoen gaur goizean zoriontasunez, azken egun hauetan guztietan bezalaxe.

Zerubide'ra naiz, euriaz bustitzera hain zuzen. Ez egin harrituarena: egia hutsa duzu hori. Nahita busti naiz blai-blai.

Zorion-jarioak gazteturik edo, parkeruntz abiatu naiz,

ohituraren aurka, guardasolik gabe; eta tanta ttikin freskoak aurpegian behera lerratzen nabaitu ditut. Noizpehinka, goialde goibelari so nengoela, adaburuetako tistiltzar batek ernatzen dituen lokarrazitako begiak.

Euri geldiaeren betiko mezua erdientzun du nire bihotz hunkituak. Zoriontsu nintzen, sendi nezake-eta.

Larruaren beroa eta euriaren hezetasuna elkarrekin nahasiak nire begitartean gogoz dastatuz gero, banentorren Zerubide'tik etxe aldera, nahiko bustita, egia esan, baina pozik.

Eta behingoz, estutu egin zait bihotza. Barneko Miren'en irudiaren orde, amona gajo bat begiztatu dut aurrean. Beltz zatarra zuen jantzia burutik oinetaraino, narratxa burua, eta guztiz karrakatuta gona. Dirurik batere gabez, eta dena galdutzat emanik, noski, ez zuen ondikozkoak ezertarako gogorik, ezta kalean garbi agertzeko ere. Zerk euts lezake emakume kupidagarri hura bere hartan? Zer, heriotzaren beldurra ez bada? Bizi bazen, ez hiltzeko soilik bizi zen. «Heriotza, bazter ez ezagun hori: bere mugaz berriz igaro ditzazkeen bidaririk ez». Heriotza: munduan direnen eusle eta erausle...

Ekaitzean ontziska galdua, izkina batetan eseri edo kuzkurtuta, burua makur, loteria-tirak eskuan, atso itsu gajoa; ozta-ozta entzuten zitzaion taigabeko bere deia: «los últimos que me quedan para hoy». Luzaroan ikusi dut jendea: joan-etorri biziaren zurrumbilo zaratatsuak irentsita, inork ez zuen begirune bat harganatzeko betarik. Batere ez da hargatik gelditu. Atsoaren halabehar gogo galdua!

Hargana joan naiz. Bere erropak euriaren hezeak kirastuta, nardagarri zegoen guztia hargan. Gajoa!

Zizkua atera eta une hartan neraman diru guzti-guzti eman diot, txanponik gabe geratu arte. Eta lehengo alaitasuna barne-bake bihurtu zait. Halere, ez kezkarik gabe.

Lotsa eman didate haren esker beroek. Bereztasuna eman nahi nion nik neure eskaintzari; bainan ezin: bihotzmuinetaraino zetorkidan itsuaren ahotsa. Bizia bera eman-go niokeen une hartan.

Munduaren ezbidea! Eta Zoriaren gogorkeria ankerra! Batari guztia, besteari deus ez. Ni poza jario nagoela, malkorik ere atera ezinean hura! Bai inauteri iskiriozkoa mundurena!

Hau dantzan, hura hiletan. Hemen jaio, han hil; toki honetan ezkontza, hartan ehortze. Honek bere dirutza nola xahutuko jakin ez; eta beste horrek, bitartean, bizitzeko adina lortzerik ez....

XXI

Lur hezea usnatzen ari naiz Bolueta'ko belardi batetan.

Kezkatu egiten naute Miren'en musuek; eta honegati-xe nauka liluratuta. Ez naute betetzen, eragiten baizik. Zeren, nork esan zuen baketsu izan behar dela zoriona?

Harekin nagoenean, arrenkuratsu eta joranez beterik ohi nago: gehiago nahi bide dut, eskaintzen zaidana gutxi bailitzan, eta gehiago-behar horretan mugitzen naiz alai eta triste. Haren gorputza behar al dut? Ez, ez! Eta har-gandik urruntzean, hura bai gogorra! Miren'ekin nagoenean bete eta kezkati, Miren'engandik urrun huts eta hil.

Zer egiten du orain? Etxean egongo zela esan zidan. Bazkaria antolatzen? Edo-eta, hatsartzen ari da, edo leihotik landa ikusten... Txoarre bildurkorren eran mugitzen ditu bere niniak; eta betetsi ezin nik!

Etzanda nago hemen. Aurpegia ukitzen didate belar-izpiek. Tamala: ezin sar ditzaket begiak barrenago. Hau mundu ezezaguna!

Mila motatako landare bigun eta segailak, elkarrekiko bizi-lehian dakusazkit hemen hamaika kale eta zoko eratzten. «Enbor eskerga» horien artean nekez igarotzen da nekez txingurri langile bat. Geroxeago, aurrera ezinean, karrakaldo aztuna ari da «baso ito» horretan barrena. Une honetan armiarma bada nire laguna, segituan datozkit itxuraz ere ezagutzen ez ditudan mila zomorro harrigarri. Eta agertoki ezustekora bat azaldu ala, itzali egiten da bestea, berriz ez etortzeko. Belar artetik datoz, belar artera doaz; eta ba al dakite jakin beren norakoa? Munduaren irudi bikaina dut begien aurrean; eta hain zuzen, ez al datza beraganako nire lilura iruditatsun zehatz horretan?

Kilikili bizia egiten dit behatzean mantangorri batek, eta gogoetatik erakarri nau senditzearen mundura. Eta honetatik, haurtzarokora: «Amona mantan gorri, gorri, gorri, gorri...» Ume guztien zomorro maitatua. Gerard Bahr'ek dioen bezala euskaldunen pizti sagaratua izan zelako? Badoa behatzean gora. Beti gorantz joan behar; eta igotzerik ez badu, behatz-punttara iristeagatik, hegan egin behar.

Miragarria: guztia bizi. Eta ni neu ere, bizitasun horri begira bizirik nago. Nork ezagutzen ditu bizitza ezkutu hauek guztiak...! Nork nirea...? Miren.

Lur hezean usai egiten dudanean, animalia izateaz eta senditzeaz poztutzen naiz. Belarra bezalakoa naiz-eta; hots: bizidun.

XXII

Ezin sinets: bestetango mutil harekin ikusi dut Miren. Lauerri utzi nau ikusteak. Nolatan izan liteke hura? Agurtu egin diet labur, eta neure bideari ekin diot, heriotza

segaduna aurrean banu bezain erotuta.

Egia esan, eta bada-ezpada ere, ez diot Miren'i sekula aipatu ere neure arerio honen izatea, beldurrik batere ez nuelakoa egiteko. Denboraz ahaztu ere zitzaidan, eta ez dakit, horretaz, nor den, ezta zer hartueman izan duten ere.

Ez dut ezer ulertzen. Maite nauela aitortu dit Miren'ek askotan. Argibideak eskatuko balizkit batek, ez nuke nik ematen jakingo, beharbada; bainan gaurko aldakuntza zertsu den jakin ez arren, ziur dakit nik benetan esaten zituela Miren'ek bolada honetan gauza haiek.

Nola azaldu bada, ezuste hau? «Aldakortasuna: emakume deritzu». Arrazoia al du berriz Shakespeare-k?

Agian, hari ere egiten dizkio niri egiten dizkidan laztanak... Ez!!! Suntsi nazala suak, hil nadila sasoian, hori jasan baino lehenago. Utz diezaiodan honi gaurkoz: astakeriak besterik ez dut idatziko segitzekotan. Eta ez: neure burua berotuko nuke geroz eta gehiago.

Horretan nengoela, urrutizkinez deitu nau: ahalik eta gogorren jokatu dut nik; hark, ordea, albait xamurren. Ez diot ezer entzun nahi izan, hark apalki eta eten gabe eskatu arren, eta biharko zitzatu gara.

(«Three coins» irratitzean. Ez! itzali egin beharko).

Den dena azaldu beharko dit bihar, eta ez biguntzeko eskatzen diot Jainkoari. Dena jakin behar dut gazte horretaz, hitzetik hortzera; eta bihar esan behar diot ere Miren'i, behin bakarrik ikusten badut berriz horrekin, guztia hautsita dagoela bertatik eta betirako.

Moztu egingo da hori, alegia.

Bai.

XXIII

«Zerubide»n ikusi dugu elkar. Ni iritsi orduko baze-
goen han Miren. Eta atzo gauen hala erabakita, haren on-
dora joan eta hitzik esan gabe, zaplateko bat eman diot.
Negarrari eman zaio gajoa, eta orduan konturatu naiz
neure zakarrera latzaz. Berandu zen.

Bere barne-muinetan minduta Miren, ez zuen ezer
azaltzeko kemenik. Ezta bere burua garbitzen saiatzeko
ere. Eta, hura ikusita, nora joan da nire gogorra? Lekutan
zeuden ordurako atzoko nire asmo «tinkoak».

Malkoak bigunduta, zerbait esateko eskatu diot otzan.
Erantzunik ez. Haren eskuak hartu ditut ondoren: ez du
begirunea altxa ere. Lurrari so, ez zuen txintik aterazen.
Besarkatu egin dut: alferrik. Harrigarri hau ere: ez dit ezer
bururatu bere gorpuztasunak. Ezer ez.

Neuri sortu zait eztarrian korapilo bat, eta barkatze-
ko arrendu diot. Azkenez, guztiz minbera, hau esan dit:
«Ez nauzu ezagutzen. Hau pena. Ezin asma dezakezu, zure
doilorkeria honetaz eman didazun mina».

Barkapena eskatu diot behin eta berriz. Ba al nekien,
ordea, atzoko gertatua? Ez.

Eman daitekeen musurik xamurrena eman diot masai-
lean, batere haragikeriarik gabea, neure amari emango nio-
keen bezalakoxea.

Berehala, kontatzen hasi da Miren:

«Galen handia hartuko duzu, Joxeba, eta egia ez dela
usteko duzu beharbada. Dena dela esatera noana egia osoa

dela agintzen dizut.

Andoni Iturzaeta da atzoko gaztearen izena. Aspaldidanik gara lagun; eta zuk ni ezagutu aurretik bagenuen hark eta biok elkar ezagutzen. Adiskide minak dituzu haren familia eta nirea; eta horregatik ezagutu ninduen Andonik gaur dela ez dakit zenbat urte.

Soldadu dabil orain, udaberritik, eta kanpora joan behar izan du. Soldadutza egin baino lehenago askotan ikusten ninduen, eta ezer esan ez bazidan ere, baninduen maite, nire ustez. Hauetan, ez gara emakumeak oso oker ibiltzen.

Hiru hilabete dira kanpoan dagoenetik, eta frankotan idatzi dit. Haseran erantzun egiten nion nik batzutan; baina halako batez, argi eta garbi esan zidan Andoni'k maite ninduela. Harez gero ez diot behin ere idatzi nahi izan.

Baimena eman diotela-ta, atzo honera bezain laister, deitu egin ninduen.

Ikusi egin behar ninduela, eta abar.

Nahiz bestegatik izan, ikusi egin behar nuen nik ere. Eta igarri egin diezaiokezu ondorengoari: egia esan diot, eta ondo etsita gelditu zen gizajoa».

Ero moduan isuri dizkiot neure musuak, tarteka bar-katzeko esaten niola. Malko-tantak ihiztatu dituzte nire ezpain-egartiak. Sukarra izan da hura.

Nire kordea kilikatu eta iratzarri du xamurtasun zoragarri hark. Laztanka hasi naiz, zeruko atarian jarri, eta lanak izan ditugu atseginarenean aldapa labainean tenk egiteko.

Erotu egin nau betirako gaurko igotze margotsuak.

Miren bihotzekoa: nola biziko naiz aurrerantzean zure bihotza gabe?

Badakit: inola ere ez. Ezin. Ezin. Miren...

UDA

Biltzailearen oharra:

Leturia'ren paperak bilatzen asko ahalegindu arren, ez dugu aztarnarik ere aurkitu «uda»ko bere sasoi honi buruz.

Badakigu, eta irakurlea bera konturatuko da honetaz berehala, hutsune bat dagoela ere egunkarian; eta hain zuzen ezkontzaldikoa dela hura.

Nola hori? Ondorengoan ematen ditugu azalpenak.

Zoriontsu izan al zen Leturia aro honetan? Baiezkoan gaude. Ez dakigu zehatz pozez beterik, ala alai samar bakarrik bizitu ote zen bera.

Bainan, hau da hipotesi txalogarriena: Leturia'k ez zuen idatzi aro hartan. Honegatixe ez da haren izkriburik aurkitu.

Eta ziur aski, hau hala izanik, asko adierazi nahi du, gure ustez, egunkariaren hutsuneak, Leturia idazteko tankeran ez zegoela esan nahi baitu noski.

Zeren, nork idazten du? Noiz idazten da? Egunkariei buruz ari gara orain.

Literaturan aztertzen badugu, berehala aurkituko dugu gauza bat: egunkari famatuena idatzi dituztenek barneprolema gogorrek zituztela.

Munduan erlijiozko fedea galdu-ala kezka eta zalan-

tzak handitu zaizkio egungo gizonari, eta gehiago ugartu dira barne-egunkariak benetako literatura-moda bihurtu arte.

Hamaika dira hau probatzeko aipa genitzazkeenak; eta, agiritzat, irakurleak ezagutzen dituen bi gogoraziko dizkiogu: Kafka eta Amiel. Paranoiko maila jar daitezke biak askoren iritziz.

Alde batetik, bada, barnekoiek eta neurotikoek idatzi dituzte egunkariak. Eta Leturia ez zen, gure aburuz, haietako bat, hurbil samar bazebilen ere.

Badira, bestalde, egunkariak idatzi ohi dituztenak, gizon erdieroak izan ez arren. Denok izan dugu bizitzan egunkariaren aroa; eta bide honetatik azaldu behar da Leturia'ren hutsunea, eta bere adierazkuntza.

Noiz idazten dira-ta egunkariak? Noiz idatzi duzu zeuk, irakurle? Beltzurak zure arima goibeltasunez bete zuenean.

Iluna da poesia. Alaia ez da poesigarri. Ez al zenuen orain arte nabaitu? Nekez azal daiteke munduko alaitasuna: osoa ez delako, noski, ez gaitu sakon hunkitzen. Tristura, ordea, bihotzeraino sartzen zaigu. Eta lehenengo antzu eta urri bada burutapenetan, aberats eta oparo da bigarrena.

Nork bizitu du alaitasun osoa? Inork ez. Bi mila eta bostehun urte dira Budha'k esan zuenetik: «Zorion-unerik izan al duzue inoiz? Ez!!!»

Puskaka eta asmamenaz ezagutzen dugu bakarrik zoriona, eta geure barrenean euki baino antzeman egiten diogu. Tristura, ostera, larri-mina, bete-ezina, denok ezagutu dugu, hain osotoro gehienetan, haietaz mintzatu ere nahi ez dugula.

Ezin esan dezakegu guk alaitasuna eta zoriona berez nolakoak diren; badakigu, halere, mundu honetakoak halakoak direla, eta askoz ere gehiago eta ederkiago iz-

kribatu duela olerkariak tristurari buruz, betetasunari buruz baino.

Ekialdeko herriek jakin dute bakarrik ametsetako zorriona aurkezten, europatarrei jotapasa galanta emanaz.

Horregatik, tristerik edo irrikan gaudenean idatzi ohi dugu: emakume maitatuaren baietza entzuteraino, Jainkoaren bidea aurkitu arte, egiteko gaizki doakiguno, eta abar; hots, buruhauste bat urratu dugun arteraino.

Eta hauxe ikusten da garbiro Leturia'ren Egunkarian.

Jokaera hau lasai-bide hutsa da psikoanalisiaren ustez, eta hala ematen du zalantzarik gabe: kezka eta katramilak paperan isuritzeaz, txikitu egiten dela nolabait datxezkien barne-tensioa.

Horretaz, zoriontsu izan zen Leturia ezkondu eta gero hilabete batzutan, hori adierazten du bere isilaldiak, gure ustez.

Zer egin ote zuen denbora honetan guztian? Ez dakigu; agian, hau ez da behin ere jakingo. Pentsa beza irakurleak gogokoen duena.

Tamala da, alegia. Badirudi hobeto ezagutzen dugula Leturia tristea, Leturia zoriontsua baino. Bainan, izan al zen azken hau? Bestea izan zena eskierki dakigu; alabainan, zoriontsuaren berririk ez. Hemen al dago korapiloa? Beharbada....

Batzuren ustez, igartzen diogu, oraingo seta handitu besterik ez du egingo Leturia'ren Egunkari honek; hau da, gizon barnekoi eta etsia aurkeztutzekoa. Gizon eria hartzen omen da gaur literatuaren gizonaren eredutzat; eta joera honek iduri gezurrezkoa sortu duela dio sasi-baikor askok.

Arrazoin pittin bat dutela ukatu ez arren, hau esaten diegu horiei: zergatik ez ditu lau hosto irustak?

Bainan hau guztia delata, ez ditugu gertakizunak aurre-

tik iragarri nahi. Aski da biltzailearentzat esandakoa esan
ahal izatea.

Utz diezaiozun, bada, lekua geure Leturia'ri.

UDAZKEN

I

Ahaztu egin zait idazten. Denbora luzea da lerrorik bati zerrimarratzen ez dudala; eta gaur, ohitura galdurik, gorriak pasako ditut neure barrena astintzen duena erdi-purdi behinik behin azaltzeko.

Gogorra da gaur idaztera noana: honelakorik idazteko gauza izan direnak asko ez dira. Eta ondorengo hori gerora jakingo dela baneki, ez dakit atzera joko ez ote nukeen nik ere.

Larria da oso esatekoa: Miren'ek ez nau zoriontsu egingen. Ezkondu aurrean bezain tirrika nabil.

Lehen eta noizik behin bakarrik, lera biziak itsututa, elkar ematen genuenean, zerua bera geurekin genuela zirudien: odol-itsutasuna eta zoriona nahasten genituen.

Egoera hura, ordea, ez zen orekarik eza baizik; eta gaur, egunak joan eta dena bere berera itzulirik, zer egin hartaz guztiaz?

Tarteka izan naiz zoriontsu, bai, lera asetu deno. Gero, ezereza agertu da gugana; eta sua itzalita, ez su eta ez austerre: ke. Eta ketan joan da bildutako erregarria.

Nire bizitza betetzen zuen hutsunea lekutu da. Badaukat behar nuena. Eta, zer? Egoki zioen Shakespeare'k

«Ezer irabazi ez-bainan galdu egiten da dena, nahikun-dea lorturik, gu bete gabe iraungitzen denean!»

Mittoa desegin eta tirrikazioak deuseztuta, bihotza zipilduta, sakonago egin da hutsunea. Nekatu egin nau opa nuena eukitzeak.

Ez esan, badakit-eta: gehiegi goratu nuen Miren. Jainkosa bihurtu nuen oharkabean, eta hortik datorkit oraingo etsipena.

Bainan, zer egin nezakeen orduan nik goratze horri aldegitoko? Zer gaur neure honetatik irteteko?

Ona da Miren, eta bihotzez maite nau. Egia esan, ulerkaitza zait haren maitakera; eta neure maitasuna eta harena alderatzen ditudanean, izututa gelditzen naiz: harenaren ondoan ezer ez da nirea.

Alabaina, gehiago behar du nire bihotzak, «zerbait» eskatzen dit orain lehen baino ere bortitzago. Eta, zer eman diezaioket nik? Hau ez da behar zuena, Miren ez da, agiri denez, bete lezakeena.

Orain aste batzu, irrikaz beterik itxaroten nuen gauaren etorrera; bainan ez nintzen ni zai zegoena, nire gorputza baizik.

Okitu eta higuindu egiten nau arratsa hurbiltzeak, nire bete ezina haren ondoren berritu eta suminduko baita ezinbestez.

Inork ez du hau sekula jakingo. Ez, Jauna, arren!

Eta zer da ni engainatu nauena? Ez diot Miren'i errua botako, ez; neuk gezurtara dut neure burua.

Askotan entzun izan nuen nik zorion-irritsa mundu honetan asetzerik ez dagoena; eta guztiz ere, eta ahoz nik hala aitortuagatik ere, zer egin dut etsipen leize ilun honetara ez jausteko? Deus ez.

Edozein txotxolo zentzugabek bezala jokatu dut, txorro honek. Eta gero...



TALITIK ITSRSOX

[Handwritten signature]

Etorkizunaren beldur naiz. Non dago-ta nire irten bidea?

II

Zerubide'n egon naiz. Hosto eroriak zoko guztietan. Gorriska parkea eta gotilun ni ahateen urmael ondotik igarro naiz. Margula zen argia, eta eurikara giroa. Hotzik ez.

Bi ezkonberri etorri, argazki batzu atera, eta joan egin dira.

Supituan, aspaldian ikusitako eztaiaz gogoratu naiz; eta zastada handia hartu banuen orduko hartan, are handiagoa izan da gaur arratsaldean nire oroimenak arrerazia.

Bi gizon bide gara hura eta hau, biok izen bat besterik eraman ez arren: Joxeba Leturia. Jazko udaberrian ikusi nituen haiek, eta hauek aurtengo udazkenean: honek ere bere mamia izan dezake.

Berriz bururatu zaizkit egun hartako iduriak: behetik gora begiratzen nien orduan, goitik behera gaur. Haiengana mirespina zen hura, mirespen asaldatzailea alegia; kupida gaur arratsaldekoa. Aldapan gorakoan nekusen orduan lilura-gaina; beherakoan gaur.

Hots, guztiz diferentea.

Ezin sinets. Gaurko ezkonberriak bezalaxe hasi nintzen ni ere: esperantzaz beterik, haiek bezala irribarrez, haiek bezala Zorion Nagusia eskuan nuen uste irmoan.

Haren ibilera eta kinuak aztertu ditut, eta arinegi iruditu zaizkit. Biziak alegia, baina oso urduri eta artega bezala. Nigan ez dago horrelakorik: patxadan mugitzen naiz, eta ez bide naiz lehenagokoa bera. Hitz batera bilduz gorabehera: haiek gazte, ni zahar.

Ikusita dago: lilura hiltzen du aukeratzeak. Eta lilurarik gabe, gaztetasunik ez. Zergatik aukeratu nuen, bada, gazterik iraun banezakeen? Honatx nire okerra! Aukeratzeak egin nau zahar. Frakasatu egiten derrigorrez aukeratu duenak.

Bidez esan ohi du Jon nire adiskideak: «Maitemindurik ez bainan hipnosizaturik daude».

Eta zer gertatuko ote zaie gizajo horiei berriz esnatzean? Neuri gertaturikoa, noski.

Ai, mundu eroa! Besteren buruan ikasterik ez. Alaka hau berau alferrik da.

III

Bai polita zegoela gaur itsasoa: badakusat oraindik, urdin eta nare. Eta milazkaen artean «Zuhaztieta»ko egurastokitik nindoala, Jon topatu dut.

Hizketa mamitsua izan dugu; edo hobeto esan, kausitu egin du hark bere bakarrizketan, entzun baino gehiago ez baitut nik egin.

Armentia-tarren ezkontzausteaz hasi zait mintzatzen. Banekien nik gertatua gutxi gora behera; baina xehetasun guztiak eman dizkit hark. Nola edo hala, beti daki jakitekorik dagoena; lortzeko nola moldatzen den ezin esan.

«Seme bat utzi dik» —erantsi du— «eta Ameriketara joan duk. Kemena izan behar horretarako. Erreza zirudik kanpotik begiratuta; bainan jar hadi haren lekuan, eta ikusiko duk.»

Ba al zuen hau esan beharrik?

«Semearen kontua duk hor, eta beti, gogorrena; honek ez beste baiezten dik ezkontzaren ezin urratzea. Bestela,

eta norberaren okerrak zuzentzekoa zuhurren jokabidea bada, zergatik honetan ez zuzendu? Hautatze larririk bada bizitzan, hauxe duk larria.

«Hamaika istilu izan omen ditek Armentia'tarrak horrera baino lehenago; eta gauzak era hartara jarriz gero, zer itxaropen izan zezaketen?

«Akats bat aurkitzen zioat ezkontzari: aurretik ezin probatzea. Nahi dutena esango ditek honi buruz «zintzoek» eta ordotoxoek; baina beti izango duk hau mila okerren iturburua. Eta dirudienez, zuzendu ezinezko okerburua duk».

Zerbait erantzuteko zorian egon naiz, baina ez dut tutik esan: zerbait otu arren, ez nuen ikusten esatekoa.

«Gainerantzean, zio astunak dituk burgesentzat «okerra» ez egiteko. Gizartearen susmurrak dituk lokarri sendorra: gaizki ikusita zegok hori gaur...»

Nazka pitin bat eman dit puntu honetan haren lotsagabekeriak.

«Badituk, horiez gainera, beste «maitetasun-zioak»... zeren, senarra utzi eta zer egin dezake bere aldetik doan emakume gajoak? Hau dela-eta, lika bikaina duk diruaren falta».

Gogorra zen lasaikeria hau, baina arrazoia-edo ez al zuen Jon'ek?

«Honela hilobi-isila egiten duk ezkonduen artean, eta batek ere ez dik txintik esaten. Pozik daudelako? Ez, alajainkoa! neure esperientzia eskasean (besteen lepotik hartua hau jakina) erabaki bat ateratzen ari nauk: gutxi dakigula ezkontzaz, eta uste dugun baino garratzagoa dela egia».

«Eta ni ez nauk batere harritzen, badakik: hipnosia-
ren ondorea zeritzadak...»

Zarrakatu egin dira nire orekaren oinarriak eta min-

duta etorri naiz etxera. Ohean etzan eta zartako bat eman diot burkoari indar guziarekin.

Nazka ematen zidan, batez ere, gizartearen zioak, egia hutsa zelako. Hori baino zirtzilkeria lotsagarriagorik ez: jendearen esanagatik gezurrez jokatu... Ez!

Zer da bainan Miren'en ondoan naukana?

IV

Aztergarria da Mikel'en pentsakera. Harekin egon naiz oraintsu, eta zerbait pentsarazi dit haren kontaktetako.

«Miriam» deritza oraingo neskak. Inork ez bezalako begiak ditu, inoiz ez bezain hunkituta dago Mikel, inora joateko gauza ez dira ez bata eta ez bestea elkarrekin ez bada... Gezurra dirudi horrenbestetan eta horren berdin «maitemindu» ahal izateak. Amets ber-berak beti, hitz ber-berak, sentsazio berberak, eta lehenengo aldiz nabaituko balira bezain berriak.

«Ez, ez, Joxeba; egiaz esaten diat hau: oraingo honetan ez duk bestetan bezala gertatuko. Bihotza urratu zidak Miriam'ek, eta ez zeukeat ezer harentzako baizik. Benetan».

«Hortaz, gauzak okertzen ez bazaizkik, erretorearena baino beste biderik ez duk, ez da hala?»

— «Zergatik? Ez, ez. Mentalidade antzinakoa duk hik. Nondik nora ezkonduko ni? Hilabete batzutan ibiliko gaituk elkarrekin, biok pozaren pozez, eta gauza xamurregi jartzen ari dela ohartu eta laister moztu egingo diat. Hau bai: honetarako bihotzik ez: tenk egingo diat ezertako errukirik gabe. Ohituta natxeok.

«Eta Miriam?»

«Bazekik hark ezkontzeko asmorik ez dudana, neuk hala esanik. Hasera duk polita; horretaz: has gaitzen ahalik eta gehienetan. Orain, esate baterako, irrikan negok ni, ia olerkari bihurtuta, Miriam dela bide. Eta hau galtzea eskatzen didak? Nola gal nezake zorionerako dudan bide bakarra? Hobe nikek burua moztu!

«Bazekiat nik bati lotu, eta higuinak harrapatuko ninduela ezinbestez. Nola nahi duk, bada, neure eskuaz neure burua urkatzea? Ezin diat. Nire askatasuna zegok guztien gainean, hura gabe galduta naizela bai baitakit.

«Bazekiat, besteko, ezkondu den batentzat ez bide handia dela hau, eta bizitza txatxukeriatan hondatzea. Bainan, besteak beste, honetarako jaio nauk ni!»

Zentzugabe deritzat jokaera horri; bainan hala eta guztiz ere, alai dabil beti Mikel. Edo-eta nik baino hobeto ezagutzen du bere burua, eta ezaguera honetatik datorchio alaitasuna: bere izakeraren arauaz jokatzeko duelako.

Eta, nire bihotzondoan, ez al dut nik Mikel bekaizten? Baliteke. Hiru gizon-mota dira Ortega'ren ustez: «Don Juan» izan direnak, «Don Juan» izan uste direnak, eta «nahi zutelako» «Don Juan» behinere izan ez direnak. Honetan al datza, ausaz, Mikel'enganako nire inbiria ezkutu? Alde batetik baietz uste dut.

Badago, halere, arimari buruzko beste zio edo kari bat; eta koska hau dela uste dut. Aukeratu egiten ez du Mikel'ek: bere esku dirau; aukeratzearen ondorioak ez ditu ezagutu, eta honegatik dabil pozkario.

Bainan, sakonago aztertuz, libre al da? Ez aukeratzea aukeratu du, nire ustez, eta zentzugabekeria da hori. Bere burua engainatzea baino ez. Pentsatu ondoren hartu izan balu bederen bere bide hori... Bainan ez dut uste. Oharkabean edo pentsatu gabez, aukeratu du itsutasunaren bidea; eta hau da hori: saldukeria, gizonak egin deza-

keen saldukeriarik galduena.

Mikel'ek jakinez eta burubidez, bizitza autentikoa hautetsi beharrean inautentikoa hartu du bidetzat.

Ezin bat etor harekin.

V

Lanari buruzko aitzekia bat asmaturik, etxen utzi dut Miren, eta Ibaeta'tik ibili naiz. Arratsa etorri eta bikotez bete dira ibaiaren inguruak.

Maiseo bila joan naiz hara, eta bai errez aurkitu mai-seogarria. Gizontxo haiek ilunpeak ausaturik, betiko lalakeriak ahoan, enborretako islakin nahaspilatzen zituzten berenak ni pasatzean. Atseginaren bila denak betiko hitzak aipatu dituzte noski losentxatu nahian, azkenik haiek berek sinistu arte. Guztiak berdin, eta guztiak maite dutelakoan. Izen gorenez zamatuak senak eta grina hutsak! Laztanik anitzenenak banatuz gogai goragarrienak nahasi... Bai iskirio gordina!

Bapatean neska-mutil guztiak gizaseme bilakatzen zirela bururatu zait.

Zer infernu-ikusketa zen hura? Goragaleak ere hasi zaizkit, nik uste. Hura ikustekoa!

Horretaz, lizungoak biltzen ditu hara arratsero. Agirian dago baietz, bestela ez du hark azalbiderik. Honetan ezin eman nik amore.

Freud bururatu zait, eta arrazoi betea duela pentsatu dut. Gizagorik gabe, zer izango litzateke horretaz guztiaz? Zer gauza askotaz? Deus ez. Senak iratzartzen digu zorion-irritsa pubertaroan; hark eusten dio; har eratzen ditu gure ametsik gogoangarrienak, hark dakazkigu etsi-

pen gogorrenak, hark sortzen diotenez, maitasuna (sortzen duenetan). Haren bidez sumintzen zaigu bizitzaren hutsu-nea, neuri galdetu bestela.

Zer gara, bada, hura gabe? Ezer gutxi. Ibaeta'ko Pa-seoa kontutan euki gabe, ezin Alzurain'go isilpeko istoria azaldu. Berebat, ezin gizona konpreni hormonak aintza-kotzat hartu gabe.

Etxera itzulirik gogoeta hauek nerabilzkien gelan, eta ziplo, tximistak argituta bezala gizaseme bihurtuta ikusi dut Miren. Zabal eta borobilak jarri zaizkit begiak. Hura ikara! Banquo eta Macbeth'ena bera. Neure aurre-aurrean nuen Miren gizona, eta nazka-lotsa eraginda, atzeraka hasi naiz urrats txikiz. Mahaitxo batekin topatu, zapasalto, eta txarro bat puskatu da lurrean. Handiagoa egin ikara, eta lehertzeaz jarri zait bihotza. Alde batera eta bestera begiratu eta... ikusi egin dut ziur nago. Miren sukaldetik etorrita, aitzekia batzu jarri dizkiot, aurpegira inola begiratu gabe, eta neureak eta bi entzun ditut hura puskatzeagatik.

Erotzen ari naiz, bai; neuk nabaitzen dut: orain ondo itzarrrik nagoela bakarrean, hartaz oroitu eta nekez gordetzen dut garraisia. Hilberri bat bere hiljantziaz, zurbil, urdinska begitartea, ohetik jaikitzen ikusiki banu, ez li-dake ikusteak zauskada latzagorik emango. Jauna, zer izan den izukari hura!

Zoroen ulermena dut orain, eta lotsa oso, bete, guztizkoa senditzen dut maitatzeko legeaz. Hau higuina!! Askizait ikuspena asmatzea oka egiteko zorian jartzeko.

Maitasuna... Nola garabilzki Naturelezak!... Nahiduen eran maneaten gaitu, gure esku garela sinistaraziz. Joko jolasgarria, alegia, berea!

Hau al zen Gide'ren prolema? Uste dudanez ez osotorro. Bainan hemendik bazebiltzen bere buruhaustek, ez nabil ni hargandik urrun, eta ulertzen bide dut piska bat.

Beldur naiz Miren aurrez-aurre ikusteko.

VI

Artemehindanik, haren begirunearen ihesi dabilta nire begiak, eta konturatu egin da Miren.

«Nazka ematen dizut. Ez zait hau gorde, ez. Nazka ematen dizut!! Politago bihur ahal baneza neure burua, munduan dagoen emakumerik ederrena bihur ahal banendi, ondutako nire izate guztia zuri eskaintzeko, nolabait zu zoriontzeko... Hau zoritxarra nirea!»

Eta negarrari eman zaio. Eta ni, zakar gaizto hau, tan-
kera horretan hura ikusi, eta buru-belarri ibili naiz zer-
bait egokirik esateko. Lehortu egin zaizkit bihotzeko iturri
guztiak, eta burua aurreratu zaio sendimenduari.

Ez doa oker Miren. Ez da, izan, nazka nik senditzen
dudana: neure barnea azal dedin dut beldur ikaragarria.
Nire burua agertuko balitz, galduta nengoke lotsa hutsez.
Nork igarri diezaioke nire bihotz usteldua bazkatzen duen
belzkeriari?

Bi higuinaldi izan ditut orain arte Miren'ekin, eta biak
izan dute oinarriztat bere gorpuztasuna.

Lehenbizi, oraindik ezkongai ginela, atzerarazi ninduen
batzutan bere gorpuztasunak. Gauza harrigarria zen: gor-
putz zelako etsi-arazten ninduen bere gorputzak, gaizkoa
zelako, mugatua eta pisua zelako. Gaitzi zitzaidan bola-
da hartan nire barneko lilura zoragarriak gorputzaren
bidez azaldu beharra.

Orain, berriz, ez da inola berdin. Nekatuta nagoenean
ez zait axolik bere gorpuztasuna nire ondoan nabaitzea.
Ez dago gorputzeko hesirik. Bainan, noizean behin, odo-

lak eraginda besarkatu eta nireganatu nahi dudanetan, nazka ematen dit bere gorpuztasun horrek; ez alegia, ezkongai-aldikoagatik, neure grina, joera, eta senen jopu eta katigu naizelako baizik. Guztiak menperatzen dituen indarraren jostailu aurkitzen zait nardagarri. Hala irudituagatik ere, ez naiz aske. Eta aske izan nahi dut nik, neure esku!! Neuk izan behar dut neure geroarean aukeratzaillea.

Hau dela-eta, geroz eta okerrago dago elkarrekiko egoera. Hoztasun ikaragarriak izoztutzen dizkigu bazkalor-orduak. Piztu nahi bide du irratitzak guztiz hilak datzana. Alferrik. Kanpoko zarata da hura, eta oso barnekoa gure isilunea; eta atzik utzi gabe pasatzen dira soinuak gure artetik, negutegogortutako harkaitzetan haize izpi mehea gisa.

Denari ohartu zaio Miren, eta ezin egin nik alaitzekoa.

Bart, aitzekiak asmatuz, ezetz esan diot berriz.

«Behinere ez nauzu maite izan. Mila eskaera eta arren egiten zenituenean ere, ez zenizkidan niri aihertzen, nigan jabekezun zegoenari baizik. Niganako zure amodioa jabe-kunde baten istoria izan da. Zeure burua baizik ez duzu sekula maitatu. Zereko amorratua zara. Nola ez nintzen ni garaiz konturatu?»

Besarkatu egin nau orduan, eromodun, bere indar guztiarekin, tiro batek ziplo zauritu bailuen, eta osotara etsita erantsi: «Berandu da, alabaina, orain. Maite zaitut, Joxeba: hitz hauek ulertuko dituzun egunean jakingo dituzu oraingo nire penak».

Hura ikusita, bigundu egin zait barnea. Betiko nire akatsa. Gaur, ordea, hozkiro, pentsaturik, hau dakusat garbiro: ez dutela bere malkoek egoera aldatu. Hots, zergatik aldatuko jokaeraz? Neure pentsamena ukatuko al dut?

VII

Miren'ekin beharrean beste batekin ezkondu izan baintz, zer gertatuko zitzaidan? Istilu honetan sartuta egongo al nintzen? Hau bururatu dit deabruak azken gauean. Miren bera ote da gaitzen jatorria...?

Loa galdu eta asko azterkatu ondoren, ezetz uste dut. Ona da Miren, bihozti, etxekoi eta zintzoa. Bihotzez maite nau. Zer gehiago aurki nezakeen beste emakume bategan? Ezer ez. Puntu honetara helduko nintzen edozeinekin.

Miren'i buruz ez-bainan neure buruaz hutsegin dut. Aukeratzea egiteko larria zenez ez nintzen konturatu. Ez nuen oharrez egin aukeraketa. Eta behin, oharkabea, oker jokatu nuelako, bizi osoa galduko al dut? Damu dut, alafede, egina; bainan honetaz besterik ezer ez? Oharkabea egiten dena bekatu ez dela-eta, alaka alperretan xahutuko al dut neure bizialdia?

Egin egin behar zerbait okerrak zuzentzeko, asmatu egin behar zerbait. Bestela, mingostu egingo dit bizitza hutsegin nuelako mamuak; eta hau ez da itzaliko zeren jakin badakit egina dagoena behaztopa. Zalantzarik ez honetaz.

Bidarte Nagusira itzuli behar dut berriz, bada, gehiago ibili aurretik.

VIII

Arratsalde igarokorra Zerubide'n. Are igarokorragegiten du urrutiko irratitz bateko soinuak. Ozta-ozta irauten dute zintzilika azken hosto ihartuak. Lurrean dautzainak, euriak busti eta zimurtuta, beren xarma galdu dute, eta hilen antza hartu. Goibel zerua, eta urdin moreak honetan nabarmentzen diren hodei luzaxkak.

Betiko urmael-iturritxoan nire aurrean. Dena iheskor. Aguro doa arratsaldea, udazkeneko arratsaldeak oro bezala. Igarokor, labur, etenkor: honatx giroari dagozkion hitzak.

Makilaz lagunduta, nire aurrera iritsi da nekez agure konkor bat. Eseri egin da eta orain ez du inora begiratzen. Baztergabean josirik begirada, zer darabil bihotzean giza-zajoak? Denak utzi eta ahaztuta agian, zer itxaropide izan dezake orain?... «Bai azkar joan dela bizitza! Ohitutzen hasi orduko, harrapatu egin naute heriotzaren mandatari diren eritasunek. Bai laburra, Jainkoa! Gaztetan, noizpait geldiune bat izango nuelako ustean bizi nintzen, urteak joan, eta «noizpait» baketsu horren zai nago oraindik. Heriotza al zen otean horren gogotsu itxaron dudan gelditasuna?

Neroni begiratu dit orain, eta asalduz bete nau. Entzun ez arren, badantzut: gazte maitea, «Qu'est-ce que tu as fait de ta jeunesse»?

Ez hori gogorazi, arren!

«Laister zimeldu eta iraungiko dira zure lilurak, laisterregi. Uste duzun baino aurkiago gogoratuko zara el-

karrekiko gertakari isil eta ezkutu honetaz, eta makila bat izango duzu eskuan, orain nik bezala. Laister doa denbora, laisterka bezain isilik; honengatik ez gaitu esnatzen. Aguro ikusiko duzu aurrean bizitzaren Eragile Nagusia, itxarokizun bakarra bihurtuta: Hirugarren Parca. Eta Homero'ren esana izango duzu etengabe agirian, zalantza-buru eta kezka bidetzat: «Hilek ez bestek dakite mina zer den».

Nahikoa da, arren! Erruz alaitu naiz sendo eta gazte izateaz, eta azkarki heldu diot arkatzari: bizi, bizi, bizia...! Eta heriotza... Gizonak duen ezinbestezko bakarra...

Sekulako edermenak bete nau, eta bizitasunez mozkortu. Ilunpeak dizdiratzen du argia, gauaren beltzak izarra, mingotsak gozoa.

Neure jaiotzaz oroitu naiz; neure jaiotza egiazkoaz, bai; zeren, Egunkaria idazten hasi nintzenean jaio bainintzen ni, jaio, orduan senditu bainuen bizi-beharra. Betbetan, eta zergatik jakin gabe, olerki kutsua idoro nuen guztian. Jaiokundea bezala izan zen hura. «Zerbait» berri mintzatzeko zitzaidan lehenengo aldiz, hutsune eta tristuraren ondorena barne-barnean utzita.

Kanpoan zegoen «zerbait» falta nuen nik; eta Miren ezagutu nuenean hura guztia aurkitu bide-nuen hargan, Huraxe zen «zerbait» hura.

Aro hartan, «Zerubide»ra etorri eta «Gero» zen izaki guztiak belarriratzen zidaten hitza: «Gero». Miren izandakoan, zoriontsu izango nintzen, hau eta hori izango nintzen. Gero, gero, gero... «Gero» zen olerki kutsuaren mamia, eta gerotasun horretatik zetorren orain nahi hura, hots ilun harrigarri hura.

Gaur Miren guztiz neurea dudalarik, ez dago «Gero»rik; eta halaz ere tente dirau olerki-kondar azaldu ezinezko hark. Bainan bestelako sinu edo joera hartu du:

«Non» bihurtu da orduko «Gero»a. Baieztu egiten nuen behin, galdetu egun. Etorkizun zegoen eguna orduan, betirako pasata gaur. Oroï-minak jarraitu dio lilurari eta heriotzaren beti-egonak bizi-nahiari.

Liluraren lilitegietatik etsipenaren saizulora igaro naiz...

Sartu ez-sartu bide-dago eguzkia. Egun bat gehiago... egun bat gutxiago...

Negurean etorrera nabaitzen dut arratsetan, berorren aintzindari dira haize bolada hotz hauek.

Nire bihotzaren arrenkura ez beste denak behera doaz. Bizi egin nahi dut! betirako bizi nahi dut! Zoriontsu izan nahi dut! Non zaude? Nire aurka al dago guztia?

Alferrik deika. Ez da txorrotxiorik ere. Ezer ez zait mintzatzen atsedengarritzat.

Eta non dago nire argimena ilunpetatik ateratzeko gauza ez dela?

Badator gaua, izarrik gabeko gau beltza; gaua: isilaren ama, deusezaren ahizpa bizkia.

Badator piskaka, neure azkena bezala.

«La vie s'en va, Madame, la vie s'en va.. Hélas! La vie non; mais nous nous en allons»...

Ez!!!

Hau al da nigar egitea?

Ez al da hau erregutzea?

IX

Paregabea da ardoaren indarra. Ondo dakite hau olerkariak eta beren erako askok, eta hari ematen zaizkio edozein lan hasi baino lehenago.

Gutziz bakarra da ardoak eragiten duen olermena. Orain ni, mozkor nagoela, argitasun berri batek naragi; eta inoiz ez bezain garbiro ikusten ditut neure katramilak

Lilura hutsa izan da guztia... Miren'engan ez zegoena ikusi nuen nik, zoriona atxiki nion-eta. Zergatik izango zuen berak, nik falta dudana?

Horra maitasunaren okerra: norberak opa duen zoriontasuna, beste batengan ezartzea. Nondik nora «nondu» gure zorion-mina? Zer dela bide?

Hauxe da maitasunaren lilura, eta hargatik etsitzen dugu maitale guztiok: maitemintzean nortze ezinezko bat egin genuelako. Inork ezin dezake beregan nortu besteren zorion-beharra. Nortu egiten du beti, ordea maiteminduak. Horretaz, etsipenak jarraitu behar, nahi eta ez. Nolatan ez?

Lilura hutsa, bai: nire lilurabidea izan zara zu, Miren, ez nik eta ez zuk hala nahi izan ez arren.

Gutziz ere, bizitzeko gogoia nuen nik amets-aldi hartan. Hain zuzen, zu nire lilura bete-betea zinenean, bizijario nenbilen ni, guztiekin etorkor eta otzan edozeren alde lan egiteko prest.

Orain berriz, zu, lilurabide bat besterik izan ez zarela nik dakidala, nakar eta nazkatuta nabil, bizitzeko gogoak arras itzaliak.

Lilura batek eusten baninduen, ezaguera batek jaurtiko nau.

«Hipnosis» esan ohi du Jon'ek. Hori norainoko egia zorrotza den hark berak dakienik ez dut uste. Egiaren zorrotza, Jauna!

Eta ongi etorria zu, napar ardo hori argitasun argitsua

ematen baitidazu.

Maizago orditu beharko aurrerakoan...

X

Oraintxe ikusi dut ispiluan neure burua, eta hotzikara batek inarrosi nau: eroen begiak ditut!!! Ez begiak baka-rik, neure itxura osoa baizik. Betazpi ikaragarriak ditut, eta bi txinpart ematen dute nire begininiek. Leher egina nago.

Zirrara eman diot nik neure buruari: hau marka! Une batez, beste bat nintzela otu zait, zatitu egin da nire nor-tasuna, eta dardaratu egin naiz beldurrez. Bidezkoak al dira asmazio hauek?

Ez zait hau, gainerantzean, lehenengo aldiz gertatu. Beste batzutan ere, edozeinekin hizketan ari naizela, horre-lako ikara nabaitzen dut besteak aztertuta nagoela ohar-tzean. Eta amets beltz izugarri batetik aterako bainintzen bihurtzen naiz neure baitara urduri, artega, kezka bete-rik. Eta behin baino gehiagotan egondu naiz Urliari edo Berendiari galdetzeko zorian: «Zer begiratzen didazu ho-rrela? Zer dut nik? Zer ikusten duzu nigan? Ero baten antza ote dut agian?» Beldurra senditzen dut, ero bihurtze-ko beldur ikaragarria.

Lehen, gogorragoa izan da, benetan larritzeko gauza, alegia. Ispiluan begiratu, eta beste bat banintz bezala ikusi dut neure burua. Sendagilearengana joan beharko al dut ahaleginetan? Ez dakit. Dena dela, beldur naukate ger-taera ikaragarri hauek.

Alboetara begiratu, eta trankilago geratu naiz inork ikusi ez nauelako segurantzian.

Egia esan, ez da hau harritzekoa: Bart ere beste askotan bezala, betiko istilua izan genuen Miren'ek eta biok. Ezin dut nik neure nazka gainditu; eta egun biz behin, zaputz eta hotz nagoela entzun behar.

Bizpahiru esakuntz erdiragarri esan ondoren, isildu egin zen Miren, eta ez zuen txintik berriz atera. Geroenean, ordea, nik loak hartuta nengoelakoan, nigar isila hasi zuen, eta tankera horretan, denbora luzea egon zen malko-jario, oso-oso isilik.

Hunkitu egin ninduen sakon bere nigarrak, eta egia osoa esateko zalantzan ibili nintzen. Zer esan behar nion, ordea? Maite ez dudala? Ez al zen hau izango nire isila baino ere gogorragoa?

Ez nuen nik uste. Halako batez neure loaizuna etetzeko zorian nengoenean, gauza bat bururatu zitzaidan: zer egingo nuen aurrerakoan? hartuemanak ontzeko eta xamurtzeko ez bazen, zertarako esan behar nion nik ezer? Une hartan, bai: bihotzak eraginda, edozein neurri agintzeko prest nengoen ni, bainan ondotxo ezagutzen ditut nik bihotzaren atzipeak: unearen zauskada igaro, eta egina berriz damutu biharamonean. Ez, ez: orduan «esnatzen» banintzen, ez nintzateke gero gauza izango hasitako xamurtasun bideari jarraitzeko. Oker jokatzekotan (eta bihotzari entzutea zen oker jokatzeari) damuak eta errukiak etorriko lirakeke gero; eta hura ez zen bidezkoa. Ito egin behar nuen neure beraxtasunak, bigunkeria igarokorra baino ez zelako.

Eta gogor egin nion neure buruari, eta bihozkada azpiratu.

Gogaikarria ez al da egoera hau? Baita gehiago ere: ezin eramana da. Honela ezin daiteke bizi.

Horretaz gainera goganbeharrez beterik dago Miren. Beste emakume bat dagoela uste du, noski. Herenegun,

ez-ohiko ordu batez etxera nintzen, eta neure mahaian harapatu nuen Miren, kajoiak idei nahian nonbait. Ez nion ezer esan. «Zerbait» idazten dudala nabaitu bide-du, eta bere etsaia balitz bezala bilatzen ari da. Ez du ezer aurkituko. Bai zera! Egunkaria irakur badeza, egin duke nereak.

Eta, guztira, bizitza al da hau? Miren zalantzan, nitaz fiatzen ez dela, beti urduri; ni, berriz, gogait, erotzear, neure buruarekin borrokan.

Ozta-ozta hitz egiten dugu elkarrekin. Nork esan zezakeen hau gure eztaialdi irribera hartan? Hoztasun izugarriak bete du gure arteko guztia. Bikote kupidagarri gaude, zinez.

Ezin, hau ezin daiteke segi.

XI

Berriaren harrigarria! Barre eragin dit haseran, eta nigar gero. Maitemindu egin da Jon! Jon, bai; Jon argia ere «hipnosi»an erori da.

Denok berdin. Nork igar zezakeen hau? Beti iskirioka zebilen hura, berak maiseatutako lilura berean eroriko zela...

«Guztiz erotuta» dago gainera. Nola ez!

«Bazekiat, bai Joxeba, barre egiteko gogoa emango diadala. Ni nerau negok harrituta, hi baino lehenago. Beti bezala pentsatzen diat nik gaur, eta «hipnosi»ak eta amodioak hartueman handiak dituztela uste, orain arte guztian bezalaxe. Bainan buruak ikusten dik hau, eta buruak ez bestek ematen aintzakotzat egia hori. Horregatik, buruz betikoa iraun arren, izanez ez nauk atzokoa.

«Ez, Joxeba. Ez egin harrituarena, harritu bahaiz ere.

Hik herorrek egiaztatuko duk hau beharbada. Bihotza zego-
gok buruaz gainera, eta lotuago eta gertuago dugu hau
biziari, adimendua baino. Hori duk nik ematen dudana
azalpena.

«Eta txoratuta naukak, gau eta egun Lore'gan nire ar-
dura, harekin egoteko hoge eta lau orduz irrika gorrian.

«Gainera, edonork baino erromantikoago jokatzen diat
nik azken bolada honetan. Xehetasun batzu emango niz-
kikek... Bainan lotsatu egingo nindukek, gintuzkek hobe...
eta nahiago diat ez esan.

«Ezin nauk Lore gabe bizi».

Betiko lilurak, betiko okerrak, beti betiko asmazio ero
berberak. Eten gabeko leloak.

Bainan harritu egin nau Jon'ek; zeren ni konturatu ez
banintzen, guztiz konturatzen den hau: eta erori egin da,
halere. Nola konpreni daiteke horrelako ezbidea? Noiz-
tanik da gizona pentsakorra?

Betiko mintzoa berritu da gaur: ezin naiz bizi, haren-
gan dago nire bihotza, eta abar. Betikoa!!

Gizonak ez du deus ikasten, nork bere buruan baizik.
Hondamendi garratza da hau, bainan egia hutsa. Bost axo-
la zaio bati bestearen damua; eta hala izanik makina bat
aldiz okertzen da gizaldia betiko okerbideetan barrena, eta
halere, arrastorik ere ez ikasteko. Belaunez belaun berri-
tzen dira hutsak, eta beti gertatuko da berdin mundua
mundu deno.

Denok nortu dugu zerua behin baino gehiagotan. Eta,
izan ere, nork bere zerugaia jaiotako herrian bertan aur-
kitu ahal izatea, ez ote da, berez, beste gabe arras harri-
garri? Ondoan bide dugu beti geure zorion-egarri sakona
itzaliko duena... Barregarria, alegia!!! Eta geu, berriz, bes-
te edonoren «zorion-egarri sakona» asetzeko gauza bide
gara, noski, beste baten iritiz... Nondik nora? Nola eror

gaitezke behin eta berriz astakeria horretan? Gezurra dirudi.

Eta Jon bera liluratuta...

Goragaleak ditut!

XII

Bestetan bezala intuizioa ugaritzen dit edateak, eta neure burutik ihesi eragiten bidenabar. Eta, dena dela, bizi-garriago egiten bizitza.

Film batetan bezalaxe dakusat neure lehena.

Argi gehiago zen orduan. Orain, nire zorion-mina ezik, dena goibel.

Harrigarria. Zenbat-eta biziago izan nire zorion-azkura, hainbat-eta epelago nire bizigura. Ito egin zidan lilurak zorion-mina, eta bizitzeko gogoia piztu. Zergatik hala? Zeren eskuragarria zirudien zorionak Miren'en bidetz. Eta Maite-min bihurtu zen Zorion-mina. Miren'en sasi beharra, bihotzaren beharra.

Horretan datza maitetasunaren lilura: zilegi ez den jomuga-trukatzea da. Egiatzkoa eta iraunkorra da zorion-beharra; aurki egiten da errauts, berriz, maite-minaren lilura igarokorra.

Ez maiteminarena bakarrik, noski...

Bere ezdeustatzera abiatzen da berez lilura oro. Heriotza du bizi-legetzat. Ezdeusak ematen dio guna, eta ezdeustatu artean urduritasuna besterik ez da. Emaiogun denbora edozein lilurari, eta, aukera agerturik, ezereza bihurtuko da gogoz bere helburua iritsi eta laister.

Denbora behar du lilurak bere izana erakusteko, eta besterik ez. Horrengatik ohi gara zaharrago eta ukakorragoak. Lilurak bete-ala (ots, hil-ala) beltzura agertzen da ezin bestez.

Burutzerako bidean abiarazi zituen lilura hilerazten dute burutzapenek oro. Burutu eta hil: honatx legea...

«Eman, arren, ezinezko amodio bat..» Bai, bai. Non daude betirako lorkizunak? Non dira mugagabeko bide ezkutua? Ez dut inora iritsi nahi!!

Gogaikarria da opa denean, opa-gaia ez iristea. Baina iristea ere, ez al da gogaikarriena?

Nahikundeak eskatzen duena lortzen ez bada, nahikundearen ahalmena edo joera gelditzen da erren eta gogotsu. Baina desira lortuz gero, izate osoa, nortasun osoa gelditzen da egarri bizian, osotara etsita, nora jo ez dakiela. Lehenbizikoan, lilura batek lurjotzen du; bigarreanean, gizon osoak. Honegatik, sakonago da nahikundeari darraikon tristura, nahikundea betekizun gelditzeari darraikona baino. Hots, kaltegarriagoa da lortzea, ez lortzea baino.

Itxaropena hiltzen du lilura itzaltzeak; itxaropena piztu, ordea, «kizun» geratzeak.

Honegatixe, indar eta eragite handiagoa du lilurak arrakastak baino, eta ibiltzeak iristek baino. Beraz, frakasoak da munduaren eusle handiena. Heriotza esan nuen arte-mehin; frakasoak gaur...

Batzutan, Budha'ren kutsua-edo du honek guztiak. Baliteke. Eta, zer?

Ardoari esker ikusi badut garbi, bost axola niri ordi-«keria».

XIII

Bart betiko istilua; nazkatuta nago. Astuna zait gutiz haren maitetasuna. Beti ari da etengabeko leloak esaten. Hitz berberak horrenbestetan erabili litezkeenik ez nuen uste: beti berdin; beti! «Maite zaitut», eta horrelakoak entzuteak neure onetatik ateratzen nau; mila aldiz entzun izan ditut. Zertarako entzun behar berriz?

Miren'ek ahaztu izan banindu, hobe biontzat. Eta ez nituzkeen nik lelo nekagarriak entzungo.

Egunero berbera! Ihesari emateko gogoia ematen dit haren begirune maitariak.

Ezin, Jauna!

XIV

Ez dakit zenbat denbora den hemen idazten ez nuela. Zertarako? Isilpean eraman dut neure nekea, hemen ere deus esan gabe.

Aste gogorak izan zaizkit azken hauek. Egia esan, beti bezalakoak. Bainan betikoaz gainera erori dira atsekabe hauek, eta horrek egin ditu, hain zuzen, nekagarri.

Atzokoa, ordea, ezin isildu. Gertatu zaidan ikaragarriena da nonbait. Gau ahaztu-ezina pasa dut, bai, bainan ez zorionagatik, alegia. Hura lokamutsa! Itzarririk nire asmamenak asma lezakeena baino beltzago eta izugarriagoa izan da. Nondik otu zitzaidan nire halako astakeriarik?

Lotan zegoen Miren, lo sakonean. Begiratu egin nion, nire odolak harrigarrero zirakiela. Azaldu ezinezko amorrak harrapatu ni, eta lepotik heldu nion bi eskuez, bihurtzeko eran. Eta estutzen hasi nintzen, geroz eta bortitzago, batere gupidarik gabe. Eta nik estutu-ala, beroago eta lodiago egiten zitzaidan odola, eta zainetan zehar ibili eta ezin zitekeela zirudien. Beroaldiaren handia!

Zerbait esan nahi bide zidan Miren'ek: bere begi zoratuetan ikusi nuen nik. Begirada triste haren irudia ez zait sekula itzaliko. Bainan une hartan, ni bigundu beharrean, ankerrago bihurtu ninduen, nolatan ez dakidala, eta indar berriak eman zizkidan bere ahultasunak.

Oraindik ere nabaitzen ditut haren espasmoak. Hura sukarra nirea! Hiltzeko atsegina ezagutu dut ametsetan eta izutu egiten naiz.

Garrasi zorrotz batek dardaratu ninduen. Miren'en garrasia zen, noski; banekien nik lozorro bete betean, eta asaldatu egin nintzen itoketa agertu zelakoan.

Mailukadak ziruditen nire bihotzeko taupadek, eta sekulako neke nabaitu nuen bularren, pisu eskerga bat gainen jari bailutean. Nekez hartzen nuen arnasa, taupada astunak nire zainak astintzen zituztela. Hura larria!

Beste garrasi bat entzun nuen, lehenagokoa baino ere zorrotzagoa, eta ifernuko atean izutuko nintzakeen adina izutu nintzen. Eta neuk ere bota nuen garrasi zirraragarri bat.

Estutu-ala estutu zuten nire eskuak Miren'en eztarria, mina hartu arte. Ezin azaldu sentsazio hura: garrasien artean, itoerazi nahian, pisu astun-astuna bihotzaren gainean taupadak mailutzar emango bailituan, beroa... zer dakit nik!

Geroz eta maizago entzuten ziren bion garrasiak, elkarrekin nahastuak, eta ni neu ito beharrez egon arren,

ez nintzen esnatzen. Entzun egiten nuen bakarrik.

Esnatu egin nintzen, azkenez. Besotik inarrosten ari zaitzaidan Miren, ni esnarazi nahian, eta ikaratu egin zuen noski nire zoro-itxurak. Lehertu behar nuela zirudien, eta begiak nolakoak nituen igartzen dut: ispiluan begiratu nuen egun hartan bezalakoxeak.

Ni bezain izututa zegoen Miren, eta galderaz bete ninduen. Ahalik eta gutxien erantzun nion nik neure izualdian, eta lokamuts bat zela esan. Besterik ez. Zer esan niezaiokeen?

Berriz lotan hasteko ahaleginak egin nituen, baina alferrik. Hotzikarak astintzen naute orain ere garrasiak gogoratzean; honengatik pasa dut gau osoa ikara bizian, oihuak berriz entzuteko izu betean. Lastu egin zait ilea behin baino gehiagotan, eta halaxe gertatuko zait noski geroan.

Entzun, eta ezin esna. Herio-aurrea ezagutzen al dut, ausaz?

XV

Astiro aztertu dut neure egoera, eta irteera bat besterik ez dakusat: etxetik aldegitakoa. Zehazki pentsatu dut dena, eta ez dago besterik.

Banoa hemendik. Dena ezagutu nahi dut, dena dastatu nahi dut; eta gero, hori guztia eginik, aukeratu egingo dut.

Garbi dago, nire gardiz, niri gertatutakoa. Pentsatu gabe aukeratu nuen bidea (Miren), (Miren ez besterik ezagutu gabe). Bide egin arte; eta hortik datorkit frakasoak: neuk egin behar nuena zori hutsari utzi nion eta oker ir-

ten zait. Nola ez? Zergatik ez? Bihotza al dugu bakarrik?

Ikusi nuen lehenengo lilurari heldu nion, Egia eta Bidea aurkitu nituelakoan; atsekabez beterik egiztatu dut, ordea, ez zegoela horrelakorik, eta bidez nahastu nintzela.

Horregatik noa etxetik. Eta Paris aldera noa: behar den bezala nonbait aukeratu ahal izatekotan, han aukera daiteke, noski. Dena ezagutuko dut, eta bihotz txoroari uko egin ondoren, buruz aukeratuko dut ni beteko naue-na, hots, neure bide egiazkoa.

Noiz etorriko naizen ez dakit, ezta Altzurain'a itzuliko naizenik ere. Betirako noa agian; nork dakike?

Gogorra zait joatea: neure sorterriari utzi, neure gizaroa galdu, neure herriari aldegin... Miren bera gezurtara eta abandonatu, dena senditzen dut errai-muinean.

Bainan neure askatasunaz baliatu behar dut. Oker jokatu banu behin, zuzen dezadan orain oker hura, eta has nadin berriro bizitzen. Gogorra da joateaz egiten dudana belzkeria; baina geratzeaz ere, ez al litzateke gogorrago izango? Pentsatu gabez neure burua betiko galduko banu, eskaini zaidan aukera bakarra hondatuko banu, ez ote nuke saldukeria txarragoa egingo? Behin bizi gara soilik, eta behin baino gehiagotan ez dugu aukerakizuna hautatzerik izango.

Ez nintzen ni honetaz garaiz konturatu. Berandu ohartu naiz, alegia, bainan neure urrats okerrak zuzendu nahi ditut, oraindik zuzen ditzakedalako ustean.

Pentsatzeko eman zaigu burua, eta bihotzaren zorion-irritsa pentsa dezagun. Honegatik gara geure esku.

Eta Miren gajoari, zer esango diot? Non nagoen badaki, egin du nireak: nire ondora etorriko litzateke eginahaletan. Ezin esan diezaioket, eta ezkutuki ibili beharko dut joateko.

Egun batzutarako noala esango diot, eta iritsi eta se-

gituan zuzenbideak bidaliko dizkiodala. Negozio-kontuak direla eta kitto. Gero gerokoak. Neuk ere ez dakit gertakizuna.

Erabaki gogorra da hau, eta damutu egingo zait beharbada noizpait. Edota, hau egin behar dut neure burua galeraziko ez badut, behinik behin.

Agur, Altzurain! Agur, denoi!

Gizonaren zoribidea oharrez bizitzera noa.

Agur!!!

NEGU

I

Treanean idazten dut hau Paris'ako bidean. Laisterrean nabaitzen da aldakuntza: 140kilometro bai orduan honek. Eta arinago dakusat nik neure burua ere, trena bezala, berriz jaio izan banintz gisan.

Gorago bide-daude hemen hodeiak, eta zabalago dirudi landak: muino txikiak isladatzen dira bakarrik noizean behin. Gainerakoa, laua eta zabala da txit. Gogarago betetzen dira hemen nire birikak, ta zoriontsua naiz berriz.

Neure esku naiz. Itxaropenez betea dut gaurko eguna: hori idarokitzen didate belardi zabal berdeek eta teilatu grisek.

Piztu naizela dirudi. Haurraren eran ikusten dut dena, hots, harrituta, zoratuta, baikor...

Hizkuntzaz aldatzeak ere inpresio hori bera uzten dit. Haurraren eran jarri behar dut: konprenitzeko ahaleginak egin behar ditut, doinua halakotu behar dut ulertuko bannaute, eta dena dela, umekiro jokatu behar.

Horretan datza, nire ustez, bidegeteko atsegina: jaio egiten da, eta umeak bezala miresten dira munduko gauza arrontenak. Eta zein dago zorionetik hurbilago umea

baino? Miresteko gauza da hau; eta miretsi egin behar da edozein gauza bere xarman sartzeko. Berritasun horrek sortzen du olerkia, hain zuzen.

Bai. Zalantzarik gabe, jaio egiten da berriz txangotzen duena. Dena berria. Hautzaroa bezala... Hau lilura....!

Urruti dago Paris oraindik, bainan uste dudan baino lehenago iritsiko naiz. Ez dut Paris ezagutzen, eta gustatuko zaidalakoan nago. Ospea badu erruz. Gustatu baino, bete egingo nauela, neure jokabidea aurkitzeko behintzat.

Tristea izan da azken agurra. Ez diot nik bidaldiari batere garrantzirik eman noski; bainan zerbait igarri dio Miren'ek. Bere jokabidean nabaitu dut argi eta garbi. Eta nekeak izan ditut harekiko penaz atzera ez jotzeko.

Bere indar guztiaz besarkatu egin nau mila aldiz, esaten zidala:

—«Zu galtzeko beldur naiz, Joxeba. Azken aldiz joango bazina orain... Esaidazu, arren, maite nauzula. Esan ere ahalik eta azkarren itzuliko zarela. Oso zakarra izan zara nirekin azken bolada honetan, eten ezazu orain behintzat zeure zakarraldia, eta esaidazu zerbait goxo. Entzun egin behar dut!!!... Eta zu behar zaitut!!! Ez al zara konturatzen?!!!»

Sakon hunkitu naute hitz hauek: baina «beste» saldukeriaz gogoratzen saiatu naiz. Miren'ek eskaini didan baino zorion biziagoa behar du nire bihotzak, eta aurkitzen ahalagindu behar dut denaren gainetik. Berebat, pentsatu gabe aukeratu nuen neure bizibidea; eta ez naiz zorionsu inola ere. Zertarako eman zait bestela adimenaren argia, bilatzeko baizik?

Oharrez, ondo buruaz, aukeratu behar dut neure bidea; bestela Zoria da nagusi, eta atsekabea gehienetan bere ekarria.



James H. ...
1900

Part of Gullies - Chasmo...

GULLIES - CHASMO - PARKER

—«Galdu zaitudala deritzat. Non daude haserako laz-
tan eta musu bero haiek, Joxeba? Nitaz nekatu zara... Eta
beharbada nigandik aldegieko zoaz gaur. Esan ezetz,
arren»

Nola edo hala ezetz esan diot nik. Ozta-ozta atera zait
beharrezko gezurra.

Gero geltokian, ez du negarrik egin, nire treña abiatu
den artean. Orduan bai. Azken uneraino inarrosi du be-
soaz musuzapia, nire treña zuhaitzen atzetik estali den ar-
teraino. Gutxitan izan dut bihotza estutuago; bainan orain
pozik nago, nire joerak gainditu eta neronen esku bihurtze-
ko indarrak izan ditudalako.

Gaiztoa naiz badakit; hau guztia egiteko nigan pentsatu
dut bakarrik. Bainan burubideak hala eskatzen zidan. Zer-
tarako dut ulermena?

Neure bidea bilatzeko.

Aurkituko al dut!

II

Badira egun batzu Paris'en nagoela; eta halere, egun-
kariak ez du nire lumaren muturra ikusi, alajaina. Ez dut
beta egokirik aurkitu, eta gerotik gerora utzi dut idaztea.

Egun batzu pasa direla-eta, zer esan dezaket Paris'ez?
Zer egin dut zehatz? Ezer ere ez. Ibili besterik ez. Izan ere,
ez da gutxi. Toki guztietatik igaro naiz, oinez beti, eta
ikustekoa izan da nire lan bakarra. Gauero, oheratzekoan,
poto eginda etzan naiz. Ez da harritzekoa.

Baztergabearen indarra du Paris'ek. Hiriaz nagusitu
ezin daitekeela dirudi, handitasuna dario orotatik, bizia
du gainezka, eta berpiztuta bezala paseatzen da bere ka-

leetan barrena.

Baztergabe ematen du: edo gizona baino mila aldiz handiagoa. Honetxek ematen dio bere kutsu berezia: menperatu egiten du guztiz Paris'en indartasunak.

Eta, zer izan zait atseginena? Ez da erraza esaten. Poliki-poliki igaro naiz frankotan «Quais» delakoetatik, «bouquiniste» guztien aurrean geratuz. Ez dakit bainan horenbeste liburu ikusita, nola ez geratu?

Bestetan aho zabalik eta zalantza gorrian egondu naiz «Bois de Boulogne»ko bazkaldegi apain haien aurrean, neure buruarekin solasean. Eta beren argiak aintzira garbietan ditziratzean, zoriona atzeman litekeela pentsatu izan dut, zerua bera baitzen hura zerua ikustekotan. Hura atsegintasuna! Eta bekaitzez beterik begiratu diet sartu diren bikoteei. Ezkon-berriak, noski, gehien-gehienetan. Lilura zoragarria!

«Arc de Triomph» delakoa miratu dut, askotan, arratsean, eta «Champs Elysées» abenida argitsutik batez ere bere errainua zeruan erregekiro isaltzen denean. Bestetan «Avenue Wilson»ean eseri naiz, zuhaitzen itzalean, «Musée de Galliera»ren aurrean, eta han egondu naiz, presarik gabe arratsaldea pasatzen uzten.

Ikusgarri zait, gauez batez ere, «Champs Elysées»ko joan-etorri eroa, baita «Rivoli» eta «Place de la Concorde» zoragarrietakoa.

Hiriaren orroa azkarra entzun nahi dudanean, berriz, itsasoan ekaitz urrutikoarena bezalakoa, «Tuilleries»ko jardinetara joaten naiz, eta haietatiko bista bezalakorik ez dagoela esanez, ez dut gezurrik batere esaten. Edonorantz begiratu, eta erdi-jainkoen hiri batetan nagoela usate izaten dut nahi eta nahi ez.

Persia'n arkitzeko «Tetre»ko enparantzara joan beterik ez da behar, gauez. Eta atsedena hartzeko, «Buttes

Chaumont»eko parkera joan, eta uxola edo aintzira ikusiaz joaten zait nekea. Edo bestela, «Vert Galant» delakora joan, eta «Seine»ra begiratu.

Eta mila mila toki gehiago.

Zergatik jakin gabe, piskanaka piskanaka, gainezka bezala aurkitu dut neure burua, geroago eta beteago.

Atzo, batibat, «Chaillot»ko Jauregia ezagutzera joan nintzenean, zeharo hunkituta ibili nintzen handik. Bihotzeraino sartu zitzaidan haren ederra, eta zauskada zerutiararak astindu ninduen Paul Valéry-ren idazpuruak irakurtzean.

Gizairudi larriak, jauregiaren jaukala, dena, hunkigarri zen; eta egoki-egokiak etorri zitzaizkidan pentsaera labur haiek. Gutxitan nabaitu dut olerkiaren ziztada zuhazti haie-tan bezain bortizki.

Honegatik, mozkortuta bezala nabil. Hain zuzen, baztergabetasun kutsuak orditu nau; ez bestek. Minberatu egin nau edo, eta sentikorrago nago orain inoiz baino. Miren ezagutu aurretik Zerubide'ra joaten nintzenetan sentitzen nuena bera sentitu dut berriz; hots, gaztetu egin nau Paris-eko, eta bizitzeko gogo eman.

Ero moduan nabil. Beltza zen nire bihotz-hutsunea margoz bete da eta polita dirudi orain tristurak berak.

Zorion-mina... Baztergabe-kutsua...

Betikoak. Maite-aroan nago berriz. Nahi izan gabe, Miren'ez gogoratzen naiz; ez berarengatik, nire gaztearogatik baizik.

Eta honela, nire lehenengo maitasunare kutsua du niretzat Paris'ek: hark bezala bizitzeko gogo piztu dit honek, hark bezala margoz apaindu du nire arimaren hutsunea, hark bezala hamaika xarma berri agertu dizkit.

Eta lehenengo maitasuna gisan, Paris ezagutu duenak ahaztu dezakeenik ez dut uste. Lehenengo andregai mai-

tagarriari bezalaxe, ahaztu ezina deritzat hiri zoragarri honi.

III

Sekulako aurkikundea egin dut.

Lehenengo egunean esaten nuen bezala, gaztetu egin nau mundu berri honetan murgiltzeak; eta berriro bere zorion-azkura biziak. Haizearen olerkia dastatzeko gai naiz bigarren aldiz, lehen baino gehiago, noski: gaur bezain samurkiro ez nau itzalaren hozkirriak sekula laztandu.

Argi ikusi dut gaur, eta bihotz-hutsunearen sustraiari igarri diot: Jainkoaren egarria da gizonaren zorion-mina. Zerbait Absolutu behar zuen nire bihotzak. Hartan atsedena eta atsegina edateko. Betetasuna behar nuen, osotasuna, gelditasun osoa, bake egiazkoa, egia hutsa, denetatik dena. Nola bete nintzake emakume gajo batek? Nire egarri bera zuenak palakatuko ninduke agian?

Nekez bete dezake mugadun sorkariak mugarik ez duen arrenkura. Ezin bete nintzake Miren'ek, ezta beste edozein emakumek ere.

Erljiozkoa da berez gizonaren hutsunea, eta ez dauka mundu honetakoaz asetzerik.

Ez naiz, bada, emakumeaz nahastu, ez. Ziur dakit orain.

Ederki ulertzen dut lilurakin gertatzen dena: beti izaten da lilura lortzea baino ederragoa. Bestetan esandakoa: ametsen azpian geratu ohi dira eginak. Ez da harritzekoa: absolutuak elikatzen eta moldatzen ditu ametsak, irudimenaren bidez. Maitemintzen garenean, esate baterako,

ez du ameskia andregaiak sortzen, gure Jainko-egarriak baizik. Horregatik aipatzen dute maite-mina andregaiak berak ez dituen gauzak, oharkabea, absolutuari datzekion gaitasunak geuk ezartzen dizkiogulako.

Eta hala izanik, aberatsagoa da askoz ere gure egarriari darion edertasuna (ukaeraz sortzen bada ere), neskak edo emakumeak duena baino.

Hauxe da aldakuntza: absolutuaren irritsak bitxitzen du lehenengo maitegaia, eta nahi eta nahi ez geratzen da hau geroenean sortutako mitoa baino beherago.

Lilura sortu duena baino ederragoa da lilura bera. Honegatik, gainera, lilura hiltzen du beti edozein liluragai atzeman eta iristek.

Gauzatze guztiek hondatzen dute ametsa; zeren ametsak Jainkoak edertzen duen, gu konturatu ez arren, eta gauzatzea sorkariak. Absolutuaz jartzen da berez lilura; eta hemendik ondorea.

Ez dago betetasunik gizona guztiz bete dezakeenik: ezin bestez etorri behar du gerora etsipenak.

Ez da maitemina bakarrik gezurtaritzen duena, edozein liluragai baizik. Liluraren sustraian datza geroko frakaso.

Mugara iritsiz gero, ez dago lilurarik. Beraz, ez gaitetzen inoiz irits. Hau da askoren iritzia. Askorena esan dut, eta guztiena esango banu ere, ez nintzateke oso oker ibiliko.

Iristeek oro lilura hiltzen badute, eta aberatsago eta ederragoa bada izanez lilura irispena baino, egokiagoa da bidea ere helburua baino.

Ibil gaitezen helbururantz; honela bizi gaitzke zoriontsu samar behintzat. Eta ibili ahal izateko, urrutira ditza-gun jomugak. Honela jokatzuz, betirako izango dugu nondik ibili eta norantz joan, eta amaigabeko bideetan zehar gordeko ditugu lilurak eta zorion-esperoak.

Tarteak sortu, tarteak asmatu, ibilbideak bilatu: honatx agian gizonaren salbazioa... Heldu ez-bainan ibil gaitzen, eten gabe, zorion aldera, behin ere bidea bukatzeke. Ez dago beste salbabiderik: gauzen esentziak eskatzen digu jokaera hau.

Ezinezko amodioaren erakarria konprenitzen dut orain: ezin lor daitekeena aukera dezagun, eta horrela ez zaigu liluraren lorea behin ere zimelduko...

Bai... bai... Egia...

Bainan, Jainkoa?

IV

Tinkoago nago lehenengo egunean esan nuen guztian, egia deritzat-eta.

Ibiltzeak, aurreratzeak sortzen ditu emozioak. Ez da heriotza zirrargarriena, nekellarrian hiltzen joatea baizik. Aldatzeak eta mugitzeak egiten dituzte zoriona eta atsekabea. Nolabait higitzen ez denak, ez du bihotza ukitzen: aldaerak ez bestek ikutzen du sendimendua. Aldaera hori kendu, eta asaldakaitz eta hoztasun huts bihurtuko da gizona.

Ekarri hauetxek ditu ohiturak, hain zuzen. Emozio guztiak suntsitzen ditu piskanaka, gelditasuna itsasten dielako; ikararik larrienak epeldu, atseginik bizienak kamustu, joranik sakonenak itzaltzen du. Bihotzaren eraile da ohitura, berritasuna amai-erazten duelako, eta honekin sendimena agortu.

Eta zoriona emozio bat da, eta hauetako legeak betetzen ditu. Honegatik, ohituran benetako zoriontasunik izan daitekeenik ez dut uste. Jainkoagan ez dakigu; bainan

mundu honetan, zorionaren bila dabílenak (hau da, guztiak) ez dauka gelditzerik: gorantz ala beherantz. Gizonak ere halaxe du barrua.

Gutziz egoki deritzat honegatik erlijioari, bestegatik ez balitz ere. Gizonaren helburua Zeruan jarriz, bide huts bihurtzen du biziera, eta itxaropenak eta lilurak gordetzeko aukera bakarra ematen dio gizonari. Erlijioari esker, bizitzatik kanpora joan da gure lorkizuna. Honela jokatzuz, erlijioen sortzailek zein artez eta noraino sakonki ezagutu zuten gizonaren sustraia neurtzen da.

Ondo zekiten haiek lilurak oro itzaltzen direla urteekin, eta heriotzaren atzean jarri behar zela gizonaren itxarokizuna, honek iraun ahal zezan.


Horretaz gainera, helburutzat Jainkoa bera jarriz, okerguztiak baztertu zituzten, eta gutziz egokiro pentsatu zutela esan daiteke.

Nahi dutena esango dute «gaikoiek», bainan historia-ren agiria dago hor, eta erlijio sorkari agertzen da gizona behin eta berriz mende gutzietan zehar, Jainkoaren beharra da gizonaren sustraia bera: gizona ukatu gabe, ezin daiteke hau uka.

Gainera beste hobari bat du erlijioak, kaxkarra eta erdi barragarria bada ere: mundukoia-aren frakaso-
a agiriko gauza den bezala, inork ez daki ziur, erlijioaren okertasuna. Honela, itxaropen iraunkorragoa izango da beti erlijioa, mundua baino.

Bestalde, bizitza hobakunde bat bezala jokatzear, zer-egin bihurtzen da biziera, hots, bide; eta beste arrakasta handi bat du hau ere.

Beharrezko iruditzen zait, beraz, orain behintzat, gizona grinaz beterik eta okertua dadila: akats hauek gabe, ez luke zer eginik izango, hots, biderik; eta gizonari bidea eta zer-egina ukatzen dizkionak, bere izaera bere ukatzen



J. AVARD - SHARANDA
1997

DALAD DE CHALOT

CHALLOT - SHOREVA

dio, ibili beharra baita gizonaren mamia, eta ez besterik.

Alde honetatik, beste gauza bat, ikusi uste dut: gaitza izatearen karia. Gizonaren izanak eskatzen ditu, nire ustez, bidegabekeria eta larrimina. Hauek bukatuko balira, edonolako atsegabe eta egarri guztiak ase ahal balitez, zein izango litzateke gizonaren eginkizuna?

Honela, gizonak bere ibili-beharra badu, dena argitzen da.

Ibilketa bat da, horretaz, bizitza.

V

Etsita nago. Gehiago aztertu ondoren, aurrerago iritsi naiz, alegia; bainan egiaren bila aurrerago joan, eta ilunago ikusten dut guztia.

Ibili egin behar da, bai; ez dago beste soluziorik. Bainan, norantz ibili? Bideak behar direla-ta, egia da; alabaina, nora daramate beharrezko bide horiek? Inora ez ala? Bidea behar dugula esaten badut (bainan nora doan jakin gabe) atzipe berria besterik ez da nire irteera.

Lehengo egunean idatzi nuena ez du honek ukatzen, aurrera joateko eskatzen duela baizik. Egia zioen Shakespeare-k, eta berriz aipatuko dut: «Irabazi ez bainan galdu egiten da dena, nahikundea lorturik, gu bete gabe itzaltzen denean». Hauxe baita nahikundeen eta liluren ondorea. Bainan ibiltzeko ibiliko al gara?

Ibili egin behar da; bainan ibiltzea ez da helburua. Ibiltzeak ez darama absoluturik bere sustraian. Beharrezko dirudi alde guztietatik, bainan ez gaitu hark berak betetzen.

Lilura baten atzetik mugitzen hasten garenean, pozik gabiltza, alegia; ibili bagabiltzalako ez, bainan helburu-

rantz abiatu eta nahi duguna berehala iritsiko dugulakoan. Ez da ibiltzea atsegina eta itxaropena piztutzen dituen, berez, helburua gertu jotzea baizik. Urrutiei badago jomuga (eta areago jomugarik ez bada) nekatu egiten da, eta ez da gogorik izaten jarraitzeko. Bideari ekiteko, ikusi egin behar da behinik behin haren azkena.

Hots, helburu bat izan behar da, lilurak sortzeko gaia; hau gabe zentzua galtzen du ibili beharrak.

Grina guztiak deuseztatzeraz doaz; bainan ezin ibil jomugarik gabe.

Horretaz, non dago jomuga? Nondik doa Bidea? Ezin izan daitezke denak berdin. Ezin itsuka jarrai: ikusiz aukeratu behar da.

Ibikizuna beharrezkoa da; eta itsuka ibiltzekoa balitz gure betebeharra...

Ezin!!

VI

Berdin ez dela esaten dit adimenduak. Baita gehiago ere: neure burua galdu nahi ez badut, bidez nahas ezin naitekeela. Zein da gizonarentzat bere etorkizunarena baino buruhauste larriagorik? Ez dago. Hemen argi ikusten saiatu behar dut neure indar guztiez baliatuz; arazo honetan oker jokatuko banu, eman zaidan baliotsuena hondatuko nuke: aukeramena.

Absolutuak zuzendu behar du nire bizitza; zer balio izan dezake bestela honek? Zertarako genuke adimendua? Zertarako poz-jorana?

Non daude oinarri sendoak, haietan nik atsedena har dezadan? Non dago haien Iturria? Non zaude Zu? Zutaz

maitemindu nahi dut; zorion betea emateko Zeu baitzara bide bakarra. Zugan izango dut behar den bakea; herio-hatsik ez daraman zure bake zoragarria... Agustin Deu-narekin esango dut: «Zeuk esnatzen duzu (gizona) Zu goratuz gozaro dadin; zeren Zeuretzat egin gintuzun, eta urduri dabilke gure bihotza Zugan atsedean arte».

Ez duzu, ordea, hitzegiten. Entzun al baneza zure deia... Hitz egin ezazu, arren; mintza zakizkit, eta salbatuta nagoke!

Zein da Zuganako bidea? Hartan aurrera abiatuko naiz azkar, eta ez dut gehiagotan zapasaltorik emango.

Ikusi egin behar dut!!!

VII

Betetasuna behar dut, betetasun geldia gainera. Urduri dabilena laister nekatzen da...

Mundu honetan, berriz, kiratsa dario ur geldiari, eta halaber edozein gauza geldiri...

Oso eskierki esaten nuen lehen nik ibili behar zela: mundu honetan bai, alegia; ez ordea, betetzen gaituelako. Orain ez nuke horren alaiki esango, zalantzan nago-eta. Nekatut egiten du ibiltzeak... Ez al gaitu zaratak itsutzen, betetzen baino?

Mundu honetan ez daukagu bada, asetzerik. Higikor eta igarokorra da beti honek eskain diezagukeena; eta bakerik izan al daiteke higidura eroan? Ez.

Argi dakusat: munduak ezin du gure hutsuneak bete, eta hau adimendu hutsaz egizta daiteke. Gure izaera, eta mundua hozki aztertu besterik ez da behar.

Hots, beste bizitzarik ez badago, galduta gagozke derrigorrez.

VIII

Edozein fedek balio al du besteak adina? Ezin. Bide bakoitzak bere bide-muga du. Nork garamatzake, horretaz, egiazko geure helburua?

Batekin hitzegiten badugu, hark bide dauka arrazoi osoa, eta hau baleuke bezala hitz egiten du. Besteak doaz oker, besteak dira harrokeriagatik ikusten ez dutenak, besteak hantustez beteak, besteak... Nork bere burua baisten du egia duelakoan, eta indar izugarri hartzen dute fedeak haiengan guztiengan, ezberdinak izan arren.

Postuladoak dira fede eta filosofia guztietan: Fededun dira haiek (edozeratik) aintzakotzat ematen dituztenak: harro kupidagarriak, berriz, intuiziozko postulado horietxek arbuiatzen dituztenak. Nola igaroko elkarren arteko leizea?

Arabia'n jaiotzen direnak mahomarrak dira ia berezkuntzarik gabe; berebat budista Ceilan'en jaiokoak, eta katoliko Irlanda'tarrak. Zergatik? Zeren egiak ez duen gizonagan agintzen, baloreak baizik. Eta balore hauek ez dira adimenduz aukeratzen, joera, hazkuntza, gizaroa, bihotza, eta beste hamaika eraginen bidez baizik.

Bainan joera, hazkuntza, gizaroa eta bihotza ez ditugu aukeratu. Beraz, jo-ta-ke zuzenesten dugun geure absolutua, Zoriak ez bestek aukeratu digu.

Jostailu bilagarri gu, alegia...

Izugarria da hau ikustea; bainan esandakoaren indarra handia da, eta ezin uka daiteke. Noraino esan dezakegu bere esku dela gizona? Nork esan dezake berak aukeratu

dituela bere absolutuak?

Nork bere herria maite du, eta zinez uste du denetan ederrena eta maitagarriena dela. Orobat gertatzen da politikarekin, edo aberriarekin. Landare bezala gara: toka zaigun lur-puska maite dugu guztiz.

Bai, landareak bezalakoak gara...

Hemen jaio denak, hemengoa maite du, eta hemengoari zuzenesten dio; eta bizitza bera emango luke berea defenditzeko. Eta ez itsuka, bere ustez arrazoi guztia duelakoan baizik.

Halaxe gertatu izan da gerretan, historiak erakusten digunez: Egia eta Zuzenbidearen alde borrokatu uste zuten gudariak oro, eta horixe pentsatuko dute gerokoek. (Nahita edo gogoz joan direnak, behintzat)

Harrigarria da honi buruz maitasunarekin gertatzen dena: denok aurkitu dugu ametsezko emakuma geure herrian bertan. Arrazoia zuen Jon'ek (Lore'kin hasi baino lehenago behintzat...)

Horretaz oso erlatiboak dira absolutuak. Absoluturik ez dagoela esan daiteke egiaz: ez dago honetan batere gehiegikeriarik.

Berdintsu gertatzen da, jakintza guztietan. Euclides'en postuladua ukatuta beste bidetatik abiatzen bada Matematika, egia egokietara iristen da ere. Filosofian oinarri batetik ala bestetik hasi, eta toki diferentetara iristen da, eta burubide handiz eta bidez beti. Artean berdin: aro batean jaio direnek ez dute lehenagokoen eran ikusten egitekoa, eta arlo honetan batez ere hala behar da.

Ez dago, agiri denez, guztizko aukerapenik benetan eta trabarik gabe aukera dezakeenik ez da jaio; ezta jaioko ere. Logika hutsez hautatzea Jainkoari bide dagokio, eta alferrik saiatzeko da gizona Jainkoarena egiten.

Alabaina, non dago hutsa? Egia zein den nola jakin

dezaket nik?

Fedezko aitorrak egiten ditugu guztiok, baita konturatu ez garen askotan ere. Ezin egizta daiteke ezer ere azken-azken iturburuetarino; nahi eta nahiez topatzen da nonbait postuladoarekin.

Ezin daiteke ezer ziurpetu.

Aukeratu eta gero, ordea, absolutu guztiai zuzenets dakieke.

Nora helduko, Jauna?

ibili egin behar da, ibiltzeak berak beteko ez gaituela jakinda ere; eta itsuka ibili behar da, hartutako bidea «a posteriori» baiets daitekeelako kontsolabide bakarrean. Ikusi ez arren, sinetsi egin behar da; eta fede horri bizitza osoa lotu. Federik gabe ezin eman daiteke ezaguera-pausurik.

Zein da, horretaz, fedarena baino ekintza bidezkoago eta gizonezkoagorik? Gizon guztiok egiten dugu itsutasun-aitor hau; eta denetan, eta une guztietan, inoiz guztiz garbi eta hozkiro ikus ezin dezakegulako.

Fedaren beharra eta bidetasuna honela azaltzen ditut gaur, ez gizonaren aurkakoa bezala, gizonaren izanari lotutako behar bezala baizik.

Baina, zein fede? Edozein? Zein bide? Zein absolutu?

IX

«San Michel'eko Istorio»aren azkena ez zait atsegin izan: liburu guztian zehar heriotzaren larrimina igarri ondoren, txantxetan hartu nahi bide du Munthe'k bere azkena, eta liburuaren jokaeratik ateratzen dela derizkiot.

Heriotza da kondairaren kutsua, eta hiltzeko tema duen

gizon bakarra ez naizela ikusi dut, munduko aurpegi irriberak ikustean nekez suma baliteke ere.

Absolutu-maila ematen dio Heriotzak biziari, eta alde honetatik, bere balioa txikitu ez-bainan goratzen due-la uste dut. Emari bakarra eta alda-ezina bihurtzen du hark jaiotzak eskaintzen digun aukera, bitan egingo ez dugun bidea, behin bakarrik elika gaitzaken guna.

Mugatu egiten digu epea, egitekoei premia emanaz.

Harganantz erakartzen gaitu, eta edertasun giro bat du. Denetan ikaragarriena izan arren, gozoki besarkatzen ere badakiela ematen du. Olerki bakana dario bere ondolik, eta behin baino gehiagotan gelditu naiz jakin-min hilarrien aurrean, galdezka agian, mundua kanpotik ikusten duenaren eran... Eta ero iruditu zaizkit gizonak, eta beren kezkek eta katramilak oro harrigarri.


Urduri jarri nau beti kanposantua betetzen duen ba-keak. Ziztatzaile da hango bakea, eta asaldatu egiten du erraietaraino. Zergatik kezkatzen gaitu behar dugun horretzek? Isiltasuna nahi dugu, eta beldur ikaragarria ematen omen du eremuko isil osoak; loa eta atsedean behar ditugu, eta guztiz ikaratzen gaitu lo beteak, baita beste batengan ikusita ere. Ihesari emateko gogoa piztutzen du hilaren geldiak.

Halere, gehiago hunkitzen nau kanposantuak hiriak baino, hilerria nereago dudalako, noski... Bai, alderago dugu hartako bake kezkatua, kaleko sasi-bizitasuna baino.

Betikoa!

Inauteri eta mamu-jai iruditzen zait «Boulevard»etako mugida larria. Nora doaz? Nondik datoz? Higitu... Kamustu... Amets egin... zer-kezkaturik ez dagoelako amets zoroak... Fantasmagori hutsa da hiria.

Urlia hil bada, zertan nabaitzen da? Hiriari bost axo-



FURSTENBERG
Buenos Aires
San Francisco

JE ALVARO ENRIQUETA
PARIS 1957

FURSTENBERG - ENRIQUETA

la zaio gizona. Bai bidutzi ederra sortu dugula... Laister ahaztu da egileaz.

Bizitza... Sukarra, lehenbizi... Eta, azkenik, amaia... Eritasun aldiak...

Zertarako hainbeste lan eta neke? «Heriotz-ondoko zerbaiten beldurragatik ez balitz.»

Ibili egin behar da: borrokarik gabe, ez dago zorion-biderik. Egia. Bainan «Saint Germain des Près»eko isil baketsua nahiago dut. Han, eliza zaharraren ondoko aulkietan eseri naiz arratsaldea bukatzen betestera; eta zoriontsu izan naiz neure gabea. Nola deritzo bere atzeko enparantzaxo horri? Bake-oasitzaren izena ez zait behin ere gogoratzen. Alemana-edo dirudi. Ez dakit. Txikia da oso, baina bihotzarentzat handia. Ez joan ikustera: ez dauka ezer ikustekorik.

Bete ez bainan hustu egiten naiz hartan.

Eta hau nahiago dut; hutsunearen tristurak egia aurkitzeko gaiago egiten nauelako.

X

Parke batetan gaur ere, beti bezala: «Buttes Chaumont»ekoan gaur.

Nekez aurreratzen dut artemehindanik: ilunpeko erresumara iritsi bide naiz, eta ez dakusat arrastorik ere.

Beti onartzen dira aurre-absolutuak. Ezin irten daiteke hutsetik, gero piskanaka eta etendurarik gabe eraikitzen joate arren. Jauzi egin behar da beti haseran: «intuzioa» dela, edo nahi dugun eran, dei dezakegu lehenengo oinkada. Izenak ez du axolik.

Zuzia da adimendua, bai; bainan uharte batetan ema-

ten zaigu, gau minean, eta itsasoa igaro behar da, hartaz lehorrean baliatzeko. Eta itzal ez dakigun, jauzi egin behar da aurrenik, nahi eta ez, zuzia eskuan. Sekulako jauzia, alajaina!

Egiari buruz, benetako aukeramenik ez du gizonak: ezin daiteke osotoro aukera. Ez gara gai. Inguruko itsasoaz beste aldera beldurrik gabe eta igeritzen pasatzeko, sutzar gartsu bat beharko genuke, itzal ez zedin, eta zuzi bat besterik ez daukagu.

Makurtu egin behar burua: ez daukagu egiara iristerik, jauzi baten bidez abiaturik baizik. Eta gu geu ez gara gauza, beharrezko jauzia emateko.

Nor deituko?

Gainera, hala prekidatzeagatik ere, ez da egia gizonak gehienik irrikatzen duena, zoriona baizik. Honetarako bide bat da egia, ez jomuga. Zalantzarik gabe, biziagoa da zorion-egarria, egia-mina baino. Nork uka diezadake hau?

Bainan, tinkatuz eta geldi-araziz lanegiten du adimenduak. Bizia ulertzeko gai ez da; eta hila nahiago du, aisago darabilelako. «Hildakoa maite du ulermenak», zioen Unamuno'k.

Bere izanaz baztertzen du emozioa, hau aztertzen ez dakielako; eta emozioa baztertu ondoren, ukatu egiten du hurrenik bere axola, eta azkenik, emozioaren izatea bera ukatzen du. Ez honek garrantzirik ez duelako, gure flakia aitortzen ez dakigulako baizik.

Bainan zerbait bada zoriona, emozio da. Horretaz, zorionetik kanpora higitzen da adimendua. Arimaren baztarrean geratzen da berez.

Hots, postuladoak onartzen ditugu beti, oharrez ala oharkabean, eta ez gara egia hutsa atzematuko gauza. Ulermena atzeman dezakeen egia, bestalde, zorionarekin zerikusirik ez du. Zertarako dut, horretaz, gidaritzat, adi-

mendu ahul hau? Zergatik nire ahalmen nagusitzat, neure aurka badago?

Haren flakia aitortu behar.

Haren plaua mugatu behar.

Edo, bestela, irents nazala nire harrokeriak.

XI

*«Oi, zein den ituna
Behera-behar hau!
Nik ez nahi eguna
bihurtzerik gau». (Lizardi)*

Gizonaren hondamendia ezagutuz gero, nork ez du maitatuko? Pausurik batere eman gabe doazkit asteak.

Banoala senditzen dut, bainan neure bidea ezin ikus dezaket. Dena igarotzen zait eginahaletan nigandik iheska gisan. Paris-aldia amaitzen ari zaidala nabaitzen dut ere, eta geldi-arazi nahi nuke denboraren igarotzea, harekin baitoa agian gizonari eman zaion gauza bakarra.

Beste batek urrutitik ikusiko banindu bezala ikusten dut nik neure burua, hiriko kaleetatik paseatzen, oroime-nean ikusten ditut oraingo lipar labur eta iheskor guztiak denborak edertu, eta olerki-kutsu harrigarritz jantziak. Eta heldu egin nahi diot guztiari, ikara bizian; eta behin baino gehiagotan atzitu dut eskuaz burnizko eskudela, edo beste edozein gauza, eta zorabio harrigarri batek astindu nau.

Bidenabar... Ilunpe batetik ilunpe batera doan bidazti itsua naiz.

Itzarririk egin nuen bart amets. «Sacré Coeur»ko mai-

ladian izan nintzen arratsean, eta biziro egoki gelditu han berandu arte. Aurrean, urruti-urrutiraino, Paris'ko itsaso argitsua, eta bere gainean zerukoa, diz-diz ere bai. Ipurtagi-multzoa goian eta behean. Nire atzean, eskailera luzearen koroatzat, askotan maiseatutako eliza zuri famatua, argiz edertua. Ikuskari bakana, alafede!

Gaztea franko zegoen mailadi zabalean eserita, eta ez oso gazteak ere bai, eta nik ere berdin egin nuen. Aurrean, herrenka, bohemioak, edo ez dakit nik zer ziren haiek, funtzio jatorra eskaini ziguten: kantak, olerkiak, tronpetta edo gitarra jotzea: denetatik ikusi genuen. Baita dantza harrigarriak ere neska-mutik bik eginak.

Ez zait behin era ahaztuko hango giro berezi eta alai.

Betbetan, hura sortu zen moduan, joan egin ziren gazteak Montmartre'rantz eta altxa egin ginen gu ere ikusleok. Penaz, alegia... Bainan agitz alegeratuta.

Parisko argi-itsasoak lehen bezain geldirik zirauen eskaileraren aurrean, urrutiko galda eskerga baten errauts epeldua bezalakoa.

Goitik, kaminutik, elizari so une batez egondu ondoren, itxura guztietako turistak Montmartre'rantz.

Gaua zen.

Tximistada bat neritzan guztiari.

XII

Egiarako bidea argitzeko argizagi bat daukagu; eta basoa itoa eta piztiduna da igaro behar dugun oihana.

Alferrikakoa ez-bainan eskasa zaigu argizagia. Gehiegi altxatzen bagara, zuhazti-puska zabalagoa ikusten dugu, egiazki, baina ilunpe ikaragarrian nahasia. Altxatzen ez bagara, berriz, hobeto dakusagu; bainan zer ote dago beste

aldean? Hurbildik argitzen du bakarrik adimenaren zu-
ziak; urrutitik ilunpe beltzean itzaltzen da piskanaka, hosto
bat islatu ere gabe.

Bide bat aukeratuz gero, laguntza joria dugu bada geu-
re argitxoa; edo inguruak ezagutzeko egokia... Mundua-
ren guztitasuna batera argitzeko, ziztrinegi.

Horretaz, zer ari naiz ni, ero hau, argizagi bat eskuan,
oihan izugarrian bilaka? Denbora alferrik xahutu beste-
rik egingo ez dut, orain arte aurreko guztiek galdu duten
bezala, eta ez dut haiek baino gehixeago ikusiko egiari bu-
ruz. Besteen frakasoia kontutan hartuko al dut? Ezin bila
dezaket: argi dina ez daramat.

Nor naiz ni, bada? Nola jaio nintzen? Txiripaz etorri
naiz mundura, txiripaz ezagutu zuten elkar nire gurasoek,
eta hala Adan'enganaino. Eta jaio ondoren ere, Zoriak
gidatu nau orain arte, eta milatan hil nintekeen. Eta hil
izan banintz, ezertan ere ez zen nire hutsunea nabaituko;
ez bainaiz ni inor, ustekabe hutsaren seme baizik.

Ikas ezazu, hau sinesten ez duzun horrek, biziaren
jatorria; eta lauorri geldituko zara haren zaila jakiten, baita
txundituta ere zeure izatearen iturria aztertzen. Zinez diot:
mirakuilu huts-hutsa da edonor munduratzea.

Eta nik, ustekabez naizen honek, ezin aukeratzeak zer
du harritzekorik? Aldrebes balitz (hots, nik egia osoa eza-
gutuz sineskizuna aukeratu ahal izatea) harrigarriagoa
izango litzateke askoz ere. Zeren Zoriaren ekarria naizen
ni guztiz, osotoro, arras.

Eta, zer da, hain zuzen, nire adimenduak harroki es-
katzen duena? Erdi-erdian jarri, eta gauzak banaka ikusi
ondoren, egia deritzana hautatzea. Bainan zein naiz ni neu-
rez, berriz diot, erdian jartzeko? Nondik nora izan behar
dute nire jopu, sorkari guztiek? Noiztanik ni guztien
errege?

Aukeratu... Ez daukat nik aukeratzetik!

Nazkagarria da gainera aukeratzaileren harrokeria, besteak mirabe bihurtu nahi dituelako.

Ezina eta gorrotagarria da, bada, aukeratzeko nire nahikunde zaharra.

Eta hura jotzen nuen nik gizonaren sustraia?

XIII

Harrituta gelditu naiz gaur etxeratzean: Miren'en eskutitz bat aurkitu dut ohearen gainean. Letran ezagutu dut.

Presaka ireki dut estalkia, eta irakurri:

«Nire maiteen hori:

Ezin joan naiteke zure bila. Behar zaitut Joxeba. Ez gehiago luza, arren. Eskutitz hau jasoko duzula dakit. Niregana ez bazatoz, hil egingo naiz. Ez galdetu non zauden nola jakin dudan. Beti izango zara nire maitea. Agur, nire bihotzekoa, Agur!»

Koloka du idazkera, eta ohikoa baino motzago esakera.

Erraietaraino sartu zaizkit esakuntza guztiak. Gaiso Miren! Nigatik etsita, nigatik hozkeriaren ifernura erorita. Zirrara sakona eman dit zure deiak, eta oraindik maite zaitudala ikusi dut.

Maite? Bai, Miren; oraindik ere maite zaitut.

Doilorra izan nintzen zurekin, bihotzaren ahotsari ez-entzuna egin nionean.

Eta garaitu nuela esaten nuen nik neure eroegian. Bai, ordea, nire harrokeriak ni garaitu.

Ni, ni, ni. Honatx korapiloa: neu nintzen kontutan eduki behar zen bakarra.

Bainan, zein naiz ni? Neu ez beste.

Eta Miren gajoa, nigatik penetan...
Nire eroegia!!!

XIV

Inora ez darama adimenduak, bere ezina adieraztera baizik.

Nora, berriz, sentimenduak?

Sentimenduak ez du aditzen, eskatzen baizik. Bihotzean dauka bere katadera, eta hark kilikatzen gaitu zorionminaren bidez, gure eragile bihurtuz. Zorionaz eta atsekabeaz ulertzen du bakarrik; eta baloreak mailakatzeko uste dugun baino gehiago laguntzen du neurri bakar horretaz baliaturik.

Zoriona iristeko maitetasuna eskatzen digu. Maitetasunezkoa da haren elea (begira egiegun emakumeei), eta maitatzean aurkitzen ditu atsegin bizien eta osoenak: maitatzekoa eta sortzekoa.

Eta zer da maitasuna? Nork bere burua eman, nork bere buruaz ahaztu, nor bere burutik ateratzea. Beste batek gu aukeratzen uztea.

Gu zero-lurreko erdian jarrita aukeratu nahi banu adimenduak, geure burua eskaini nahi du berriz sentimenduak. Guztiz diferente dira bada bien jokaerak.

Bainan ustekabeak eta zoriak gidatu banaute orain arte, zein zaio gizonari bietan egokiena? Jainkotzat hartzen bide gaitu lehenengoak; sorkarizat, ordea, bigarrenak, Hau dago, horretaz, besteak baino sustraizko egiatik bertago.

Eta agitz gehiago betetzen gaitu maite-legeak, gure adimendu hutsak egiaren bila alferrik nekatzeak baino.

Jaio nintzenetik zuzendu nau maitasunak, gainera.

Egungo nire baloreak ez ditu askotan egiaren arauera nik aukeratu, lehengoan izkribatzen nuen bezala, neure joe-rak eta hazkuntzaren arauera baizik. Zergatik hau? Nik aukeratu ez-baina ni aukeratzea gertatu zaidalako.

Hau guztia zorion joranak eragiten digulako.

Bidez esaten zuen hau, gutxi gora behera, filosofo handi batek: zertarako balio digu izartegiaren jaukala betesteak, gero maitatzeko laguntzen ez badigu?

«Zein de nire Zebitzaria» ez-bainan «zeinen Zerbitzaria naiz ni» galdetu behar dut. Honatx salbabidea.

Zakurraren jokaera bururatu zait. Zergatik maite du zakurrak bere jabea?

Eta guk geuk, gorabehera jakinak gordeta ere, ez al dugu berdintsu jokutzen?

Eta toka zaion jabe hori maite duelako, zakurra inork kondenatuko ez balu, nork zigorkatuko luke gizona bere aukeratzaila maite duelako? Berak maitatuz xahutu du zalantzarik gabe bere burua.

Bainan, ulermena? Argizagi itzalkorra da.

Horretaz, behar nauenaren zerbitzari naiz ni. Nolatan behar nauen ez du axolik; dena dela, gaur eta hemen, ni behar banau, zorretan nago harekiko, eta neure laguntza eskaini behar diot.

Zerbitzari naiz jaiotzez. Ez naiz gainera zerbitzari abstraktua, ondo konkretua baizik; neureen zerbitzaria bainaz. Eta, nortzu dira «nire» horiek? Jainkoak neure ondoan jarri zizkidanak.

Neure honetan egoteagatik ezets al nazake ausaz Jainkoak?

Honela jokautz, zoriontsu izango naiz, eta neure zor-rak kitatuko ditut, eta poztu egingo dira neure bidez zerbitzatzen ditudanak.

Ni neu behar nautenak aurrenik, eta edonoren laguntza

behar dutena hurrenik: horra hor nire nagusi eta ugazabak.

Neure burua makurtu eta umilduko dut horrela, eta neure mailagoari dagokionez besterik ez dut egingo.

Zoritxarrez, ez du Jainkoak hitz egiten; bainan behartiak hitz egiten didate haren ordeztan, edo Hark hauen ahoaz. Maite-deia da berena, eta Jainkoak berak deitzen nauela iduritzen zait, zergatik garbiro ikusi ez arren.

Hobe da maitatzea, ezagutzea baino. Hobe da egokiagoa.

Eta, egia?

Osorik ez daukat nik iristerik. Eta gutxi al da, izan ere, argizagi baten bidez Jainkoa badagoena jakitea?

XV

Miren'ek behar nau; nire aberriak behar nau; nireek behar naute. Berena naiz, eta berak gabe ezer ez naiz.

Orain, neure honetan, haien bizi behar dut. Neurea nora jo beharko nukeen ez dakit. «Neurez» esan al daiteke? Aroek egin nautena naiz, ez beste. Gaur, eta ezin atzerantz joan berriz, haiek naukate ni, eta haien bizi jaio naizela esan daiteke.

Eta neure «gaur», neure «atzo», eta neure «hemen» gabe, ni ez naiz ezer, asmaketa barragarri eta hitsa baizik.

Bost axola niri, nola edo zein bidetatik bihurtu naizen naizena. Hau naiz, berena naiz, eta berengana noa eginahaletan.

Buruari uko eginez, bidean abiatzen naiz azkenik. Gora bihotza!

Altzurain'a noa.

Kemen izan, Miren. Berehala nago zurekin betirako,

eta barkamendua eskatuko dizut borondate osoaz.

Barka, Miren! Barka, nire Jainkoa! Handia izan da nire harroaldian egin dudan pekatua.

Agur, hiri zoragarria!

Agur!

XVI

Altzurain'en berriz. Laburra izango da ondorengoa.

Erotuta bezala nago. Ohean aurkitu dut Miren; heriotzear nire ustez. Zurbil urdina du kolorea, eta zulo ikaragarritan galduta haren begiak. Zer ote du? Ez dakit oraindik. Ni hara iritsi, eta alde egin didate, eta zaputz, gelakide guztiek, txintik ere atera ez dutela. Guztiek gorroto naute.

Gelan ni sartze berean ezagutu nau Miren'ek; ez begiez, alegia, ikusita ere ezagutzen ez baininduen. Sumatu egin nauela esan daiteke, egiazki.

Hurbil-erazi nau, ahulduta bait baitu ikusmean, eta irribarrez esan dit: «Orain ikusten zaitut... neure Joxeba maitea... Banekien nik... Ezin joan nintekeen zugana... oraindik maite nauzu... Ez zara kupidaz niganan etorri...»

Eta ito beharrez eman dio eztulari.

Atsedena hartzeko, eta nigatik hitzik ez esateko, eskatu diot; eta bekokian musu bigun eta zirrargarri bat eman ondoren, alde egin dut handik.

Irtetean, lehenagoko keinu muker ber-berak, ta agurririk ere ez.

Sendagilearengana noa ariniketan.

Nekelarriraino estutzen nau damuak.

XVII

Uriarte midikuarekin egon naiz: ezer egiterik ez dago haren ustez. Miren'ek ez dauka sendatzerik.

Hain nago etsita, edozein astakeria egiteko prest nagoela.

Sargori. Buruko mina. Nekez betea. Jangartsu. Izerdi hotzez bustita dena. Bero senditzeagatik ere, hotzak nago batera. Ez omen da inor ametsetan hil; baina ametsetan bezala hiltzen ari naiz ni orain. Neure herio beharra ezik, ametsezkoa iruditzen zait dena.

Ezin esan halako dut zauskada. Gezurra izan behar du honek. Ezin izan daiteke egia. Miren!! Heriotzear!!

Ahultasun harrigarria dut belaunetan, eta dar-dar bezala soin osoa.

Erruduna naiz, bai. Neugatik gaizkitu da beharbada bere horretaraino; nire ankerkeriak hil du agian. Eta beranduegi datorkit damua. Hemen egon izan banintz apika...

Ez, arren! Ez hori pentsa. Haren erailea naizela aitortzea litzateke hori. Eta ez naiz harekiko eraile bat izan. Ez, Jauna, otoi! Larregi litzateke niretzat...

Oraintxe ezkutatzen da eguzkia urre-galda or ditziratsutan. Inoiz ez bezalako adioa gaurko hori. Bai ederra! Bai miragarria! Ez zara horratio niretzat...

Ibarluze'ko komentura noa. Urruti dago, bai; baina ni geldi-eraz nazakeen eragozpenik ez dago gaur. Oraintxe noa, arratsa ilundu aurretik ahal bada. Aita Damaso bisitatzera noa: sendaketa harrigarriak egin omen ditu be-

larren bidez, eta saiatzea behintzat ez zait faltako. Ia Imirio'ko menditarte malkarretik egunez igaro ahal naitekeen.

Agur!

Beldur naiz. Otoitz egin nahiko nuke. Nori, ordea, fedegabe gogor honek?

1956'ko Irailak 30. Hau egun gogoangarria! Aspaldidanik sentitzen ez nuen gogoak ikutu nau gaur: otoitz egitekoak.

Jainkoa: ez zaitut nik zu behin ere ukatu. Lagun zakizkit neure larrialdi honetan.

Zu ikusi ez arren, neure hobena ikusten dut. Aukeramin harroak baztertu ninduen neure bidetik. Barka. Hitz egin iezadazu, otoi, eta ez naiz berriz ilunpetan galduko.

Senda ezazu Miren. Hori eta gehiago merezi du. Nik deus ez.

Argiro ikusiko bazintut, gogoz zerbitzatuko zintuzket. Besteak maitatzea, karidade beharra. Jainkoaren egarria, bizitza ibilkizun bat dela, egiara iristerik ez daukagula... Hauek dira orain arte, Zure bila ibiliz, aurkitu ditudan egiak.

Miren biziko balitz...

Maitasunaz xahutuko ditut neure bekatuak. Maitasunaz... maitasunaz... Nork hitzegiten zuen beti maitasunaz? Aitortzeko beldur naiz: Kristo!

Zu al zara egiaz «Egia eta Bizitza»? Ez nuen uste, baina zure ondo-ondoan nintzen. Jakin izan banu... Senda ezazu Miren, eta hil nazazu ni. Niregatik ez bainan haren hondamendiaz errukiturik, senda ezazu Miren. Nik ez, bainan hark sinesten zaitu Zu bihotzetik. Arren jauna!

Bihar ekin al baniezaio otoitz-gogoetan mamitsu honi. Joan egin behar dut, zoritxarrez, argi printzak nire arima mindua argitzen asten direlarik.

Sukarra erakutsiko al dit otean egiazko bidea? Larri-

min beteak ala?

Bihar argituko dut hau beharbada, Ibarluze'tik itzultzean...

Bizi zaitetz, Miren. Prest nago zure alde neure bizitza eskaintzeko. Zure zerbitzari osoa naiz. Zinez esaten dizut. Eta hartuko bazenu ere, ez nuke guztiz ere nire hobena garbituko, hil egin baitzaitut.

Agur Altzurain bihotzekoa!

Zergatik ari naiz negarrez?

Biltzailearen oharra:

Hemen bukatzen da Leturia zorigaiztokoaren egunkari hunkigarria. Zer gertatu ote zitzaien gero? Beharbada hau ez da sekula jakingo.

Baina handik gutxitara, berri hau eman zuen «Altzurain-go Deiak»:

«Urriaren 10.

Gizon baten gorpuzkina aurkitu da Imirioz-ko leizean. Amildegitik erori bide zen, eta osagileen ustez, hamar bat egun daramatza han gorputzak.

Irailaren 30-ko trumoian galdutako gizona da noski. Oraingoz behintzat, nor den ezin iragar daiteke».

Leturia bera nonbait, gure Joxeba gizajoa ez baitzen berriz inora azalduko.

Joxeba-ren istoria jakinda, bereziki joan naiz Altzurain ikustera. Eta ezaguna izan zait dena. Ez nintzen, ez, guztiz arrotz.

Zerubide ezagutu dut. Dena dago berdin...

Urrutiko oihartzun gisara Altzurain-go zarata... Zuhaitz ederrak, haizeak urduri... Bakea... Urmaela han ere,

ezkutu, bakar... Haurrak korrika alaian: hasera. Agureak konkor: azkena!... Iturritxoaren eten gabe jario...

Eta ni lasai, geldiro, talaitxo aldera noala... Isila, eta neure urratsak entzun: hots, hots, hots, hots...

Eta, bapatean, zirrara, eta ni beldur:

«Hots, hots... Bizion oñok»...

Nire aurrean, bare, urdin, argitsu, zabal, itsasoa... Beterako itsaso baztergabea.

AURKIBIDEA

UDALEHEN	23
UDA	71
UDAZKEN	77
NEGU	107